

Goienkaria

2008ko uztailaren 4a > Egubakoitza > VIII. urtea > 339. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Migrazio prozesuetan gizartea bera da gailu erregulatuak bakarra"

Xabier Aierdi
Irakaslea > 09



KULTURA

Emanaldiz josita dator uztaila bailarako hiru herritan > 20, 26, 31

SASKIBALOA

MUK uko egin dio EBA kategorian lortu duen postuari > 22

BERGARA

Euskal Unibertsitatearen adar bat Bergaran ezarri nahi dute > 24

ELGETA

Saihesbidearen bigarren faseko proiektua onartu dute > 37



TALDEAK Txapa Irratiko eta Bergarako hainbat musika taldetako ordezkariek, Txaparrada Musikala ekimena aurkezten.

IKER BARANDIARAN

MUSIKA > 'TXAPARRADA MUSIKALA'

Bergarako 27 taldek joko dute asteburuan

KONTZERTUAK Gaur, egubakoitza, eta bihar egingo dituzte saioak, Txapa Irratiak antolatuta

DISKOA Kontzertuetako 27 taldeen eta Bergarako beste batzuen musika CD baten batuko dute > 43-44

EKONOMIA > HILTEGIA

Hiltegia kudeatzeko modu berria

Mankomunitateak sozietate publikoa eratu nahi du > 02-03

ELKARTASUNA > UMEAK

Ongietorria egin diete sahararrei

Denetara, Saharako eta Txernobilgo 30 ume daude > 04

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-08
Elkarrizketa > 09
Iritzia > 10-11
Gutunak > 12
Herriak > 15-39
Kirola > 40-41
Kultura > 45
Berri-zakua > 46-47
Sailkatuak > 48
Gazteak > 50
Komunikazioa > 51
Telebista-Irratia > 52
Non-zer > 54-55

eta opari ... SMART bat!



400 €-tik gorako erosketagatik auto bat irabaz dezakezu!

Koltxoi dendak

bede®

Gure denbora zure atsedena da

ARRASATE / Zarugalde 25Tel.: 943 77 18 35 • BERGARA / Arrizuri 7 Tel.: 943 76 25 91

Kuga gama, kontsumoa: 6,3-6,4 l/100 km. CO2 emisioak: 165-169 g/km.



Semaforo batek zergatik izan behar du semaforo antzik? Pentsa ezazu izara zuri bat duzula.

Ford Kuga

kugarevolution.com

MUGARRI AUTOAK
Araba etorbidea, z/g
ARRASATE-MONDRAGÓN

Feel the difference



EKONOMIA > ABELZAINZA

Abere hiltegia kudeatzeko sozietate publikoa eratu gura du Mankomunitateak

DATORREN URTE HASIERAN

Asmoa da sozietate publiko berria datorren urte hasierarako martxan egotea; udalek osatuko lukete hori

AURKEZPENA

Bideragarritasun plana eta kudeaketa eredu berria aurkeztu zituen atzo, eguena, Oñatin, Debagoieneko Mankomunitateak

INGURUKO UDALAK

Hiltegiak zerbitzua ematen dien bailara barruko eta kanpoko herriek izango dute egitasmo horretan parte hartzeko aukera

MIRIAN BITERI > OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak Oñatiko abere hiltegiari bultzada eman nahi dio, eta horretarako, udalek osatutako sozietate publikoa eratu gura du datorren urterako. Hiltegiako presidente Pedro Iturbek aurkeztu zuen atzo, eguena, proposamen hori, Oñatiko udaletxean egindako agerraldian.

Iturbe ez zen bakarrik egon esandako prentsaurrekoan. Ondan izan zituen Oñatiko alkate

Lourdes Idoiaga, EHNE sindikatuko Unzalu Salterain eta Durangoko Erralde hiltegiako eta Zubillagako bideragarritasun planaren arduradun Txaber Gandiaga. Horrez gain, bailarako nahiz inguruko hainbat udaletako alkate eta nekazari gaiez arduratzen diren zinegotzi eta Zubillagako abere hiltegiako batzordekideak izan ziren.

Abere hiltegiako presidentek azpimarratu zuen sektorea indartu beharra dagoela, "benetan

laguntza beharrean dagoelako". Gogorarazi zuen baserriak, egun, ez duela bizitzeko adina ematen: "Enpresa handiek sektorea asimilatzen dute. Horregatik, sektoreak merezi duen errespetu eta duen garrantziagatik, hura babestu eta indartzeko politikak jarri nahi ditugu martxan".

250.000 EUROKO KOSTUA URTERO

Esan bezala, bideragarritasun plana abian jartzea eta kudeaketa ere-

dua aldatzea proposatu zuten. Zubillagako abere hiltegia bideragarria izateko, hilero 560 buru hil behar direla jakinarazi zuen Gandiaga; gaur egun, baina, 450 buru baino ez dira hiltzen. Guztira, zerbitzu berri hori martxan jartzea 250.000 euro inguru balioko duela aipatu zuen.

Iturbek salatu zuen azken urteotan Eusko Jaurlaritzak abere hiltegi txikiak ixteko "apustua" egin duela. 2004an, Gurokela taldea sor-



Martitzenean txahalak eta bildotsak hil zituzten Zubillagako abere hiltegiaren barruan.

tu zenean, abere askok Bilborako bidea hartu zutela adierazi zuen: "Merkatuaren zentralizazioa bilatzen zen, eta hiltegi txikiak egoera gogorak pasa zituzten; tartean, bailarako abere hiltegiak".



Bideragarritasun plana eta kudeaketa eredu berria aurkeztu zituzten atzo Oñatiko udaletxean.

MIRIAN BITERI

Egubakoitzetan egoten da mugimendu handien Zubillagako abere hiltegian

Goizean goiz sartzen dira langileak norberaren lanpostura, 07:00etan hasten dira eta animaliak hiltzen. Astelehenetan, martitzenetan eta egubakoitzetan egiten dute hori. Azken egun hori izaten da lanpetuena. Normalean, 80 bat txahala hiltzen dituzte. Animalia gehienak goizean bertan iristen dira hiltegiara. Debagoienatik ez ezik, Debabarrenetatik, Urola-Garaiatik eta Gasteizetik ere iristen dira.

Ukuilutik dagokien lineara pasatzen dira animaliak. Bi linea dituzte: behiendako zein zaldiendako bata eta ardiendako bestea. Hil eta garbitu ostean, hozkailuetan sartzen da okela. Bi hozkailu dituzte: okela aireztatzeko eta asentatzeko. Generoa harategietara joaten denean, gehienez egun pare bat egoten da horietan. Baserriarrendako denean, baina, astebete inguru ematen du, okela ondo asentatu arte. Hamazazpi pertsonak dihardute lanean Zubillagako hiltegian.



Finantzaketa kuota pertsonalizatuak

SYMS
SERVIMASA

Sukaldeko altzariak eta osagarriak

Aitziturri 4, Posta-kutxa 173
Tel.: 943 76 19 95 Faxe: 943 76 07 49
20570 BERGARA

103 Industria poligonoa
Tel.: 943 52 05 00 Faxe: 943 51 57 57
20100 LEZO



illagako abere hiltegi. Irudian, okela zero eta bi gradu arteko tenperatura duten hozkailuetan sartuta.

GOIENKARIA

te publiko horrek. Gaur egun Euskal Herrian kontsumitzen den okelaren %40 baino ez da hemen ekoizten. Zubillagako hiltegiako presidentearen arabera, "gure baserriarren haragiaren kalitatearen truke, benetan merezi duten garrantzia onartzea eta bere lana merezi bezala ordaintzea bilatzen dugu".

BITARTEKARIK GABE

Iturberen ustez, "lekukotasunak eta kalitateak hartu behar du garrantzia". Orain arteko kudeaketa ere zuzena izan bada ere, proposamen berri horrekin baserriarrak, hiltegi eta harakinak elkarlanean ibiltzea ahalbideratuko luke, "bitartekaririk gabe". Iturbek esan zuen, gainera, sozietate publiko horrek, orain, lanerako ez dagoen "abilezia" ekarriko lukeela. "Erraztasuna emango luke. Tramiteak bizkortuko lituzke".

Azkenik, Iturbek nabarmendu gura izan zuen "aspaldian falta izan den ilusioa" dutela eta bailaran, Zubillagako abere hiltegia "gakoa" dela. Gaineratu du, baina, mahai gainean jarritako helburuak lortu ahal izateko "guztion konpromisoak" beharrezkoak direla. Alegia, baserriarrena, harakinena, kontsumitzaileena, sindikatue- na, langileena eta baita alderdi politikoena ere. "Guztion esku dago proiektu hau aurrera ateratzea", esan zuen.

Durangoko Erralde hiltegiako esperientzia ezagutu gura izan du Mankomunitateak Debagoieneko abere hiltegiarako egitasmo berria bultzatzerakoan

Kontsumitzen den okela bailarakoa eta inguruko herrietakoa izatea bilatzen du sozietate publikoak. Egun Euskal Herrian kontsumitzen den okelaren %40 baino ez da bertan ekoizten

DURANGOKO KASUA

Gogora ekarri zuen tarte horretan Durango eta Gasteizko hiltegiak atekaitxi zituztela. Bada, joan den urtean, Durangon Erralde Hiltegia sozietate publikoaren eratu zuten; horrek hiltegia berriro zabaltzea ekarri zuen. Inguruko baserriarrek hara erosten dituzte berriro abereak: "Gaur egun, 2005ean hiltzen zen kopurua hiltzen da han", adierazi zuen.

Durangoko esperientzia zein den jakin nahi izan du Mankomunitateak Debagoieneko abere hiltegia bultzatzerakoan. "Oso pauso garrantzitsu eta zaila eman du Erralde Hiltegiak. Denborak arrazoia ematen die. Bertako okelean sinesten dute eta bertako produkzioan, kalitatea dute helburu eta sektoreak egiten duen lana baloratu eta saritzen dute", esan zuen. Horren harira, gaineratu zuen Durangaldekoek erakutsi dutela "hil-

tegi txikiek haragiaren merkaturuan tokia" badutela eta oraindik "jorrazteko bide asko" bada goela.

INGURUKO UDALEI GONBITA

Sozietate publikoa 2009 hasieran martxan egotea gura du Mankomunitateak. Iturberen esanetan, hiltegiak zerbitzua ematen dien Debagoiena inguruko herriei ere proiektuan integratzeko aukera eskainiko zaie. Horren harira, jakinarazi zuen dagoeneko Aramaioko, Zumarragako, Urretxuko eta Soralezeko udalekin jarri direla harremanetan, beste hainbat artean: "Helburua da aurrerapausoak guztion artean adostea". Horren harira, iragarri zuen uztailean bertan beste batzar bat egiteko asmoa dutela.

Bestetik, Euskal Herrian kontsumitzen den okela guztia bailarako nahiz inguruko herrietakoa izatea bilatuko luke sozietate

Abere hiltegiaren jarduera, azken hilabeteetan

2007

HILABETEAK	BEHIAK	TXAHALAK	ARDIAK	BILDOTSAK	ZALDIAK
Urtarrila	38	453	4	1.391	26
Otsaila	28	441	9	1.349	25
Martxoa	28	496	6	889	14
Apirila	21	428	-	670	15
Maiatza	20	400	-	229	16
Ekaina	20	465	-	99	16
Uztaila	13	341	-	107	14
Abuztua	4	301	-	21	5
Iraila	14	360	-	19	24
Urria	19	361	21	48	30
Azaroa	27	422	27	101	27
Abendua	30	373	4	2.367	34
GUZTIRA	262	4.841	71	7.290	246

2008

Urtarrila	13	327	10	1.482	26
Otsaila	14	437	3	1.491	15
Martxoa	15	371	-	1.249	20
Apirila	32	411	1	602	19
Maiatza	12	469	-	224	15
GUZTIRA	86	2.015	14	5.048	95

ITURRIA: DEBAGOIENOKO MANKOMUNITATEA



ZUREZKO BIZILEKU BIOKLIMATIKOAK



C/ZORROLLETA, 5
01015 GASTEIZ
T. 945 29 06 06
615 78 28 23
WWW.ZBB.ES



Saharako haurrak egauztenean egin zieten harrera ekitaldia udaletxeko osoko bilkuren aretoan Saharatik Arrasatera eta Oñatira etorritako haurrei.

UBANE MADERA

ELKARTASUNA > SAHARA ETA UKRAINIAKO UMEAK

Saharatik eta Txernobildik Debagoienera, uda pasatzera

Lau elkarteren ahaleginaren bitartez, Ibarreko herrietako familiekin 30 neska-mutil egongo dira abuztu amaiera arte

JASONE ZABALA > BERGARA

Joan den ekainaren 23an gure artera etorri ziren Saharako eta Txernobilgo haurrak uda pasatzera, guztira 30 neska-mutil. Nubi, Iesbaa eta Bubisher elkar-teek Saharako 20 ume ekarri dituzte Debagoieneko herrietara, uda hemengo familien artean pasatzeko. Horrela, ume gehien

jaso duten herriak Arrasate eta Bergara izan dira; herri bakoitzean, bertako familiekin, zazpi neska-mutil egongo dira; Oñatiko familiekin, hiru, eta Aretxabale-takoekin ere, hiru. Eskoriatzan aurten ez da haurrik egongo. Guztiak 7-8 urte bitarteko neska-mutilak dira. Oñatin, berriz, Arantza Zubia azken urteetan


egiten ari den ahaleginari esker, Txernobildik hamar neska-mutil etorri dira gure artera- bi mutil eta zortzi neska- uda pasatzera. Horiek abuztuaren 28a bitartean egongo dira bertako familiekin.

Bestalde, aipatu behar da Aretxabale-tara eta Bergarara etorri behar zuten bi haur oraindik ez direla gure artera heldu, ekaina-

ren 23ko hegaldian ez zegoelako tokirik. Bi haurrak Dakhlako kanpalekukoak dira; arduradunek esan digutenaren arabera datozen egunetan helduko dira.

ONGIETORRIA

Nubi elkartearen eskutik bailara etorritako hamar neska-mutili ongietorria egin zien Oihana Aranburu Arrasateko jarduneko alkateak udaletxeko osoko bilkura aretoan. Bertan, haurrak hemen egongo diren familiako kideekin batera egon ziren; harreraren ondoren, luntxa izan zuten. Beste herrietan ere ongietorri ekitaldia egiteko asmoa dago, baina data zehaztu gabe dute oraindik; uztailean zehar egitea espero dute.



DEBAGOIENENKO MANKOMUNITATEA
GARAPEN EKONOMIKORAKO AGENTZIA

www.debagoiena.net

Lanbide profilak
Debagoieneko Hasierako Lanbide Prestakuntza zentroan garatzen diren profilak honako hauek dira:

1. maila

- Instalazio Elektrikoen Langilea
- Iturgintzako Langilea

2. maila

- Mekanizatuko Langilea

Profil bakoitzean gutxienez 10 ikasle behar dira, horrela ez balitz, posible litzateke talderen bat martxan ez jartzea.

MATRIKULAZIOA
Ekainaren 30etik Uztailearen 11ra
09:00etatik 12:30era

Non: Debagoieneko Garapen Agentzian.
Nafarroa Etorbidea, 21 Pk: 237 20500 Arrasate
e-mail: [idazkaritza@lanbidehastapena.com](mailto: idazkaritza@lanbidehastapena.com)
Telf: 943 792890



**2008-2009
IKASTURTEA**





ENPRESA > MIKROOSAGAIK

Mikrofabrikazioko teknologiei buruzko jardunaldiak izan dira Garaia gunean

Sektorearen inguruan mugitzen direnak harremanetan jartzea izan da helburu bat

Nazioarteko entzute handiko hainbat ikertzaile egon dira egoera aztertzen

JASONE ZABALA > ARRASATE

Ikerkuntza eta berrikuntzako enpresen eta entitateen arteko harremanak sustatzeko foroa izan zen Garaia Berrikuntza Gunean pasa den eguaztenean. Mikrofabrikazioa enpresentzako negozio-aukera berria dela diote.

Adituen esanetan, mikroosagaien munduko eskariak nabarmen egingo du gora automobilgintzako, medikuntzako, elektronikako eta bioteknologiako sektoreetan, besteak beste. Horregatik da estrategikoa mikrofabrikaziozko teknologia berriak erabiltzea produktu berritzaile eta lehiakorrek garatzeari begira.

HITZALDIK ETA ERAKUSTOKIAK

Mondragon Unibertsitateak antolatutako jardunaldion helburua mikroosagaien fabrikaziora-



Hitzaldiak ez ezik, erakustokiak ere egon ziren.

TXOMIN MADINA

ko erabil daitezkeen teknologia garrantzitsuenak ezagutaraztea izan da. Teknologia horiek eskaintzen dituzten aukerak eta haien erabilera-alorra aurkeztea, hainbat mikroteknologiaren erradiografia eginez; baita

multzo handien fabrikazio metalikoarena edo multzo handien plastikarena ere esaterako.

Unibertsitateetako eta zentro teknologikoetako nazioarteko entzute handiko hainbat ikertzaile etorri ziren mikrofabrika-

zioaren egoera aztertzeraz, hala nola Mondragon Unibertsitateko Ivan Gallego, Patxi Aristimuño, Endika Gandarias eta Miriam Pe; Cardiff Unibertsitateko Atanas Ivanov; ASCAMMeko M. Eugenia Rodriguez; Hannove-

rreko Laser Zentrumeko Jürgen Koch; Bremengo Unibertsitateko Oltman Riemer; Idekoko Joseba Perez; eta Teknikerreko Alberto Herrero.

Horrekin batera, zenbait enpresak gure ingurunean garaturiko erabilera industrialak erakutsi zituzten: Microsystems UK, Talleres Fiestas, Biotechnology Institute, Industrias Alzucá, MIM-Tech Alfa, Gema Medical eta Mondragon Assembly enpresek.

Jardunaldi horien tarteko atsedendietan eta baita bazkalorduan ere, mikrofabrikazioraren alorreko azken berrietasunak eta produktuak erakutsi zituzten hainbat enpresak.

PIEZA TXIKIEN FABRIKAZIOA

Patxi Aristimuño Mondragon Unibertsitateko Mekanizatuen Ikerketa Lerroko arduradunak esan zuen mikrofabrikazioa zer den azaltzeko definizio zehatzik ez dagoen arren, hitz gutxitan, egiteko errazak ez diren pieza txikien fabrikazioa dela.

Eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun hainbat elementutan aurki daitezkeela gaineratu du Aristimuño; mugikorretan, adibidez. Osasun arloan, proteziak egiteko adibidez, gero eta erabiliagoak direla ere esan zuen. Haren hitzetan, gero eta garapen handiagoa du mikrofabrikazioak, eta litekeena da etorkizunean hazten joatea.

EUSKARA > DIRULAGUNTZAK

Euskara sustatzeko 13 milioi euro emango ditu Jaurlaritzak

Euskal hedabideen artean 5.575.000 euro banatuko ditu Hizkuntza Politika Sailburuordetzak aurtan

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Euskararen erabilera bultzatzeko aurtan emango dituen dirulaguntzak aurkeztu ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Patxi Baztarrika sailburuordeak adierazi du euskara sustatzeko aurtengo laguntza 12.965.000 euro izango dela. Gaineratu du 2005eko legegintzaldia hasi zenetik laguntzak %60 "handitu" direla. Dirulaguntzak bost multzotan banatuko dituztela azal-

du du; eta gaineratu du laguntzak "beharrezkoak" direla. Astelehenean prentsaurrekoan eman zituen datuok.

ALDIZKARIEI LAGUNTZAK

Guztira, 5.575.000 euro banatuko ditu Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak euskal hedabideen artean. Tokiko aldizkariak

DATUA

150

HEDABIDE LAGUNDUKO DITUZTE

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak emango dituen dirulaguntzak 150 hedabideren artean banatuko dira. Gainera, 58 enpresa eta elkarte ere jasoko dituzte dirulaguntzak.

(GOIENKARIA, tartean) 760.543 euro jasoko dituzte. Guztira, 34 tokiko aldizkari daude -iaz, 749.619 euro jaso zituzten-. Informazio orokorreko eta informazio espezializatuen aldizkariak, ostera, 1.249.036 euro jasoko dituzte. 19 aldizkari dira arlo horretan laguntzak jasoko dituztenak.

Eguneroko prentsak jasoko du dirulaguntza zatirik handiena: 2.003.479 euro. *Berría* egunkariak, eskualdeko *zazpi Hitza* egunkariak eta *Hermaniko Kronikak* jasoko dute diru kopuru hori.

TELEBISTA ETA IRRATIA

Bederatzi telebistari 575.000 euro banatuko zaizkie -iaz, 574.027 euro jasoko zituzten zazpi telebistak. Irratien kasuan, 315.232 euro jasoko dituzte bost irratik; iaz baino 33.794 euro gehiago izango dira.

KONTSUMOA > HIZKUNTZA POLITIKA

Erakunde askok euskaraz ere atenditu beharko dute

Eguaztenean aurkeztu zuten Donostian hizkuntza dekretu berria

A.E. > BERGARA

Euskadiko kontsumitzaileei eta erabiltzaileei aitorturiko hizkuntza eskubideak bermatzea da hizkuntza dekretu berriaren helburua. Hala adierazi zuten eguaztenean Donostian, prentsaurrekoan, Patxi Baztarrikak, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak, eta Rodrigo Gartzia, Merkataritza Kontsumo eta Industria Segurtasuneko sailburuordeak.

Lehen aldia da euskal erakundeek kontsumoaren alorrean euskararen aldeko arauak dekretu bidez ezartzen dituztela. Oinarrian, hiru lege daude:

Autonomia Estatutua (1979), Euskararen Legea (1982) eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren Legea (2003).

ERABILERAREN ALDE

Euskarak milaka hiztun berri ditu, baina arlo sozio-ekonomikoan eta lan munduan egoera ez da ona. Horregatik, bai euskaraz bai espainolez atenditzera behartzen ditu dekretuak hainbat erakunde eta enpresa: hain zuzen, erakunde publikoek, interes orokorreko zerbitzuek, komunikazio operadoreek, garraio publikoa erregulatzeko dutenek, energia elektrikoaren banatzen duten enpresek eta gas naturala merkaturatzen dutenek.

Saltokiei dagokienez, 250 langiletik gora dituzten saltokiek eta 400 metrotik gorakoak bete beharko dute. Horretarako, laguntzak emango dituzte.

EKONOMIA > MERKATARITZA

Eragin txikia izango du arau berriak ibarreko saltokietan

Legebiltzarrak merkataritza jardueren gainean egindako araua domekan sartu zen indarrean

Arau berriak 150 metro koadro baino gehiago duten saltokiei eragingo die

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Domekan sartu zen indarrean saltokien ordutegia arautuko duen dekretu berria. Eusko Legebiltzarrak Merkataritza Sailarekin batera hartutako neurriak dira horiek. Dekretu berriak 150 metro koadrotik gorako saltokiei eragingo die. Orain arte, 400 metro koadrotik gorako saltokiak zeuden araututa; baina, aurrerantzean, saltoki gehiagok errespetatu beharko dute ordutegia.

JAIEGUNAK

150 metro baino gehiago dituzten saltokiei eragingo die dekretuak. Aurrerantzean, gehienez, asteko 72 ordu ireki ahal izango dituzte saltokiok. Bestalde, jaiegunei dagokienez, urteko zortzi jaie-

gunetan irekitzeko baimena izango dute 150 metro koadro baino gehiagoko saltokiek. Orain arte, neurri horiek 400 metro baino gehiago dituzten saltokiei bakarrik zegozkien. Baina arauak baditu zenbait salbuespen: gogorra ezazue neurri horietatik kanpo geratuko direla saltoki bereziak; besteak beste, okindegiak, gasolindegia eta kioskoak.

SALTOKI GUTXI GUREAN

Ibarrean saltoki gutxi dira 150 metro koadrotik gorako azalera dutenak. Mankomunitateko Enpresa Ekintzetarako Zentroko Eñaut Iraetak adierazi du Arrasateko Ibai Arte dendarien elkarrean ez dagoela hain denda handirik. Oñatiko Txanda elkarteko-

ek ere gauza bera adierazi dute. Saltokietan galdetuta, Oñatiko Letamendi dendakoek esan dute euren dendak ez duela horrenbeste azalera: "Gure denda ez da 150 metro koadroetara iristen". Gaineratu du araua errespetatzen dutela eta dekretu berriak ez liekeela eragingo. "Gaur egun, ez dugu domeketan zabaltzen; eta, Oñatin beste dendek ere ez dute domeka eta jaiegunetan zabaltzen. Orain arte arauak ez eragin arren, errespetatu egin izan dugu", dio. Hortaz, ez du uste dekretuak eragin handia izango

> 150 METRO KOADRO

Arauak 150 metro koadro baino gehiagoko saltokiei eragingo die.

> ORDUTEGIA

Astean, gehienez, 72 ordu irekiko dute, eta urteko zortzi jaiegunetan.

> ALKOHOLA

Udalek dute debekatzeko eskumena 22:00etatik 07:00etara.

duenik ibarrean. Eñaut Iraetak azaldu du EAEn 500 saltoki inguru direla aldaketa horren eragina igarriko dutenak. Azpimarratu du 500 saltoki horietatik 350 txinatarrak direla. Hala, bailara osoan arau berriak eraginik ez lukeela izango uste du Iraetak.

ALKOHOLAREN SALMENTA

Saltokietako ordutegia eta jaiegunak arautzeaz gain, dekretu berriak alkoholaren salmenta ere arautuko du. Arautegi berriak herri bakoitzeko udalari uzten dio eskumena alkoholaren salmenta debekatzeko 22:00etatik 07:00etara. Hala, saltokiak dituen irekiera orduak direnak direla ere, udalak eskumena izango du salmenta debekatzeko aipatutako ordutan.

Arau berriak errespetatzea da dekretuaren helburua. Hala, arau horiek guztiak errespetatzen ez dituztenek isunak izango dituzte aurrerantzean: hain zuzen ere, 25.000 euro eta 900.000 euro bitarteko isunak jasoko dituzte legea betetzen ez duten saltokiak.

ERASOAK

Alderdi kideen aurkako erasoak salatu ditu EAJK

NEREA MENOR > BERGARA

EAJren Gipuzko Buru Batzarrek (GBB) salatu du alderdi horretako afiliatu, zinegotzi eta alkateen aurkako mehatxu, pintaketa eta paskinak agertu direla Gipuzkoako hainbat udalerritan azkenaldian; besteak beste, Arrasaten, Tolosan eta Donostian.

"Larderiaren eta indarkeariaren estrategian kokatzen direnek" argi uzten dute "beren proiektu politikoaren ahultasuna eta porrota", dio GBBk; eta haxe gaineratzen du: "Ez gaituzte gure bidetik eta alderdi gisa ezarritako helburuetatik aterako".

SALAKETA

EAJk salatu du "proiektu bidegarriak, eta ekimen demokratiko eta bakezaleak" bultzatu beharrean, norbaitek "jazarpen eta presio mekanismoak aktibatzea" erabaki duela.

LEHIAKETA > UDAKO ARGAZKIAK

Udako argazkien lehiaketa abian jarri du Goienak

Hiru sari banatuko dira eta irabazleak reflex kamera digitala jasoko du, bi objektiborekin

Edozeinek har dezake parte, gehienez bost argazkirekin, eta lanak jadanik aurkez daitezke

GOIENKARIA > BERGARA

Udako argazkien lehiaketa antolatuko du aurten ere Goienak. Laugarren edizioa izango da eta aurrekoetan bezala sari bikainak banatuko dira. Lehenengo saria, esaterako, reflex argazki kamera digitala izango da.

Udako argazkiak izan beharko dute, berdin dio oraingoak edo beste urte batzuetakoak. Argazkiak aurkezteko epea zabalik dago eta irailaren 17an bukatuko da. Irabazlearen izena eta beste bi saridunena urriaren 6ko *Asteleheneko Goienkaria*-n jakingo ditugu. Aurkeztutako argazkiak astero argitaratuko dira *Asteleheneko Goienkaria*-n, uztailaren 14an hasi eta irailaren 29ra arte.

GEHIENEZ ERE BOST ARGAZKI

Lehiaketara aurkezten diren udako argazkiek beste inon argitaratu bakoak izan beharko dute. Edozeinek parte har dezake eta ez da ezer ordaindu beharko. Argaz-

kiak aurkeztu beharko dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko bereizmen eta kalitatearekin). Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera eroan: Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan. Egoitzaren batera ekartzekotan, kartazal batean sartuta, edo CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan, eta JPG formatuan.

Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean. Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren erreferentzia (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat). Gehienez, bost argazki bidali ahal izango dira. Epaimahaia Goienako kideek eta bailarako argazkilari profesionalak osatuko dute. Epaimahaia



Iaz saritutako hiru argazkiak: ezkerrean, lehenengo saria, eta aldamenean, bigarreana (goian) eta hirugarrena.



GOIENKARIA

argazkiaren kalitatea, originaltasuna eta balio historikoa hartuko ditu kontuan. Argazki asko jasotzen badira, ez dira guztiak argitaratuko. Onenak aukeratuko dira.

SARI BIKAINAK

Hiru sari banatuko dira: lehenengoa, Olympus markako E-510 reflex argazki kamera digitala; 10 milioi pixelduna eta bi objektibo aldagarriekin: Zuiko digital

14-42 mm eta 40-150 mm; bigarreana, aste bukerarako egonaldia bi pertsonarendako; eta hirugarrena, afari edo bazkari bat bi pertsonarendako Leintz Gatzagak Gure Ametsa jatetzear.



Bizikletan joaten da lanera Aitor Ugalde egunerero.

OIHANA ELORTZA

Aitor Ugalde > Txirrinka taldeko kidea

"Udalak egin duen txostenaren ingurukoak jakiteko bilera egingo dugu hilaren 16an"

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Txirrinka taldeak bilera irekia egin zuen eguazten arratsaldean. Bidegorri sarea eskatzeko eginen diharduten ekintzen gainean eta Udalak esku artean duen proiektuari buruz egin zuten berba. Aitor Ugaldek laburtu dizkigu bileran esandakoak.

Zertarako egin zenuten eguazteneko bilera?

Gure asmoa zen orain arte egindako ekintzen inguruko informazioa ematea. Bestalde, dei berezia egin nahi genuen Txirrinka taldean antolatzen ditugun ekintzetan parte hartzeko. Horregatik egin genuen bilera irekia, eta 12 bat lagun elkartu ginen. Egia esan, halako deialdiara lagun gutxi joaten dela kontuan hartuta, pozik gaude deialdiak izandako erantzunarekin.

Urtarrilean hasi zineten bidegorriak eskatzeko irteerak eginen. Nolako erantzuna izan duzue?

Egia esan, ez gara lagun askorik elkartzen. Hil bakoitzeko hirugarren egubakoitzean eginen dugu, 19:00etan. Zaila da guztioi ondo datorkigun ordua jarzea. Dena den, uztailaren irteera egiteko asmoa dugu. Hain zuzen, hilaren 18an egingo dugu. Bestalde, oraindik ez dugu erabaki irailetik aurrera ekintza honekin jarraituko dugun edo ez.

Dena den, guk garbi dauka irteeratan parte hartzen duten pertsonak baino askoz gehiagok aldarrikatzen dutela bidegorria. Lagun talde handi batek eskatzen du bidegorri sarea herrirako.

Bidegorriaren gaineko proiektua egiten dihardu Udalak. Ze puntutan dago gai hori?

Ba, egia esan, ez dakigu zehatz-mehatz zer den Udalak kontratatutako teknikariak egin duena. Teorian, bidegorri sareari buruzko ikerketa lana egin du. Jakin badakigu txostena egin duen artean ez dela gurekin bildu, ezta gainerako taldeekin ere.

Dena den, txostenaren nondik norakoak azaltzeko bilera batera deitu gaituzte udal arduradunek. Hain zuzen, datorren aste-ko eguaztenean izango da, hilaren 16an, eta orduan ezagutuko dugu zehatzago teknikariak zer landu duen.

Udal arduradunekin izango dugun bileraren ondoren, Txirrinkakoek bilera irekia deituko dugu Udalak emandako informazioaren berri emateko.

Horren harira, txostenarekin aurrerapausoa eman dela uste dugu. Hori, behintzat, lortu dugu.

Hirugarren egubakoitzean eginen duzuen irteeraz gain, beste ekitaldirik egiteko asmorik baduzue?

"Gure kezka nagusia da bizikletendako eta oinezkoendako bide seguruak egotea"

"Ez dugu pentsatu egubakoitzetako irteerekin jarraituko dugun edo ez"

Oraingoz ez dugu ezer pentsatu. Iaz egin genuen Oñati eta Arrasate arteko irteera. Orduan izan genuen arrakasta ikusirik, agian, beste bat egingo dugu oporren ondoren, baina oraindik ezin dugu ezer aurreratu. Dena den, halako irteerak bidegorriak eskatzeko eta bidegorriak daudenean horien erabilera sustatzeko egin beharko lirateke.

Ze helbururekin sortu zen Txirrinka taldea?

Bizikletan ibiltzen ginen lagun koadrila bat elkartu ginen, bidegorrien inguruan hausnarketa egiteko. Bizikletan eta paseatzen ibiltzeko hainbeste aukera ematen dituen herrian bidegorriak falta zirela ikusi genuen, eta ekintza batzuk antolatzea erabaki genuen. Hala sortu zen Txirrinka taldea. Hasieran, besteak beste, sinadura bilketa egin genuen bidegorri sarea eskatzeko. Gure asmo nagusia da bizikletan eta oinez ibiltzen direnendako bide seguruak egotea.

Mugikortasunari buruzko foroa egin zenuten hainbat taldek.

Bai, taldea sortu eta berehala egin genuen foroa. Herriko talde ezberdinetako kideek parte hartu genuen, Txirrinka taldekoek, udal ordezkariak, ikastetxeetako eta ostalaritza arloko ordezkariak eta Pake Leku elkarte-ko kideak, besteak beste. Hainbat bilera egin genituen eta adostasun batzuk lortu genituen; baina adostasun haiek ez dira gauzatu. Ea, bada, teknikariak egin duen proiektu berriarekin zerbait lortzen dugun.

ASTELEHENKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Uztaileko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
20 euro abendura arte

DVD-a

EROSKI
zurekin



KAMISETA+POLTSA

skunkfunk



KAMISETA+ALPARGATAK+CD-ak

karrikiri
Tinkakoskalkoak eta gero



SARI NAGUSIA:

**HONDARRIBIKO ARTIZARRA
LANDETXEAN GAU BAT**



Artizarra nekazalturismoa
www.nekatur.net/artizarra
943 64 23 37 / 655 72 18 34

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@goiena.com

gure artekoak

HYUNDAI I-30 > Arrasateko Mendauto etxeak Hyundai autoak saltzen ditu. i-30 autoa orain dela ia urtebete merkaturatu zuten; orain arte, bi karrozeria ateratu dituzte, baina hirugarrena ere bidean dela esan dute.

Avelino Fernandez > Mendautoko komertziala

"Hiru urteko bermea dauka Hyundai etxeako autoak"

ARANTZAZU EZKIBEL > ARRASATE

Ia urtebete pasa da Hyundai etxeak i-30 autoa merkatura ateratu zutenetik. Avelino Fernandez Mendautoko saltzaileak esan du autoa guztiz berria dela; hau da, ez dela aurreko modelo baten moldaera. Hala, bai diseinua eta baita ezaugarriak ere kontuan hartu dituzte auto berria egiterakoan.

SEGURTASUNA

Avelino Fernandezek ustez, segurtasuna da Hyundai auto berriaren ezaugarri bereziena. "Autoaren oinarriko aukerak segurtasuna guztiz bermatzen du. Egonkortasun kontrola, trakzio kontrola, ABS eta lau gurpiletan disko-balazta ditu oinarriko aukerak", gaineratu du Fernandezek.

Bost eta sei martxako aldaketa kaxa dauka autoak. Aldaketa automatikoren aukera ere bada: "Gainera, beste etxe batzuek ez bezala, Hyundaik diesel motorean ere aldaketa automatikoa eskaintzen du".

MOTOR AUKERA

Sei motor aukera eskaintzen ditu Hyundai etxeak: hiru dieselzko motor eta beste hiru gasolinazkoak.

Oraingoz, bi karrozeria ateratu dituzte, baina beste karroze-



Avelino Fernandez, auto berriarekin.

ARANTZAZU EZKIBEL

Hyundai i-30 1.6 cc 122 ZP

Prezioa	19.000 euro
Luzera	4,24 metro
Zabalera	1,77 metro
Maletategia	340 litro ⁽¹⁾
Kontsumoa	6,2 litro /100 km ⁽²⁾
Abiadura	192 km/h ⁽³⁾
Otik 100era	11 seg.
CO2 isurketak	152 g/km

(1) Gehienezko edukiera
(2) Batez besteko kontsumoa, hiri barrukoa eta errepideko kontuan hartuta
(3) Gehienezko abiadura

ria bat ateratzeko asmoa ere badute: hiru atekoa.

HIRU URTEKO BERMEA

Beste etxe batzuek ez bezala, Hyundai etxeak hiru urteko bermea eskaintzen du i-30 autoan.

Gainera, merkaturatu dauden autoekin alderatuta, ekipamendu oso ona dauka i-30 autoak. "Aurreko bi eserleketan berogailua dauka, eta aurreko haizetako automatikoki desizoztu daiteke", dio Fernandezek.

Nori zuzenduta dagoen galde-tuta, Fernandezek dio adin tarte zabalari zuzendutako autoa dela.

etxeako leihotik



Goiatz Arana > garana@goiena.com

Saskibaloientzako ere behar adina diru ez

Arrasateko Ointxe Saskibalo Elkarteak uko egin behar izan dio EBA mailara igotzeari. Jokalari berriak hartzea eta bidaia luzeagoak egitea ekarriko luke horrek, beste batzuen artean, eta, horretarako, dirua behar. Hainbat ate jo dituzte, baina ez dute lortu babesle berririk, ezta instituzioetatik proiektu berria bultzatzeko interesik sumatu ere. Eta, hor, ondorioa: denboraldi bikain baten ondotik lortutako maila igoerari ezetz esan beharra.

Sahararen aldeko elkarteek ere lanak izan dituzte aurtengo udarako esku artean zituzten proiektuak aurrera ateratzeko: herrialde horretako haurrak etxean hartuko lituzketen familiak lortzea inoiz baino lan neketsuagoa izan da; eta, zehazki, gerra eta minen biktima diren familien seme-alabei uda Euskal Herrian elkarrekin igarotzeko aukera emateko behar adina diru batzeko, larrialdi deia egin behar izan zuten. Orain, berriz, porrot egin dute duela urtebete AEBetan abiatutako negoziatioek, eta horrek kolokan jartzen du irtenbide politikoa Saharan. Berriz ere gure laguntza beharko dute. Krisiak ez al digu, behintzat, halakorik egitea oztopatuko!

"Sahararen aldeko elkarteek ere larrialdi deia egin behar izan dute aurtengoa"

> **Ekonomia krisia dela-eta, Espainiako Gobernuak Pedro Solbes ministroak esan du okerrera iristear dagoela oraindik. 2008 amaieran eta 2009 hasieran izango ei dira momenturik txarrenak.**

> **Igoerak ez du etenik: limoia, eguzki-lore olioia eta irina dira urtebetean gehien garestitu diren elikagaiak. Gasolioa luxuzko produktua bihurtu da eta, orain, argindarraren garestitzea dator. Ai, ene!**

begi-bistan



Mundumirako kartelak (Bergara) 2008/07/01


Argazkia: Irati Agirreazaldegia.
Testua: Arantza Ezkibel.

Antzuolatik Bergarara bidean Mundumirako kartelak ikus daitezke bide ertzean. Ekain hasieran ospatu zen Munduko kulturaren festa Bergaran, baina oraindik kartelak kendu gabe daude.

Har ezazu parte:

Argazkia eta azalpentxoak bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

izen propioak



Xabier Arnaiz

TXIRRINDULARIA



Mari Sol Ramos

ATLETA



Jon Urtzelai

FUTBOLARIA

Ulma taldeko txirrindulari oñatiarrak Ezkio-Itsason jokaturako proba irabazi zuen. Talde-txotx batean ihes egin da ibili zen Arnaiz; baina azkeneko maldan gogor egin zuen aurrera eta helmugara bakarrik iristea lortu zuen, bigarrenari zazpi segundo aterata.

Gandian jokaturako Espainiako txapelketan lan bikaina egin zuen Ramos. Aloña Mendiko atletak urrezko domina eskuratu zuen 10.000 metroko lasterketan. Jokatu zituen beste bi probetan, hirugarren eta laugarren postuak eskuratu zituen.

Jon Urtzelaiak bi urterako sinatu du kontratua Eibarrekin. Gainera, kontratua beste urtebete luzatzeko aukera izango du datozen bi urteetan jokatu dituen partidu kopuruaren arabera. Atzelariak 31 urte ditu, eta bigarren aldian du Eibar taldean.

Immigrazioaren Euskal Behatokiko (Ikuspegia) zuzendari Xabier Aierdi Oñatin izan zen astelehenean, Oñatiko Nazioarteko Lege-soziologia Institutuak gonbidatuta. Migrazio prozesuen gaineko udako ikastaroetan parte hartu zuen unibertsitateko areto nagusian, 'Gaur egungo migrazioak: Eskema zaharrak errealitate berriendako?' izeneko hitzaldiarekin.

Xabier Aierdi > Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendaria

"Migrazio prozesuetan gizartea bera da gailu erregulatzailer izugarria"

MIRIAN BITERI > OÑATI

Gaur egungo migrazio prozesuez eta epe laburrerako aurreikuspezez berba egin digu ondorengo lerroetan Xabier Aierdik, Immigrazioaren Euskal Behatokiko zuzendariak.

Immigrazioaren errealitatea asko aldatu da azken urteotan. Epe laburrera joera hori mantentzeko daitekeela uste duzu?

Bai. Guk ez daukagu nekazari eremurik ezta eraikuntza munduan etxe handirik, eta horregatik, orain, Estatuko beste toki batzuekin alderatuta, jende gutxi dator gurera. Industriak garrantzi handia du hemen, eta etorkinendako gaitza da horretan sartzea, lanbide-prestakuntza eskatzen delako. Baina zona horietakoak hona etorriko dira apurka, segurtasun ekonomikoagatik, bereziki.

Nola aldatzen ari dira migrazio prozesuak?

Helmugak gero eta gehiago direla esango nuke, batetik; eta bestetik, fenomeno berri baten aurrean gaudela azpimarratuko nuke: emakumea da mugitzeko erabakia hartzen duena. Lehen, gizonezkoak etortzen ziren gune industrialak zeuden tokietara. Orain, baina, klaseertainak etxe barruko lanetarako jendea behar du.

Migrazioak badu mugarik?


Inork ez daki. Inork ez zuen uste hainbeste jende etor zitekeenik eta jende hori hemen geratuko zenik.

Horren harira, mugatu beharko litzatekeela uste duzu?

Ez nuke esango mugatu behar denik. Mugatu behar dena da gure gizarteak lana sortzeko duen gaitasuna. Inork ez daki hori. Nire ustez, baimena lortzeko eta hemen bizitzeko erraztasuna izan beharko lukete. Horrek emango luke joan-etorritako aukera gehiago eta modu horretan, migrazioa arautuko litzateke.

Gauzak behar bezala egiten ari dira? Alegia, erakundeek martxan jartzen dituzten politikak egokiak dira?

Bai, orokorrean, bai. Baina, lehen esan dudanez, berez arautzen den fenomenoaz hitz egiten ari gara. Ezin dugu pentsatu hori bakarrik erakundeen bidez arautzen dela, gizartea bera da gailu erregulatzailer izugarria. Era-



Ikuspegi behatokiko zuzendari Xabier Aierdi Oñatiko unibertsitatean izan zen astelehenean, migrazio prozesuari buruz hitz egiten.

MIRIAN BITERI

EUSKARA

"Etorkinen etorrerak euskararen gainean orain arte lo zeuden hainbat eztabaida berpiztea ekarriko du"

ETORKIN KOPURUA

"Guztira, 175.000 etorkin inguru daude, Nafarroa barne hartuta. Erroldatu barik dauden etorkinen kopurua oso eskasa da"

DEBAGOIENA

"Etorkinendako zaila da Debagoiena. Industrialak eta enpresek lanbide-prestakuntza handia eskatzen dute"

batean, horrek tristatu egiten gaitu. Baina, bestalde, mesede ere egiten dio. Etorkinen etorrerak euskararen gainean orain arte lo zeuden hainbat eztabaidaren berpiztea ekarriko du. Orain arte egindakoa ondo egin dugun edo ez aztertzeke aukera ematen du horrek.

Horren guztiorren aurrean, gizarteak zer egin behar du?

Normal hartu normala dena. Gizartean gauza kuriosoa eta polita gertatzen ari da: immigrazioa orokorrean txarra dela, baina etorkina banan-banan hartuta ona dela uste du. Neurgailu bikoitza du. Banan-banan hartzean, etorkinak onak direla dio; ez, baina, orokorrean hartuta. Gizarteak, orokorrean, nahiko ondo jokatzeko du.

Euskal Herrian zenbat etorkin egon daitezke?

Guztira, 175.000 etorkin inguru daude gaur egun, Nafarroa barne hartuta. Kontuan hartu behar

da etorkinei komeni zaiela erroldatuta egotea hasieratik osasun eta hezkuntza zerbitzuak jaso ahal izateko; eta handik urtebetera, zerbitzu sozialak eskatzeko eskubidea izateko. Beraz, erroldatu barik dauden etorkinen kopurua oso eskasa da; ez da %10 baino handiagoa izango.

Euskal Herriko beste toki batzuekin alderatuta, Debagoienak badu horren harira berezitasunik?

Etorkinendako zaila den eskualdea da Debagoiena. Oso industrialak eta enpresek lanbide-prestakuntza handia eskatzen dute. Ondorioz, bailaran lanpostu subsidiarioak topatzen dituzte bereziki etorkinek. Gipuzkoa eta Bizkaia oso toki zailak dira etorkinendako. Emakumeentzat badaude lanpostuak, etxe-lanekin lotuta daudenak; baina gizonezkoek ez dute erraztasunik lana topatzeko. Hego Amerikako emakume asko daude lanean Debagoienan.



zabalik

Maite Aristegi

San Martzial

Zeharo harrittuta etorri zan domeka gabian gure Santanderko bezerua. Eurokopa irabazi eta Bergarako kaletan ez zeula inungo ospakizunik! "Hau oindio ez don enterau Euskal Herrixan dauala", pentsau nabari nerekiko. Espainia beste gai askotan ere txapeldun badala esatia pentsau nabari (lan-istripu eta prekaridade tasa, etxebizitza garestienak, preso kopuru handiena eta azkarren igotzen ari dena, gastu sozial baxuena, Italiarekin batera korrupzioa eta azpi-ekonomian...) baina berandu zanez, hurrengo domekan San Martzial aldera joateko animau nabari. Han ikusiko zabala Herri txiki bat izatearen alaitasunaren mostra bat: giruan euskera doinua nabarmen, festetako euskal ohiturak eta jokamoldeak, gure kantak, dantzak, bertsoak... koadrilla bakoitzaren sokatira *selekzioaren* aurrean sortzen diren *hooligan*-ak, harremanak eta dibertsitatearen errespetua (inguruko naturaren aberastasunaren zein festan parte hartzen dabenei zor zaiena, nahiz eta beti egongo dan mozkor belarri-jalaren bat), gure janak, edanak... Baina, dana ez da laua, San Martzialek herri honek igotzeko daukan aldapetako bat ederki erakusten dau eta: auzolana, herri honen altxorra izan dana, berreskuratu biharra: lehen halako erromerixak eta mila gauza, auzolanaren emaitza, gaur gero eta nekezago boluntarixuak topatzia edozertarako; lehen auzo girua eta ingurua bizirik, baserritik bizitziak inguruak era natural batian zaintzia zekarren, gaur baserri-lana inork aintzakotzat be ez, baserriak txalet eder bihurtuta, baina ondorixuak? Gure janari subirautza akabo (jaten dogunaren %5 baino ez badogu bertan sortzen...), eta ingurua mantentzeko larri (gaurko zelaixak bihar sasitza?) Eta segiko nuke euskerarekin, e.a., baina tira, egiozue lekutxo bat gure santanderinoari eta ondo-ondo pasau, baina ez ahaztu ardixei-ta ez jakuela gustatzen plastiko, paper eta halakorik. Eskerrik asko gurekin akordatzegatik! Gora Martzialiko!

"Santanderko bezerua San Martzialera joateko animau nabari"

"Han ikusiko zaban Herri txiki bat izatearen alaitasuna: euskera, ohiturak..."

herritarrak galdezka

ARAMAIOKO JAIETARA JOATEKO AUTOBUSIK BAI? Arrasateko irakurle jaizale batek hauxe galdetu digu: "Aramaioko jaietara joateko autobusik bada? Eta Elgetako eta Antzuolako jaietara joateko egongo da zerbitzu berezirik?"

Berri txarrak gure irakurlearen dako; izan ere, Aramaiora joateko ez dago ez aparteko zerbitzurik, ez eta ohikorik ere: hitz batean esanda, aste bukaeran ez dago Arrasatetik Aramaiora autobusi. Aldiz, gaur, egubakoitza, edo astelehenean joan gura badu hango jaietara, horretarako aukera du Arriaga autobus enpresarekin, bere ohiko lineatan: 07:00etan, 12:00etan, 15:20an eta 18:30ean.

Elgetako jaietarako ere ez dago ezo hiko zerbitzurik. Bergararik, Pesaren autobusa doa haraino, eta hauek dira irteera orduak: 08:35ean, 13:45ean eta 18:05ean, astegunetan; 09:05ean eta 18:05ean, bihar, zapatua; eta 10:05ean, 17:35ean eta 20:35ean etzi, domeka.

Azkenik, Antzuolako jaiak uztail erdialdean izango dira, eta horietarako zerbitzu bereziak

ipiniko ditu Pesak: uztailaren 18tik (barikua) 20ra (domeka) arte autobusak irtengo dira egun osoan Bergararik, 06:45etik 20:15era arte, sarri.

Horrez gain, barikuan eta zapatuan, gaueko autobusa egongo da: Bergararik 22:30etik 05:30 edo 06:00ak arte irtengo da autobusa, egunaren arabera, eta Antzuolatik, 21:40 edo 22:40tik 05:40 edo 06:10ak arte, egunaren arabera hori ere.

Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaliguz galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoiokionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ZELAN JAKIN DEZAKET ISUNIK IPINI DIDATEN?


Irakurle batek bere kasua kontatu digu, eta galdera bat egin digu: "Joan den astean jaso nuen iaz ipini zidaten isun baten jakinarazpena. Ordura arte, ez nekien isun hori jarri zidatela. Pentsatzen dut jende askorigertatuko zaiola hori. Badago modurik isunen bat ipini diguten jakiteko?"

Bai, jakin daiteke. Izan ere, Herri-zaingo Sailak orain dela gutxi, ekainean bertan, jarri du martxan zirkulazio espedienteak Internet bidez kontsultatzeko zerbitzua. Hauxe da helbidea: www.trafikoa.net. Hor, gidariak azken hiru urteotako espedienteak ikusi ahal izango dituzte, bai abian daudenak, bai itxita daudenak, eta salaketan, egindako jakinarazpenen eta espedientearen egoera administratibo zein ekonomikoaren gaineko informazioa kontsultatu ahal izango da. Horretarako, Izenpe edo Ona txartela behar da.

Bestalde, norberak zenbat puntu dituen kontsultatzeko, beste webgune honetara jo behar da: www.dgt.es.

marrakiz

Unai Busturia



Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Leire Kortabarria **Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Alex Azkarate (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Ubane Madera, Iker Barandiaran, Mirari Altube, Mirian Biteri, Larratit Zeberio, Arribu Barruso, Jasone Zabala, Mireia Bikuña, Arantzu Ezkibel, Irati Agirreazaldeg, Oihana Elortza, Jokin Bereziartua, Nerea Menor **Oinarrizko disenua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Kepa Martelo, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Bereziar, Aintzane Muruamendiarrak **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Bereziar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.



OID erakundeak
ikuskatutako astekarria

LAGUNTZAILEAK



Eusko
Jaurilartza



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Bergarako
Udala



Oñatiko
Udala



Aretxabaleta
Udala



Eskoriatzako
Udala



Antzuolako
Udala



Aramaioko
Udala



Elgetako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

Irungo alardea ez dago normalizatua, baina bai, egongo da

Iban Arantzabal
goiena.net/blogak/arantzabal

Normal-normal joan dela esan dute hainbat hedabidek, tartean *El Correo Español*-ek:

** la vieja polémica entre los que abogan por «respetar las*

tradiciones» y los defensores de un desfile «igualitario» está más que enterrada.

** En esta ocasión, no sólo no se escucharon insultos contra sus integrantes, sino que pudieron contemplarse escenas insólitas hasta ahora, como ver conversando amigablemente a integrantes de ambos desfiles.*

Eta ez dakit ba... hobeto litzateke, baina... Ni aurreko egunean egon nintzen, entsegu egunean. Pozik ziren alarde publikoak egiten dutenak, mistokoak: "ia aurten ertzainek parte hartu gabe egiten dugun ibilbidea". Bai zera! asmoa zena ezinean geratu

zen, ze Kale Nagusitik behera udaltzainak bakarrik bazuden ere ertzainak agertu behar izan zuten: irainak, zaldiei gauzak botatzen, errealitatea ikusi gura ez eta beste alde batera begira bizkarra emanez...

Oraindik ere badago, bai, zer hobetu. Ikusiko dugu alarde bakarra oraindik. Denbora kontua dela konbentzitura nago, baina ez legoke txarto agintzen dutenek lan gehitxoago egitea alarde biak bata bestearen ondoan joaten hasteko eta alarde biak bat eginda amaitzeko tarte ertain batera.

plazara

Debagoiendarrak, oro har, asko ibiltzen dira autobideetan, are gehiago AP-1 egiten doazen neurrian. Aralar alderdiak aurkeztu

zuen autobideak modu sozialagoan ordaintzeko proposamen bat; Batzar Nagusiek baztertu egin dute, baina Rebeka Ubera Aralar-

ko batzarkideak esan du proposamenak autobideen eta bidesarien gaineko "eztabaida irekitzeko" balio duela.

Rebeka Ubera *

Gipuzkoan: autobidea eta peajeak

Mugikortasunaren gaia oso konplexua da eta, ondorioz, azterketa integrala behar du. Hala eta guztiz, guretzat, arazoaren gakoa ondokoa da: gaur egungo mugikortasun eredu jasangaitza dela. Ezin diogu arazo horri irtenbidea eman azpiegitura gehiago eraikiz. Irtenbideak diziplina anitzekoa eta zeharkakoa izan behar du, garraio publikoa eta hezkuntza barneratuz eta sendotuz, gure ohiturak aldatzeko.

Iraunkortasunaren mesedetan, autobideen finantziarioak eta mantenuak osotasunean ezin du izan aurrekontu publikoen kargu. Nahiz eta berau erabiltzera behartuta dauden gidariak ere ezin diren gehiegi zigortu, gaur egun gertatzen den bezala. Oreak bilatu beharra daukagu auto pribatua ez sustatzearen eta autobideetako erabiltzaileak gehiegi zigortzearen artean.

Premiazkoa da Gipuzkoako errepideetan dugun kolapso egoerari irtenbidea bilatzea. Egoera horri aurre egiteko orduan, kontuan izan beharreko gai bat egunero gure lurraldea zeharkatzen duten milaka kamioiena da. Batez ere, errepideen finantziarioan parte hartzen ez dutelako, esate baterako, N-1etik igarotzen direnekin gertatzen den bezala.

Merkantzien garraioa trenbide sarera bideratu behar dugu, baina aldaketa hori egiten den bitartean, errepideen finantziarioan parte hartu behar dute kamioiek. Kanon bat ezarri behar diegu kamioi atzeritarrei, gure lurraldea, pasoko lurraldea den aldetik, eguneko kilometro, tona edo dituzten ardatzen arabera.



MIKEL ARROIABE

Ezezko borobila gaur egungo peajeak edo eta etorkizunean planteatzen diren. Gaur egungo peajeak gipuzkoarren artean diskriminazioa sortzen dute eta gehiegizkoak dira. Peajeen politika ezin da negozio bilakatu.

Gogoratu behar dugu Gipuzkoako herri askotan autobidea hartzea behartuta daudela, ez dutelako beste alternatibarik, edo dutena ez delako batere egokia edo eta bideragarria lan egunetarako. Esaterako, Debagoieneko herriak multzo horretan sartuko lirake. Mugikortasuna gaur egun behar soziala bilakatu da. Eta horrek, gure ustez, garraio publikoaren aldeko apustua egitea eskatzen du.

"Aralarrek biñetetan oinarritutako planteamendua egin du, autobideen peajea errotik aldatzeko"

"Ibilgailu arinek biñeta soziala erabiltzeko aukera izango lukete; astunek, beherapenak egiteko aukera"

Aralarrek autobideen eta errepide azkarren tarifakazioaren aldeko apustua egiten du. Badi-ra herrialde batzuk, non tarifakazio sistema biñetaren bidez egin duten, Austria edo Suitza, esaterako. Esaterako, Austrian, biñeta bat erosi behar da autobideak erabiltzeko, eta hiru modalitate daude: urtekoa (2006an, 72,60), bi hilabetekoa (2006an, autoak 21,80 eta motorrak 10,90) eta 10 egunetako (2006an, autoak 7,60 eta motoak 4,30).

Eta hori izan da orain dela gutxi Aralarrek Batzar Nagusietan egin duen planteamenduaren oinarri. Foru Arau bat aurkeztu dugu, Gipuzkoako autobideen peajea errotik aldatzeko.

Laburbilduz, ibilgailuak bi multzotan sailkatu genituen: arinak eta astunak. Muga 3,5 tonakoa izango litzateke. Arinak sailkatutakoek Biñeta Soziala erabiltzeko aukera izango lukete. Astunek, aldiz, gaur eguneko sistemarekin jarraituko lukete, baina beherapenak egiteko atea irekiz gipuzkoar edo eta bertan lan erresidentzia dutenei.

Pentsatzen dugu biñeta sistemarekin asko sinplifikatuko litzatekeela ibilgailu arinen kobro kudeaketa, ez litzatekeela Gipuzkoako eskualde desberdinen arteko diskriminaziorik egingo, autobidea erabiltzera behartuak dauden erabiltzaileak ez litzazke gehiegi zigortuko eta errepideen mantenuan kantitate arrazoizko baten bidez parte hartuko lukete.

*Aralar alderdiko batzarkidea da Gipuzkoan.

zer deritzozu?

www.goiena.net

Ibarreko udako jaietan bazabiltza?

BAI	%50
EZ	%50

> ORAIN, ELGETARA

Bai horixe, ni ibiliko naiz! Arrasateko eta Eskoriatzako jaietan egon naiz eta Elgetara ere joango naiz, urruti samar egon arren. Alazne

> BAKARRIK BERGARAN

Ni Bergaran bizi naiz eta hemengo jaietan bakarrik irteten naiz, gehienbat familiarekin. Gazteagoa nintzenez bai ibiltzen nintzela herririk herri. Mariasun

> APROBETXATU

Ni normalian ibiltzen naiz inguruko jaietan; uda izanda eta oportretan egonda, aprobetxatu in bihar da! Hortaz, bestioak be animau! Igor

> LANEAN

Aurten lan egitea tokatuko zait eta ez dut uste parrandan ibiliko naizenik. Beharbada, zapaturen batean edo... Hala ere, ondo pasa jairik jai ibiliko zaretzen denok! Haizea

DATORREN ASTEKOA: Autobus nahikoa dago hondartzara joateko?

Eman zure iritzia www.goiena.net atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

- top

Euskara, hizkuntza arriskutsu hori

Leire Narbaiza
eibar.org/blogak/leire

Frantsesari ikaragarritzko kaltea egiten diogu, guregatik desagertu egingo da! Hala dio Frantziako akademiak parlamentuak Frantziako konstituzioan agertu behar zirela iragarri zuenean. Aipatze hutsak tsunamia eragingo omen du! (...)

Espainiako intelektuak gaztelaniaren defentsan azaldu dira, euskarak -kastua, asturiera eta aragoierarekin batera- gaztelania baztertzeko duelako. Gizajoak, koitaduak, euren hizkuntza ttikia koloso periferikoen artean janda! Ez dago eskubiderik, gero!

Hirurehun milioi hiztunekin, normala eraso izan dietela sentitzea. Gutxi izateak eta botere bakoak hori dauka, leku guztietan diskriminatzen dituzte, beti daude ahaztuta, errukigarriak! Itzelezko pena ematen didate, baztertuta, zokoratuta, euren hizkuntza debekatuta, ezin erabilia!

Gainera Euskal Herria kontzeptua ere ez dute konprentzen, nahasgarria dela oso (...). Hori da euren hizkuntza pobre horrek ezin dituelako goi mailako pentsamendu eta hausnarketa egin!

Inork ez dauka errurik, kulturarik eta pentsamendu garaturik ez badaukate. Hain dira primitiboak! Gainera, euskara bezalako hizkuntza handiaren eta nagusiaren aurrean normala kikilduta sentitzea, arriskuan sentitzea. Horregatik dihardugu gure hizkuntza txit printzipala beraiei irakasten, probetxuzko pertsonak izan daitezen!

koplak

Enaitz Alustiza

Martzialak, San

Alaitu naiz bat-batean konturatu naizenean San Martzialak direla uztailan, lehenengo igandean.

Mahaia, bidoi urdina, sagardoa, txakolina... plana urtero berdina da ta urtero da desberdina.

Bertso bikote berria, egin saio izugarria ta hodeietan marraztuko da Egileorren irria.

Herri kirolen afera ez da horren zaila, zera... nekezagoa da pasatzea txingetatik txingatzera.

"Bajadan" giro umela lehen gertatzen zen bezela Udalak dio, balkoitik ura lasai bota daitekeela.

Natura gure eredu, baserritarren sostengu. Gibela lasai zikindu baina mendia garbi mantendu.

Oinezkoendako sarbidea

Clara Elkorobarrutia

(Gorostizako bizilagunen izenean)
Arrasate

Otsailean, Gorostiza auzoko bizilagunak konturatu ginen Larragain kaletik Muxibarko garaeetara eraikitzen ari den sarbidea ibilgailuendako zela. Gu horren kontra gaude. Sarbide hori oinezkoendako soilik izan dadila eskatzen dugu arrazoi hauengatik:

1. Larragain kaleak, gaur egun, trafiko handia du. Ibilgailuendako sarbideak egoera okertuko luke, auzoaren kalterako.

2. Bai Arrasateko Mugikor-tasan Iraunkorrek Planak, baita oinarriko zentsuak ere, esaten digu Arrasateko arazorik larrienetakoa trafikoa dela. Horregatik, alternatiba iraunkorrek bultzatu behar dira. Larragain kalean egin gura dena trafikoa gehitzea da. Hau al da alternatiba iraunkorra?

3. Muxibar eta Larragain artean dauden traba arkitektonikoak gainditzea beharrezkoa da. Gure ustetan, konponbide egokiena oinezkoen sarbide mekanizatua litzateke (oinezkoendako soilik).

Oso garrantzitsu eta beharrezkotzat jotzen dugu ondorengo jakinaraztea: aurreko udalbatzak Muxibarko garajeen proiektua onartu zuela baldintza batekin: igogailu publikoa egitea, Bizkaia etorbideetik Larragain eta Etxeazpia kaleetaraino. Bertan ez zen ezer aipatzen Larragain kaletik ibilgailuendako sarbideari buruz (informazio hau udaletxeak 2005eko otsailean kaleratutako aldizkarian argitaratu zen).

Hau da, martxora arte, auzoan jaso dugun informazio bakarra. Halaber, jatorrizko proiektuak aldaketak izan zituen, auzoari jakinarazi ez zitzaizkiolarik. Dena ezkutuan egin zen. Eta gaur egun sarbidea eginda dago. Jokabide honetan, non dago informazioa zabaltzea eta herritarren parte-hartzea?

Egoera honen aurrean, Gorostizako bizilagunok hiru egunetan eta Larragain eta Etxeazpia kaleetan, 229 sinadura jaso genituen. Ondoren, auzoko asanblada bat egin genuen. 90 lagun bertaratu ginen eta, aho batez, erabaki genuen Larragain kaletik Muxibarko garaeetarako sarbidea oinezkoendako soilik izan dadila. Eta Muxibartik Larragainera joateko oinezkoendako sarbide mekanizatua eskatzea, 2005ean aurreko udalbatzak publikoki agindu zuen bezala.

Otsailetik hona hainbat bilera egin ditugu udaletxean, arazo honi irtenbidea emateko. Gure proposamenei erantzuna emango dietela agindu digute.

Kondena ez da dena

Ibai Redondo Beitia
Bergara

Iñaki Arriola bergararrak, ekainaren 20ko GOIENKARIAN, ETAREN biolentziaren aurrean euskaldunak sutu eta beronen kondenaren aldeko herri altxamendua proposatzen zuen Euska Herrian bakea izan dezagun. Biolentzia kondenatzen ez duten erakunde ofizialak aipatzen ditu (gurean zenbait udaletxe pentsatu beharko genuke?), ETAREN

biolentzia emakumeak bortxatzen dituzten gizonen biolentziarekin konparatuz.

Artikulugilearekin, gauza batean kointziditzen dut, Euskal Herrian bakea behar dugun ideiarekin. Hala ere, bakea lortzeko, gatazkaren ondorio gordinetara baino gehiago, gatazkaren iturburuetara jo behar dugu. Zerk eragiten du gatazka Euskal Herrian? Eskubideen zapalaketak: etorkizuna erabakitze eskubidea, gure selekzio izateko eskubidea, euskaraz bizitzeko eskubidea, ikastetxetan nahi ditugun edukiak ikasteko/irakasteko eskubidea, udaletan ikurrina soilik izateko eskubidea... Eskubideen aldeko herri altxamenduak ekarriko du gatazkaren konponbidea, justiziak eta demokraziak alegia.

Kondenak. Gure ingurune hurbilean, Bergaran kondenatu ugari ezagutzen ditugu, horietako asko azken urtean izan dira kondenatuak: kondenatuak alderdi politikoko bateko zuzendaritzako kide izatearren; kondenak bete eta berriz kondenatu dituztenak; hil arte kartzelan edo erbeste-an bizitzera kondenatuak; komunikabide abertzaleak sortzearren kondenatuak; kondenatuak nazio eraikuntzan aritzearren; kondenatuak errepresioa (sakabanaketa, tortura, hilketak) salatzearren; etab.

Herria, berriz, ixilik eta belauniko bizitzera kondenatu nahi dute kondenatzaileetako askok. Nik, behintzat, politika egiteko baldintza demokratikorik ezean, ez ditut kondenatuko borrokara kondenatu dituzten herritarrek. Askoz eraginkorragoa iruditzen zait borrokara kondenatu dituzten arrazoiak desagertzeko lan egitea.

Berriro leherketekin

Itziar Lamarain

(Zinegotzia Arrasateko Udalean)
Arrasate

Aurreko agintaldian, eta ez dakit zenbat hitzarmen sinatu osten, uste genuen, benetan, San Josepe harrobiaren azkenetan geundela. Baina badirudi sinatzen diren hitzarmenak hutsaren hurrengo direla; izan ere, harrobiak jarraitu, eta jarraitu, eta jarraitu egiten du.

Azken hitzarmena sinatu zenerako, argi geratu zen harrobiak aterata zeukala baimendutakoa baino harri gehiago. Hau da: bere negozioa hazi egin zuela. Saiatu ziren harria ateratzen 1 Bankua deitzen den horretatik, baina aurreko agintaldiko udalbatzako kideok ez genuen oniritzirik eman eta hala geratu zen jasota sinatu genuen hitzarmenean.

Bada, oso ondo. Agintaldi aldaketa; Udaleko agintarien aldaketa, eta berriro ere heltzen diegu leherketei.

1 Bankua erabat lau uztearen argumentuarekin, eta betiere Udalak dirua *aurreztuko* duela pentsatuz, harri gehiago ateratzeko baimena eskatu dute. Udalarendako aurrezpena edo negozioa harrobiaren jabeandako? Jakina. Esaten digute harri gehiago atereaz, hau da, leherketa gehiago eginez, etorkizunean egin beharrekorako espazio gehiago geratuko dela eta Udalarik ez zaiola ezer kostatuko.

Eta zela dakigu hori?

Oraingo, ideia lehiaketa ireki du Udalak, espezialistek aurkez dituzten proiektu ezberdinak oraingo harrobiak utziko duen lekua betetzeko. Arrasatearrek bultzatutako

proiektua eta Udalak eta beste erakunde publiko zein pribatuk gogoz babestutako ekimena da hori.

Ez dakigu espezialista horiek etorkizuneko espazio horretarako proiektatutako dutena. 1 Bankua dagoenetan nahiko dute? Aldatua? Ez dakigu. Dakiguna da harrobia kudeatzen duen enpresak baimena eskatu duela berriro leherketak egiteko, hau da, negozioa handitzeko, aurreko agintaldian sinatutako hitzarmenaren espiritua hautsiz.

Baina zeinek ordainduko ditu ondorioak? Berriro ere Arrasateko bizilagunok. Leherketekin amaitu genuela uste genuenok. Badirudi azken orduan oraingo Udal gobernuak iritzi aldatu ezean, leherketak sufritzen jarraituko dugula herritarrok.

Nik uste nuen gobernuan dagoen talde honek ez zuela aurrekoaren jarraitzaile izan nahi eta arrasatearren interesen alde egiten zuela. Benetan? Badirudi erratuta nengoela.

Espainiartasuna

Miren Lasagabaster
Arrasate

Nazionalistak besteak dira; gurea da patriotismo konstituzionala; ez, gu ez gara nazionalistak, munduko hiritarrek gara gu; nazionalista baztertzaleak besteak dira, Katalunia, Galizia eta Euskadikoak... Halakoak entzun behar izaten ditugu sarri. Bada, agerian geratu da, zalantzarik bagenuen, milaka ikus-entzuleren aurrean, nazionalismo espainiarra badela; askotan modu bortitz, zakar eta itsusian agertzen dela, eta monopolizatzaile, uniformizatzaile eta dominatzailea dela.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Barrenkalea 33
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 05



Faxa:
943 25 05 12




Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

Elgeta eta Aramaioko jaiak 2008 GOITB-n

SAIO BEREZIAK

Eguaztenean, uztailak 9an, 21:47ean
Eguenean, uztailak 10an, 14:15ean
Egubakoitzean, uztailak 11an, 18:15ean

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!



Kutxa Inbertsio-Irtenbideak



Eusko Jaurlaritzak baimendutako publizitatea, 080209 espediente zk.-duna.

Kutxan telekomunikazioetako inbertsioa beti gorantz doa.

Telekos gordailu berria. Igo zaitez.

Inberti ezazu telekomunikazioen sektoreko Europako 3 enpresa garrantzitsuetan (Telefónica, France Telecom eta Deutsche Telekom). Inbertsioak **zure kapitalaren %100 bermatu eta %2,5eko gutxieneko errentagarritasun segurua** (%1,660ko UTB) eskainiko dizu. Ez itxaron gehiago eta kontrata ezazu abuztuaren 8a baino lehen. Zure inbertsioa **%12raino igo daiteke** (%7,848ko UTB).

zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 kutxa

beherapenak

Dena, askoz merkeago
Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra



www.el-boulevard.com

Argi eta garbi



MILAR
ELKORO



Udara



LCD 32"

Ambilight

TV LCD 32" PHILIPS
32FPL 7613

Erresoluzioa: 1.366 x 768 p
Kontrastea: 30.000:1
Disdira: 500 cd/m2
USB lotura



999€

ORDAINDU 11 HILABETETAN
INTERESIK GABE*

5.800 Btu



AIRE EGOKITU ERAMANGARRIA
BALAY 3XM 400B

Deseadura: 31 litro/eguneko
Soinu maila: 46 dB(A)
Errefrigerazioa: 2 potentzia maila
Aireztapena: 2 potentzia maila



269€



10 Megapixel

LCD pantaila 2,5"

ARGAZKI KAMERA DIGITALA
PANASONIC DMC FX35

Zoom optikoa 4x /digital 4x
Irudi finkatzaile optikoa
Barne memoria 50 Mb.
Objetibo angeluzabala
Leica optikarekin



329€

*Eskaintza baliagarria hilabete bukaera arte. Lehenengo kuotarekin 10€ ko gastu igorria.

MILAR
ELKORO

Milar Elkoro Olarte 1 ARRASATE Tel.: 943 79 18 86

Herriak

Arrasate > 18-19 Bergara > 24-25 Aretxabaleta > 31-32 Oñati > 33
Eskoriatza > 34-35 Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> **ARETXABALETA**
Denetariko kultura ekintzak, Arkupe zabaldu dutela ospatzeko > 31



> **ESKORIATZA**
San Pedro jaiak "jendetsuak" izan direla uste du Kultura sailak > 35



> **ELGETA**
Uriburuko etxebizitzak hartzeko baimena eman dute > 37



> **LEINTZ GATZAGA**
Dorletako Ama lasterketan 100 lagun ibiliko dira etzi, domeka > 38

ARRASATE > PEDRO BITERI

Hil zeneko 100. urteurrena bete da, eta Arrasatek ez du Pedro Biteri ahazten

IKERKETA BEKA

Beka deialdia egingo da, Biteriren bizitzatik ezagutzen ez diren alorrak aztertzeko

DOHAINTZAK

Arrasateri eman zizkion Garibai etxea, azoka estalia eta eskolako lorategiak

NEREA MENOR > ARRASATE

Giza genero osoa maite duen pertsona bezala deskribatzen du hiztegiak filantropoa; bere aktibitate edo dirua besteren mesedetan erabiltzen duena, alegia. Eta filantropo bezala deskribatu dute urtetan zehar Pedro Biteri (Arrasate, 1833ko uztailearen 18a-Biarritz, 1908ko maiatzaren 21a), Arrasaten eta Arrasatetik kanpo, bere ondarea hezkuntza sustatzeko eta eskolak sortzeko erabili zuen-eta.

Haren heriotzaren 100. urteurrena bete den urte honetan, Arrasateko Udalak Biterik hezkuntzara egindako ekarpenak ezagutarazi nahi ditu; eta horretarako, Haur eta Lehen Hezkuntzako umeei haren irudia omentzeko egindako pergaminoa banatu die: Biteriren biografia azaltzeaz gain, bere eskolako maisu-maistren aipamen bat ere egiten du. Hori gutxi balitz, datorren astelehenean beka deialdi bat egingo da. Ikerketa beka izango da eta Biteriren bizitzatik ezagutzen ez diren alorrak aztertzeko helburua du.

1911n, Arrasateko herriak gaur egun Grupo San Juan etxaldeko plaza den lekuan jarri zion monumentua izan zen Pedro Biteriri egin zitzaion lehen omenaldia; ordutik hona urteak pasa dira eta gaur egun Biteri etorbideak daruma haren izena, eta baita alboko plazak ere. Mondragon Unibertsitateko ikasle egoitzak ere Biteri Ikastetxe Nagusia du izena.

1833ko uztailearen 18an jaio zen Pedro Biteri Arana, Arrasateko Iturriotz kalean. Haren anaia jaio eta gutxira, negozioak zirela medio, familia Baionara joan zen eta, gero, Ingalaterrara; 60 urte pasa arte ez zen Arrasatera itzuli. Europan zehar ibili arren, herrizaletasuna Arrasaten eta Gipuzkoan izan zituen beti. Anaia hil ostean, aberastasun handi samar baten oinordeko unibertsal bihurtu zen. Hurbileko ahaiderik ez zuenez, aberastasunen zati handi bat irakaskuntzarako eskolak kudeatuko zituzten fundazioak sortzera zuzendu zuen.

HEZKUNTZA ZENTROAK

1893an Arrasate bisitatu zuen, lehen irakaskuntzako eskolak sortzeko plan handi batekin. Hezkuntza zentroak sortu nahi zituen Gipuzkoa osoan: eskola horietako lehena Arrasaten sortu zuen, 1902an, eta fundazio bat sustatu zuen 200.000 pezetako diru kopuruarekin. Urteko 2.000 pezetako soldata bana izendatzen zien ikastetxe horretan irakasten zuten hiru maisu-maistrei. Arrasateko herriari eman zizkion Garibai etxea; azoka estalia, gaur egun desagertua; pilotalekua Zaldibarrren; eskolen inguruan zenbait lorategi eta leku librea. Aurretik aipatutako irakasleetako bi izan ziren Felix Arano eta Teresa Gartzia, haren emaztea. 1929. urtera arte jardun zuten Biteri eskoletan.

Aranok irakasten erabiltzen zituen metodoek berriro egin zuten hezkuntza arloa eta Burgosen *maisuen maisu* izendatu zuten. Arrasateko Udalak Erdiko kaleari Felix Arano izena jarzea erabaki zuen aho batez 1925ean, baina geroago frankismoak kendu egin zuen. Eskolen sorreratik ikasleen sari banaketak prestatzen ziren, baina 1936an, frankismoa indarrez sartu zenean Arrasaten, Biteri eskolak itxi eta bertan behera gelditu ziren sari emateak. Gerra ostean, Udalak hartu zuen bere gain Biteri eskolen esperientzia eta aurrekontuetan kontu-sail bat egokitu zuen, herriko ikasleei ikasturte amaierako sariak emateko. Harrezkero, Udalak ohiturara hori mantendu du.



ERRETRATOA Arrasateko Udalak Pedro Biteriren omenez argitaratutako liburuaren azala.

JUAN MANUEL BERRUETA

zerbitzuak

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE

Zapatua, 5	Azkoaga	Ferrerias, 1	943 79 15 15
Domeka, 6	Azkoaga	Iturriotz, 17	943 79 79 99
Astelehena, 7	Fdz. Corcuera	Maisu Aranbarri, 1	943 79 22 26
Martitzena, 8	Irizar	Ergin, 11	943 79 12 39
Eguaztena, 9	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguena, 10	Español	Araba, 4	943 79 18 65
Egubakoitza, 11	Ruiz	Nafarroa, 1	943 79 14 09

BERGARA

Zapatua, 5	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Domeka, 6	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87
Astelehena, 7	Guallar	San Antonio, 5	943 76 11 05
Martitzena, 8	Estella	Matxiategi, 5	943 76 19 63
Eguaztena, 9	Alvarez-Mozos	Iparragirre, 2	943 76 12 15
Eguena, 10	Urritikoetxea	Oxirondo, 4	943 76 11 74
Egubakoitza, 11	Zabala	Barrenkale, 25	943 76 16 87

OÑATI

Zapatua, 5	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Domeka, 6	Garate	Kale Barria, 42	943 78 05 58
Astelehena, 7	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Martitzena, 8	Juldain	Kale Barria, 6	943 78 11 28
Eguaztena, 9	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Eguena, 10	Anduaga	San Lorentzo, 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 11	Barrenetxea	Kale Zaharra, 1	943 78 01 22

ARETXABALETAKO

Zapatua, 5	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 6	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Astelehena, 7	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Martitzena, 8	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguaztena, 9	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Eguena, 10	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43
Egubakoitza, 11	Anitua	Belorrieta, 1	943 08 11 43

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2008ko egutegia. Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

TELEFONO JAKINGARRIAK

((112))
SOS DEIAK

OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhiltzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramaio.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 30
Udaltzaingoa	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

GARRAIOAK

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramaio.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 79 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

DEBAGOIENA

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltzaria (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerga Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 36 67
Kiroldegia	
Aramaio.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramaio.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramaio.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 77 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

URBANOAK

ARRASATE

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Aleco, Urbarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obreiro, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Aleco, Urbarri, Erguin A eta Gorostiza.

BERGARA

San Lorentzo/San Juandik irteerak
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:40, 11:40, 12:40, 13:40, 14:40, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geraletuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soralluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegi), Zuradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta/Olabarretetik irteerak
07:20, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geraletuak: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoioia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubietta, Mugertzta, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ARAMAIOKO AUTOBUSA

Arrasate	Aramaio	Gasteiz
07:00	07:15	08:00
10:00	10:15**	
11:00	11:15	
12:00	12:15**	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30	18:45**	19:30
19:00	19:15	
21:10	21:25**	
Gasteiz	Aramaio	Arrasate
08:30	09:00	08:05
	10:15	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:45	14:10
16:20	17:00	17:20
	17:35	17:50
	19:15	19:30
19:30	20:10	20:25

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoeta-koendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 5

Zerua hodeitsu egongo da, tarteka oso hodeitsu. Euri arinertaina egingo du egunaren bigarren partean. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da.




Domeka, 6

Tenperaturak berdin jarraituko duen arren, domekan hobetze aldera egingo du. Egunean zehar ostarteak sortuko dira.

EUSKAL HERRIAN

Zerua estali samar agertuko da zapatua eta euria egingo du, Bizkaia eta Gipuzkoan bereziki. Ipar-mendebaldeko haizea ibiliko da, indar handigoz kostaldean eta mendi inguruetan. Domekan, lainotuta jarraitu arren, tarteka ostarteak sortuko dira lurralde osoan zehar.



TENPERATURAK

MINIMOA
Domeka, 29 **14 °C**

MAXIMOA
Martitzena, 1 **28 °C**

ASTEKO
EURIA (l/m²) **2,1 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 25	24 °C	15 °C	- l/m²
Eguena, 26	21 °C	15 °C	2,1 l/m²
Egubakoitza, 27	24 °C	15 °C	- l/m²
Zapatua, 28	24 °C	14 °C	- l/m²
Domeka, 29	19 °C	14 °C	- l/m²
Astelehena, 30	24 °C	17 °C	- l/m²
Martitzena, 1	28 °C	16 °C	- l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

ILARGIA UZTAILEAN

Ilberri 3	Ilgora 10	Ilbete 18	Ilbehera 25

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Udal Euskaltegian matrikula egiteko

Udal Euskaltegiaren udako ikastaroetako matrikulazio epea zabalik dago. EGA agiria atera, euskara sakondu, euskalkia hobeto ezagutu... gura duenak horretarako aukera du. Argibideak: 943 79 70 77.

BERGARA

> Musika eskolako zerrendak ikusgai

Musika eskolak datorren ikasturterako Hizkuntza Musikaleko eta Ahots Teknikaleko ikasleen zerrendak eta ordutegiak jendarean ipini ditu. Eskolako sarrerako iragarri taulan ikusi ahal izango dira 09:00etatik 13:00etara.

BERGARA

> Gazte Informazio Gunearen ordutegia

Gazte Informazio Guneak honako ordutegia du uztailaren 11:00etatik 14:30era eta 15:30etik 19:00etara. Abuztuan itxita egongo da. Errotalde jauregian dago gune hori.

ARETXABALETAKO

> Yoga ikastaroa eman-gu du Aredhanak

Aredhana yoga eta psikoterapia eskolak yoga ikastaroa eman-gu du uztailaren martitzen eta eguenean, 20:00etan. Hasiberriendako ere egokia da. Argibideak, 616 96 57 95 telefonoan.

BERGARA

> Txalaparta ikastaroa egongo da uztailaren

Jardun euskara elkarteak txalaparta ikastaroa antolatu du uztailaren lehengo bi asteetarako, martitzen eta eguenearako. Arri-zuriagan izango da, 19:00etatik 21:00etara. Argibideak: 943 76 36 61.

ANTZUOLA

> Elkartasun afarirako izena eman daiteke

Elkartasun jaia antolatu du Anelkarrak hilaren 12rako, eta afaria eta guatekea egongo dira. Izena emateko epea zabalik dago hilaren 9a arte, honako dendetan: Nerea drogeria, Itzar liburu-denda eta Gorosti eta Ongi Etorri tabernak.

ARETXABALETAKO

> Kantabriara irteera antolatu du Basotxok

Kantabriara joan-gu dira Basotxoko erretiratuak uztailaren 15ean. Izena emateko

aukera dago uztailaren 8an eta 9an, euren egoitzan. 30 euro ordaindu behar da.

BERGARA

> Gaztetxoendako udako ekintza bereziak

Udalak antolatutako honako ekintzetan parte hartzeko izena eman daiteke oraindik: Arcachongo aquaparkera irteera (uztailaren 9an bukatzen da epea) eta Urdaibain kanoa zeharkaldia (uztailaren 23an bukatzen da izenematea). Biok 12 eta 18 urte artekoendako dira; 20 euro ordaindu behar da, eta 50 lagunendako lekua dago; zozketa bidez emango dituzte lekuok. Argibideak: 943 77 91 00.

ARETXABALETAKO

> UDAK batzar orokorra egingo du gaur

Aretxabaleta Kirol Elkarteak batzar orokorra egingo du gaur, egubakoitza, Arkupe kultura etxeko Zaria

aretoan, 18:00etan. Hau da gai zerrenda: aurreko bilerako akta onartzea; 2007-08 denboraldiaren berri ematea; 2007-08ko diru kontuen berri ematea; 2008-09 denboraldia aurkeztea; 2008-09ko diru kontuak onartzea; *Oso-osoko jokalaria* delako sariaren banaketa; eta eskaerak eta galderak.

ARETXABALETAKO

> Gazteendako batuka eta eskujoko ikastaroak

13 urtetik gorakoendako batuka ikastaroa antolatu du Udalak, uztailaren 8, 15 eta 22rako, 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko azken eguna hilaren 8a da, Arkupeko harreran. Bestetik, eskujoko ikastaroa ere antolatu du, hilaren 16, 17 eta 21erako, 18:00etatik 20:00etara. Eta horretarako izenematea epea hilaren 16an bukatzen da.

ARRASATE

> Mediterraneoan itsas-bidaia ordaintzeko

Abaroa erretiratuena elkarteak jakinarazten du irailaren 15etik 22ra Mediterraneoan egingo duten itsas-bidaian lekua erreserbatu duten bazkide guztiak bidaia osoa ordaindu behar dutela uztailaren 30a baino lehen. Horretarako, euren egoitzara joan behar dute, eta pasaporte eta Nortasun Agiri eguneratua erakutsi.

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

kale inkesta

Egon zara Aretxabaletako kultura etxe berrian?



Marian Maqueda
Langilea
Aretxabaleta



Meritxell Serrato
Langilea
Aretxabaleta



Iker Beristain
Langilea
Aretxabaleta



Emi Sanchez
Langilea
Aretxabaleta



Aitor Mendizabal
Langilea
Aretxabaleta

Oraindik ez naiz egon. Antzerkiak eta musika taldeak ekarriko nituzke hara. Dagoen aretoa txiki-kegia da, eta gauza asko daude leku berean, hala nola, musika eskola eta liburutegia.

Ikusi dut eta ondo dagoela iruditzen zait, nahiz eta dagoen aretoa txikia iruditzen zaidan. Gazteendako beste zerbaitekar-tzea gustatuko litzaidake. Liburutegia asko gutatu zait.

Oraindik ez naiz egon. Elgetako Espaloia antzokian egiten dituzten moduko ekintzak igartzten ditut faltan. Denbora pixka bat utzi behar da pasatzen, nahikoa edo txikia den esateko.

Oraindik ez naiz egon. Hala eta guztiz ere, eskatuko nuke, beste leku batzuetan egiten den moduan, liburutegira umeendako ipuin kontalariak ekartzea. Aretoa txiki geldi daiteke.

Oraindik ez naiz egon. Gazteendako ekintzak ekarri eta ipintzea eskatuko nuke: zinema, kontzertuak... Gaztelekua badago, baina ez gure adinako gazteendako. Aretoa, bestalde, txikia da.

txistuak



JASONE ZABALA

Bergarako azokan, olio poteak



Bergarako irakurle baten kexa jaso dugu aste honetan. Kontua da, hamabostean behin, erabilitako olio batzeko Puntu Berde Mugikorra etortzen dela azoka ondora. Batzuetan, baina, huts egin eta ez da etortzen, eta azokako eraikinaren ondoan pilatzen dira olio betetako poteak. Askotan, denak lurtean botata agertzen dira.

asteko datua

178

Horixe da aurtan Bergarako San Martzialeko erromeriarako alokatu den mahai kopurua; pasa den urtean baino bi gehiago. Alokaturako aulkiak, berriz, 1.453 izango dira. Giro bikaina espero da, urtero bezala, uztailko lehen domeka guztietan ospatzen den erromeria horretan.

ustek uste

Iker Barandiaran

Gauzak bereizten jakitea

Martxoan Arrasaten gertatutakoa gogorra izan zen, oso. Herritar bat erailteza izugarria da, eta are eta zailagoa da hori justifikatu gura izatea.

Hala ere, nahiz eta askok onartu gura ez izan, halako gertaera latzak batzuen intereserako erabili izan ohi dituzte. Zer esanik ez, ezker abertzaleko alderdiei ahalik eta kalte handiena egiteko. Horixe bera planifikatu zuten hainbat alderdik, eta lehenik eta behin Arrasate hartu zuten jomuga. Hainbat udal ordezkariaren indarra batuta lortu ez zutena, Garzonek egin zuen laino guztien azpitik eta lege guztien gainetik, askotan egin ohi duen moduan.

Zorionez eta nahiz eta komunikabide gehienak eta haize korranteak kontra dituzten, Arrasateko herritarrek jakin dute egoera berezi horren aurrean aurpegia altxatzen eta gertaerak banan-banan ulertzen eta bereizten. Ino kartzelaratzek ez dauka inolako justifikaziorik, ez hankarik ez bururik.

Hala, Ino Udaletxera ekimena sortu dute. Horren bultzatzaileek eta babesa eman diotenen erakutsi dute Arrasateko herria ez dagoela batzuek gurako luketen moduan *kutsatuta*. Kolore askotako herritarrek egin dute bat eskaerarekin.

5 galdera...

Joseba Lamariano

Ogizun okindegikoa
Bergara

1. Uda izozki garaia izaten da. Zein motatako izozkiak saltzen dituzue?

Udan, gehienbat, freskoak diren izozkiak saltzen ditugu: limoizkoa, jogurtzkoa, banillazkoa, kafe zaporekoa eta hur zaporekoa. Baita klasikoagoak direnak ere: marrubizkoa, adibidez. Garai honetan gehienbat oso gozoak ez direnak saltzen dira, garratzagoak.

2. Orain udan gaude, baina uda da izozkiak jateko garai aproposena?

Europar, eta zehazkiago Alemanian, urte guztian jaten dituzte izozkiak. Gezurra badirudi ere, uda bero handien egiten duenean, ez da izozki gehien jaten den garaia; garagardoa eta freskagarriak edaten dira. Lehen, uda izaten zen izozkiak jateko garaia, baina gaur egun aukera dago urtean zehar ere jateko.

3. Nortzuek erosten dituzte izozki gehiago, neska-mutilek, emakumeek ala gizonek?

Kukurutxoa daramaten izozkiak neska-mutil gazteek erosten dituzte; poteetan doazen izozkiak, berriz, nagusiagoak. Emakumeak izaten dira erostera gehien etortzen direnak, gizonak baino gehiago.

4. Arropa kontuan, modak egoten dira. Izozkien munduan ere, badaude modak?

Badaude urtero ateratzen diren zapore berriak; baina horietaz, denbora pasa ahala, jendea ahaztu egiten da. Modatik pasatzen ez diren zaporeak dira jendeak gehien erosten dituenak. Jendeari kosta egiten zaio gauza berriak probatzea.

5. Eskatzeko orduan, zein da jendearen ohitura: kukurutxodun izozkia ala poteetakoa?

Udan beti erosten du jendeak kukurutxoa. Urtean zehar ere izozkiak jaten direnez, uda ez den garaietan potetxoetakoak erosten ditu jendeak. Kukurutxoa erosteko ohiturak martxotik hasi eta urrira arte irauten du.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gazta taldea lanean, Leze Txikiko guneetako batean, oraingo eguaztenean.

GOIENKARIA

ARKEOLOGIA > LEZE TXIKIKO AZTARNATEGIA

Leze Txikin dihardute arkeologian aditu direnak

Astelehenean iritsi ziren eta uztailaren 19ra arte jardungo dute indusketa lanak egiten; Euskal Herriko, Espainiako eta nazioarteko adituak etorri dira

UBANE MADERA > ARRASATE

Astelehenez geroztik gurean da Leze Txikiko aztarnategian indusketa lanak egiten jardungo duen aditu eta ikasle taldea, 18 lagunekoa. Uztailaren 19ra arte ibiliko dira Garagartza inguruan. Alvaro Arrizabalaga Aranzadiko arkeologoak eta EHUko irakasleak emandako azalpenen arabera, "Indiatik etorri da kide bat, Ameriketako Estatu Batuetatik beste bat eta, ohikoa den moduan, Espainiako beste unibertsitate batzuetatik ere etorri dira". Horrek erakusten du, duda barik, Leze Txikiko aztarnategiak duen garrantzia.

AURTENGO LANA

Aurtengo lanari dagokionez, Aranzadiko arkeologoak kontatu du bi lekutan dabilzala lane-

an eta horretan segituko dutela, hango "haitzarekin jo arte". Bestalde, adierazi du dagoeneko iritsi direla Aita Barandiaranek zultatu ez zuen punturaino, "antzutzat zuelako", eta dio aztarnak ateratzen segitzen duten bitartean euren ere "jarraituko" dutela lanean. Datoren bat ipintzearen, "aurten eta datorren urtean" izango direla aurreikusita dute, baina gaineratu du "denetik gerta" daitekeela. Izan ere, arkeologo oñatiarrak azpimarratu gura izan du lan ugari dagoela oraindik Leze Txikin egiteko: "Bertako harria topatzen dugunean, utzi-ko dugu, baina behin-behinekoz; izan ere, aztarnategiak berak ematen du informazio ugari eta oraindik gelditzen da aztarnategiaren zatirik handiena aztertzeke".

AURKIKUNTZAK, GORDETA

Leze Txikiko aurkikuntzei dagokionez, berriz, haien garrantzia azpimarratu du Alvaro Arrizabalagak: "Oso gutxi dakigu, batez ere, Historiaurreko fase zaharren inguruan. Euskal Herrian bi lekutan bakarrik dauzkagu Euskal Herriko historiaurreak dituen sei zatietatik lehenengo bostak eza-gutzeko aztarnategiak: Leze Txikin eta Irikaitzen (Zestoa).

Arrasateko aurkikuntzak nonbait ikusteko aukeraren gainean, berriz, Arrizabalagak azaldu du oraingoz ezinezkoa dela; Jaurilaritzaren esku daude aztarnak, industrialde batean gordeta. Eta justu, Jaurilaritza eta Diputazioa elkarrekin negoziatzen dabilza, arkeologia museo bat egin guran, baina oraindik ez dago ezer.

ANIMALIAK > KATUAK

Katuen gaineko kexuak hasi dira azaltzen Arrasaten

Azken hilabeteotan, hiru auzotatik jaso dituzte kexuak Udalean; Aldain egin dute harrapaketa

U.M. > ARRASATE

Egoera zaindu ezean, katuak arazo bilakatuko dira Arrasaten, inguruko beste herri askotan gertatu den moduan. Ugaltzen dabilza eta kalean geroago eta gehiago ikusten dira. Horren adibide da azken hilabeteotan hiru kexu aurkeztu dituztela Udalean, Arrasateko hiru auzotatik aurkeztutakoak: Aldai, Makatzena eta Uribarri -azken auzo horretatik, asteon bertan. Are gehiago, Aldain katu harrapaketa egin ere egin behar izan dute ekain hasieran.

"Orain arte ez dugu kexurik izan. Orain urtebete-edo hasi ginen kexuak jasotzen", azaldu du Amaia Aranak, Zerbitzu Sailko udal teknikariak. Zera ere gaineratu du: "Ez dakigu kexu guztiak kalean bizi diren katuen gainekoak diren. Izan ere, Makatzenen egonda gaude, eta ikusi dugu han ibiltzen diren katuei jaten ematen dietela auzotarrek, beste katu batzuek

lepokoak dituztela... Dena den, kexua jaso ostean argi ikusten badugu katuak kalekoak direla, dagokion enpresari abisatzen diogu, katu harrapaketa egin dezan". Bestalde, hainbat kexu gogorren aurrean, teknikariak gura izan du azpimarratu kexua jasotzen dutenetik irtenbideren bat eman arte denbora pasatzen dela: "Egoera aztertu egin behar da; adibidez, ikusten badugu katuek lepokoak dituztela, ugazabekin harremanetan ipini behar izaten dugu. Katuak harrapatzeke enpresak baliteke guk abisatzen diogunean ezin etortzea; gainera, katuak harrapatzeak ere baditu zailtasunak... Jendea ez da halakoekin konturatzen".

Elorrioko Zaunk enpresa arduratzen da katuak harrapatzen. Harrapatzen dituztenak Elorrioko animalia gordetegi-ramaten dituzte eta, irtenbideren bat aurkitu ezean, sakrifikatu egiten dituzte.



Katua kalean, sarri ikusten den moduan.

GOIENKARIA

HIRIGINTZA > HARROBIAK

Leherketa gehiago San Josepe harrobian

EB-Zutik koalizioak eta PPK salatu dute erabaki hori ez datorrela bat udal hitzarmenarekin

U.M. > ARRASATE

San Josepe harrobian leherketa gehiago egingo dituztela salatu dute EB-Zutik koalizioak eta PP alderdiak. Biek ala biek salatzen dutena zera da: Arrasateko Udalean hitzartuta dagoenaren kontrara, oraingo Udal Gobernuak atzera ere baimena eman duela San Josepen leherketa gehiago egiteko.

KOALIZIOAK, ERREKURTSOA

Batetik, EB-Zutik koalizioak salatu du Hirigintza batzordeak ez zuela harrobikoek eskatutakoa onartu eta "ulertezina" dela Udal Gobernuak baiezkua ematea. Dio "2007ko otsaileko hitzarmenak orain baimendu diren ekimenak atzera bota" zituela. Gaineratu du haiek proposatu zirenean, EB-Zutik koalizioak kontra egin zue-

la, Udalean hitzartutakoa ez zuelako errespetatzen eta, gainera, leherketa horiek gainditu egiten zirelako esplotazioaren mugak". Horrekin batera, oraingo Udal Gobernuak akusatu du "esplotazioaren mugak handitzeke baimen eskaera luzatzeko ezezkua eman zueneko datu berekin" eman duelako orain baiezkua. Gaineratu du pentsatzen dabilzala errekurtsua ipintzea.

PP: "ATZERA ERE LEHENGORA"

PPk, berriz, salatu du, baita ere, gai horren gaineko azkeneko hitzarmena sinatu zutenean "argi geratu" zela "harrobiak baimendutakoa baino harri gehiago" aterata zuela ordurako. Eta gaineratu du agintaldia aldatu arren, atzera ere lehengora bueltatzen garela eta "gune hura lau uzteko aitzakiarekin", betiere, Udalak "aurrez-

tu" egin behar duela esanez eskatu dutela orain leherketa gehiago egiteko baimena. Bestalde, galde-tzen du ea udal ordezkariak zela dakiten guztia lau uzteko erabaki hori dela etorkizunerako egokiena; izan ere, PPko bozeramaileak azpimarratu du "momentuz harrobiaren espazioan zer egin daitekeen jakiteko ideia lehiaketa" bakarrik deitu dela; beraz, ez dakigula "espezialista horiek zer aurreikusiko duten" eta horren ondorioz ez dakigula gunea dagoenetan gura duten edo aldatuta.

"IXTEKO KONPROMISOA"

Udal agintariei galdetuta, berriz, jarduneko alkateak azaldu du "ulertzen" duela "euren kezka", baina azaldu du batzorde informatazailan "bi postura zeudela, batzuk alde eta beste batzuk kontra", nahiz eta "gehiago" izan kon-

trakoak. San Josepe harrobiaren udal hitzarmenaren gainean, berriz, azaldu du hura aztertuta "gauzak" ez daudela argi, "saiakerak" egin direlako eta besteak beste "epeak aldatu" egin direlako. Eta bukatzeko azaldu du bi arrazoi nagusirengatik eman dutela leherketa gehiago egiteko baimena: "Gure konpromisoa da, nahiz eta leherketa gehiago egin, itxiera muga ez dela aldatuko". Hori da arrazoietako bat; bestea, honako hau: "Leherketa batzuk egin gabe geratu ziren; orain planteatzen dutena da Banku 1 deitzen den hori leherketa bitartez kentzea. Gure arrazoi hori onartzeko da, gune horretarako ideia lehiaketa abian dagoenez, hori guztia libre uztea eta dena lautzea. Bestela, gerta liteke orain ez bada egiten koste gehigarri bat izatea Udalarendako hori lau behar izatea".

OBRAK > MUXIBARKO GARAJEAK

Muxibarko garajeen sarrerarekin ez daude ados

Garajeen goiko sarrera oinezkoendako izatea gura dute auzokoek, zirkulazioa txikitzeko

Udalak dio sarbidearen proiektu hori halaxe datorrela lehenagoko agintalditik

UBANE MADERA > ARRASATE

Muxibarren egiten dabilzan garajeek ezinezona eragin dute Gorostiza auzoko hainbat bizilagunen artean. Are gehiago, proiektu horrekin lotutako bi eskaera aurkeztu dizkote Arrasateko Udalarari, baita auzotarren artean batutako 230 sinadura ere, eskaerok babesten.

Labur esanda, eraikitzen dabilzan garaje berri horiendako goiko parteko sarrerarekin ez daude konforme Gorostizako auzotarrak. Haien esanetan, otsailan konturatu ziren "Larragain kaletik Muxibarko garajeetara eraikitzen ari diren sarbidea ibilgailuentzat" dela; eta diote eurak "horren kontra" daudela eta eskatzen dutela "sarbide hori oinezkoendako soilik izan dadila".

"BEREZ, GUZTIAK SALGAI"

Eskaera hori egiteko arrazoiak ere azaldu dituzte: "Larragain kaleak, gaur egun, zirkulazio handia du. Ibilgailuentzako sarbideak egoera okertuko luke, auzoaren kalterako". Gaineratu dute Arrasaten dagoen gehiegizko zirkulazioari aurre egiteko "alternatiba iraunkorrak" bultzatu beharko lituzketela eta euren auzoan egin gura dutena ez dela halako ezer.

Sarbidearen gaineko eskaerarekin batera, beste bat ere aurkeztu diote Udalarari, kasu horretan, garajeotarako aurreikusita dagoen igogailuarekin lotuta: auzotarrek eskatzen dute igogai-



Argazkian, Larragain kaleko garajeen irteera.

IMANOL SORIANO

lu hori garajeen erabiltzaileendako bakarrik izan barik, auzotar guztiendako izan dadila. Gainera, diote aurreko udalbatzak "Muxibarko garajeen proiektua

onartu zuela baldintza batekin: igogailu publikoa egitea, Bizkaia etorbideetik Larragain-Etxeazpia kaleraino". Eta, hain zuzen, halaxe da; izan ere, proiektu hori jen-

deurrean ipini zutenean iragarri zuten, beteak beste, bi igogailu izango zituela: bata garajeen erabiltzaileendako eta bestea publikoa, Bizkaia etorbidea Gorostiza auzoarekin lotuko dutena (*Arrasate Press*, 2005eko uztailaren 15ean). Hori bai, era berean, goiko sarbideari dagokionez, proiektu horretan iragarri zuten, baita ere, garajeen eraikinak goiko aldetik ere izango lukeela sarbidea; ibilgailuendakoa, alegia.

Gorostizako auzotarrek, berriz, diote goiko sarbidearen obra ikusi zutenean, kezkatu eta Udalean haren gaietan galdetu zutela eta Udaletik erantzun zutela oinezkoendako izango dela. Gaineratu dute "jatorrizko proiektuak aldatetak" izan zitezela, eta "auzoari ez zitzaizkion jakinarazi". Horren harira, diote "amorrutik handia" dutela, "desinformazio handia egon delako"; eta "dena ezkutuan" egin zela. Eta gaur egun "sarbidea eginda" dagoela.

UDALAREN ERANTZUNA

Sarbidea ibilgailuendako geratuko da

Oihana Aranburu jarduneko alkateak hainbat azalpen eman dizkio GOIENKARIAri. Hasteko, argi utzi gura izan du eurek ez dutela aldatetarik egin proiektu horretan garajeen goiko sarbideari dagokionez: "Aurreko agintalditik dator". Eta gaineratu du "behin proiektua onartuta hori aldatzea oso zaila" dela; beraz, goiko sarbidea ibilgailuendakoa izango da. Igogailuari dagokionez, berriz, azpimarratu du "auzotarrei begira" egindakoa izango dela: "Proiektuan hala dago jasota eta gure helburua ere bada irisgarritasuna izatea auzo horretara iristeko". Bestalde, jakinarazi du proiektuan badaudela puntu batzuk ibilgailuak eta oinezkoak elkartzen direla, eta horiek "segurtasun eta irisgarritasun aldetik hobetzeko" asmoz, eraikitzailearekin berbetan ibili direla eta orain haien proposamenen zain daudela. Gaineratu du haiek aztertuko dituztela, "betiere, auzotarren kexuak oinarri hartuta eta adostasunera iristeko borondatearekin". Bukatzeko, auzotarrek egindako desinformazio salaketaren aurrean, jarduneko alkateak dio bere ustez ez direla "desinformatzeko joerarekin ibili" eta esan du, besteak beste, "saiatu" direla "dauden kezken gainean guztien artean berba egiten eta haiei irtenbidea topatzen".

AZPIEGITURAK

Ikutixon ez dute zabortegirik egingo

Egitamu Orokorra aldatu beharko dute orain, erabaki hori han sartzeko

U.M. > ARRASATE

Arrasateko Udal Gobernuak behin betiko erabaki du Ikutixon ez dutela zabortegirik egingo. Iaz, agintaldiaren hasieran, gobernu osatzen zuten EA Eren eta EB-Zutik koalizioaren asmoen artean, horixe jakinarazi zuten: Ikutixo inguruan aurreikusita zegoen zabortegi industrialia ez zutela gauzatuko.

Bada, asmo hori erabaki bihurtu dute. Hori horrela, hurrengo pausoa da Arrasateko Egitamu Orokorra aldatzea eta Ikutixo gunen ez hiritargari moduan kalifikatzea.

AURREKO AGINTALDITIK

Ikutixon industria zabortegia sortzeko asmoa aurreko agintalditik dator. EAJk eta EAK baiezkoa eman zioten proiektuari. Asmoa zen 142.300 metro karratuko hedadura eta 40 metroko altuera izango zituen zabortegia eraikitzea. Hain justu, eraiki gura zuten, Olandixoko tunela eraikitzeko obretako lur sobe-rakinak batzen hasteko.

Baina proiektuak ez zuten guztien onespenez izan. Hain zuzen ere, hamar alegazio aurkeztu zituzten. Tartean, Uribarriko auzo alkateak, Besaide mendi elkarteak, EB-Zutik koalizioak eta, are gehiago, Gipuzkoako Foru Aldundiak berak ere gomendatu zuten Ikutixo ez zela leku egokia zabortegia eraikitzeko, gune hark duen balio ekologikoarengatik.

Bada, Hirigintza Sailak emandako informazioaren arabera, alegazio horiek guztiak aztertu eta gero hartu du Arrasateko Udal Gobernuak behin betiko erabakia.

112
SOS DEIAK

UGARAN
Jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Erakusketa berria

Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua



Gubi

ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
Tel.: 943 79 12 74

Musika, zinema, dantza eta zirkua protagonista

Pentsamendu zabalari irekiak, ekitaldi askok munduko kulturak ezagutaraziko dituzte

Indiana Jones-en film berriak estreinatuko du udako egitaraua

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Pasa den astelehenean aurkeztu zuten Udazabal programa, udalak antolatutako udako egitarau berezia. Oso egitarau zabala prestatu dute, hartzaila mota oro asebetetzeko moduko ekitaldiekin. Ekitaldiok Monterron parkean eta Herriko Plazan izango dira, eta ez da bat bera ere ikusteko zentimorik ordaindu beharko.

PENTSAMENDU ZABALARI IREKIAK

Oihana Aranburu Arrasateko jarduneko alkateak egin zuen berba Udazabal programaren aurkezpen ekitaldian. Aranburuk egitarauko ekitaldiak "pentsamendu zabalari irekiak" direla adierazi zuen. Izan ere, atzerriko etorriko den hainbat artista izango dira uztailaren 18an Arrasaten; besteak beste, Mali, Honduras, Benin eta Komi Errepublikako musikari eta dantzariak. Horrek aukera paregabea eskainiko die arrasatearrei munduko hainbat kultura ezagutzeko.

UDAKO KULTURA GIDA > UDAZABAL PROGRAMA

Udazabal, denetariko kultura emanaldiz gozatzeko aukera



Habib Koite da Maliko nazioarteko artistarik handiena. Griot modernoa deritzon estiloa jorratzen du, estilo propioa.

GOIENKARIA

Ekitaldi interesgarrienak

5, zapatua

22:30 Monterron parkean
Markeliñe Konpainiaren *Terapia* lana. Bizi osorako aukeratu dugun bizilagunari buruzko hausnarketa.

12, zapatua

20:00 Herriko Plazan Tallarin
Con Banana Konpainiaren *Al Paloo...* lana. Korapilo jokoa, akrobaziak, erritmo eta musika piezak nahastuz.

18, egubakoitza

22:00 Monterron parkean The Garifuna Collectiven eskutik *A Tribute to Andy Palacios* izeneko kontzertua.

00:00 Monterron parkean Habib Koite Maliko nazioarteko musikari handienaren kontzertua.

22, egubakoitza

22:30 Monterron parkean
Folklore jaialdiak, Les As du Benin eta Assya Kya taldeen eskutik.

ZINEMA GAUEZ MONTERRONEN

Monterron parkea nazioarte mailan ezagunak diren film emanaldien lekuko izango da. Guztira 11

film proiektatuko dira, egubakotzetan –salbuespena: uztailak 17 eta 24, eguena–, 22:30ean. Azken filmak irailaren 12an emango dute.

MUSIKA ERE BAI

Hainbat kontzertu izango dira. Aipagarriena uztailaren 18an Andy Palacioren egingo dioten ome-

naldia da. Umalali eta Aurelio Martinez Hondurasko artistek eskainiko dute emanaldia. Zer ikusi badago, aspertzeko unerik ez.

OSPAKIZUNAK > XVIII. ERROZIOAREN ERROMERIA

Heldu da andaluziarren eguna

Al-Andalus elkarteak domekan ospatuko du Errozio eguna; egun oso berezia da eurentzat

J.B. > ARRASATE

Heldu da herriko andaluziarren ospakizun egun handia, Errozioaren erromeria, alegia. Al-Anda-

lus elkarteak ekitaldiaren antolatzailea. Urtero moduan egitarau oparoa prestatu dute Andaluzian festa handiena den eguna Arrasatera egun batez ekartzeko. 18. aldia izango da aurtengoa, eta, beraz, ia bi hamarkada egingo dituzte euren ohiturak eta festa ereduak herrian ezagutarazten.

Goizean goiz hasita eta 19:00ak arte, ekitaldi pilo antolatutako Arruenako parkean,

Eroskiren ondoko zelaian. Egun osoan sevillan dantzatzeko dituzte eta Andaluziako produktu tipikoak dastatu ahal izango dira.

FESTA, ANDALUZIAK ERARA

Goizeko bederatzietan hasiko dira ospakizunak. Ordu horretan, kanpoko beste kultura taldeei harrera egingo diete eta erromesen gosaria egingo dute elkartearen egoitzan: kafesnea, madalena, kruasanak, zuku eta ura.

10:00etan Errozioko Salbea egingo dute Al-Andalus koroaren eskutik, egoitzan bertan. 10:30ean Errozioko Ama Birjinaren irudia aterako dute, erromes guztiak batera Santa Teresa elizara joateko. Elizan Hondarribiko Aljarafe koroak harrera egingo dio Ama Birjinari, eta 12:30ean hasiko da meza nagusia. Pedro L. Uranga abadeak esango du meza. Amaitzerakoan, Errozioko dominak banatuko zaizkie erromesei. 13:30ean helduko dira Arruenako parkera eta bertan izango dira, festa giroan, 19:00ak arte. Ekitaldi arrakastatsua izan ohi da: 2.000 lagun inguru batzen ditu urtero.



Irudian, iaz Ama Birjinaren irudia atera zuten unea

GOIENKARIA

> SANJUANAK

Jaietako argazki onenaren jabeak afari bat irabazi ahalko du

The National San Juan Graphics du izena lehiaketak. Lehiaketak bi kategoria izango ditu, *Super-profesionala* eta *Semi-profesionala*. Lehenera aurkezteko argazki kameratik ateratako erretratuak bidali behar dira eta bigarrenaren, aldiz, poltsikoko telefonotik ateratakoak. Argazkiak entregatzeko azken eguna uztailaren 11 da. Irabazle bakoitzak Muxibar jatetxean bi pertsonarentzako afaria izango du sari.

> MUSIKA

Grises Sueños taldearen kontzertua gaur 3.60 aretoan

Grises Sueños musika talde zetoarra izango da gaur 3.60 aretoan. Talde gipuzkoarrak rock elektronikoa eta popa uztartzen ditu. Smashing Pumpkins, Depeche Mode, Placebo eta Apoptygma Berzerk taldeen eragina nabaria da euren musikan, eta zuzeneko ikusgarriak egin ohi dituzte.

22:30ean hasiko da kontzertua. Gaueko protagonisten aurretik Jo! taldeak emango du kontzertua.

**KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE



LASAGABASTER

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

BEHERAPENAK

ASTELEHEN GOIZEAN ZABALIK

Silvia Alonso, Karrikiri dendako arduraduna

"Euskal produktuak zabaltzea dugu helburu"

Duela bospasei urte Iruñeko Euskaldunen Elkarteak Karrikiri denda ireki zuen. Iruñeko euskal komunitatearen alde egiten du lan eta euskal produktuak zabaltzeko helburua du orain.

Ze helbururekin zabaldu zenuen denda?

Batetik, dirua lortzeko, inoren menpe ez egoteko; eta bestetik, euskal produktuak zabaltzeko, inportantea da eta jendeak ezagutzea. Euskaraz bizitzeko ia ezinbestekoa da alde ludikoa lantzea.

Zer eskaintzen duzue?

Produktu asko ditugu eta urte osoan hainbat kanpaina egiten dugu. Orain, San Ferminen kanpaina sartuta gaude. Bertakoentzat eta turistentzat arropa zuriaz gain, hemengo musika eta osagarri guztiak aurki daitezke. Urte osoan zehar eskaintza zabala dugu: jostailuak, CDak, ipuinak, euskal jantziak, etxeko eta kaleko arropa... San Ferminetan jende gehiago espero dugunez, ordutegi berezia edukiko dugu: 6an, goizez irekiko dugu; 7an, goiz eta arra-



Silvia Alonso.

tsaldez; eta 8tik aurrera, goizean bakarrik: 10:00etatik 14:00etara.

Karrikiri elkarte bat da. Ze egin-kizun betetzen duzue?

Elkartea orain dela 12 urte sortu zen. Gure helburu nagusia Iruñerrian euskararen erabilera sustatzea da, euskaraz aritzeko dauden guneak ezagutaraziz eta ez daudenak sortuz. Gu, euskaldunok, txirindulariak gara autoen artean Iruñerriko karriketan ibiltzen garenok. Autoen artean ibiltzea oso deserroso suertatzen

zaigunez, elkarteak txirindularientzat *bidegorriak* zabaldu nahi ditu, *bizikletaz* mugitu ahal izateko.

Dendan erosketak egiteaz gain informazioa jaso dezakegu.

Elkarte bezala hainbat zerbitzu ditugu: komertzio euskaldunon errolda; ikasle etxebizitza euskalduna osatzeko zerbitzua; langile euskaldunen lan poltsa; *Karrika* gure buletina, e.a. Informazio zerbitzua ere ematen dugu: errenta aitortpena euskaratu edo euskara ikasteko dauden dirulaguntzak azaltzen saiatzen gara.



Jantzi zuriaz dituzte guztiak, San Ferminetako kanpaina daudelako.

"Elkartearen helburu nagusia Iruñerrian euskararen erabilera sustatzea da"

"Arropa zuriaz gain, hemengo musika eta osagarri guztiak aurki daitezke"



Arropa, jostailuak, ipuinak eta beste hainbat produktu daude salgai dendan.

Karrikiri Elkarte. Xabier karrika 4 (Gazteluko plazaren ondoan). 31001. Iruñea. Tel. : 948 22 58 45. bulegoa@karrikiri.org



Mondragon Unibertsitateak kantxan eskuratutakoak ez du saririk izan; erretratuan, taldekideak EBArako igoera ospatzen.

JOSETXO ARANTZABAL

EBArako igotzeari dagokionez, zuzendaritzak zituen kezka guztiak baieztatu dira: MUKo mutilek kantxan lortutakoa ezerezean geratu da

SASKIBALOIA > IGOERA

MUK uko egin dio EBArako igotzeari, ez duelako babes nahikorik jaso

XABIER URTZELAI > ARRASATE
MUK ez du datorren denboraldian EBAn jokatu. Kategoria horretan jokatu duten taldeek gaur eman dute izena, eta dagoeneko aurkeztu dituzte berme ekonomikoak. Hala, Debagoienak ez du merezi kategoria horretan ordezkari, txartela eskuan izanda ere klubak ez duelako babesik jaso. Zuzendaritzako kideak han eta hemen ibili dira EBAn jokatzeko gutxienez behar zituzten 70.000 euroen bila, baina *Asteleheneko Goienkaria*-n orain dela

bi aste aurreratu moduan, instituzioek eta enpresek ez dute interesik erakutsi.

ALDAKETAK IZANGO DIRA

Irailetik aurrera aldaketa nahikotxo izango dira. "Beterano batzuek taldea utziko dute, baina espero dut aurten protagonismoa izan duten gazteek gurekin jarraitzea", adierazi du Jon Basurkoko. Izan ere, Antxon Hernandez eta Imanol Zeziaga jokalariek gertutik jarraitu dituzte EBAn dabilen Azpeitiko taldeak. Eta, ikusi egin behar-

ko da Iñaki Merinok ere klubean jarraitzen duen, MUKekin egindako lan onari esker hainbat eskaintza izan dituelako.

Bestalde, aurrera begira, baliteke EBAn jokatzeko merkeago izatea: "Hemengo multzoan Galiziatik talde mordoak daude, eta horrek garestitzen du kategoria. Proposamena egin dute multzo hori bitan banatzeko, eta federazioak datozen denboraldietan hausnartuko du horren gainean". Horretarako, baina, aurten egin den lan bera errepikatu beharko litzateke kantxetan: "Harrobitik badatuz jokalariek, eta Bergarako eta Oñatiko taldeak ere suspertzen ari dira; ea bospasei urte barru ibarrean talde bat goiko kategorian izan dezakegun".

teke kantxetan: "Harrobitik badatuz jokalariek, eta Bergarako eta Oñatiko taldeak ere suspertzen ari dira; ea bospasei urte barru ibarrean talde bat goiko kategorian izan dezakegun".

ARRIGORRIAGAN TXAPELDUN

Hain zuzen, harrobiarekin egiten dabilen lanaren emaitza da joan den astean infantilek Arrigorriagako txapelketa irabazi zutela. Finalean, Arrasatekoek 67-55 irabazi zioten Euskadiko txapeldu-norde izan den Loiolari.

Lore Marrek Euskadiko errekorra ondu du: 3,31 metro

Joan den astean egin zituzten kade-te mailako Euskadiko txapelketak, Durangon, eta Lore Marrek orain arte Maialen Axpek zuen Euskadiko errekorra (3,25 metro) ondu zuen. Hala, atleta aretxabaletarrak 3,31 metroko salto eginda urrezko domina jantzi zuen. Beste behin bistan geratu da puntako pertika jauzilariak dituela Arrasateko klubak, eta gehiago datoz atzetik. Erretratuan, Lore Mar eta Maialen Axpe, Jonathan Perez entrenatzailearekin.



ARRASATE ATLETIKO TALDEA

SQUASHA

Ikastaroa antolatu dute uztaileko

Inoiz jokatu ez dutenei eta maila hobetu gura dutenei dago zuzenduta

M.A. > OÑATI

Debagoieneko squash txapelketan buru-belarri ibili eta gero, orain, Arrasateko AKE Squash Elkarteak ikastaroa antolatu du uztaileko. Bi txanda egingo dituzte: lehena hilaren 7an, 9an eta 10ean (ikastaroa goizetik izango da, 10:00etatik 11:30era); eta bigarrena hilaren 14an, 16an eta 18an (ikastaroa arratsaldean izango da, 19:00etatik 20:30era). Kiroldegiko bazkideek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta gaitzakoek, 10 euro. Baina kontuan hartu behar da kiroldegiko bazkide ez direnek lehenago sarrera ordaindu beharko dutela, edo bestela bonua egin.

Antolatzaileek aditzera eman dute ikastaro hori squash inoiz praktikatuko ez dutenei zuzenduta dagoela, baina baita euren teknika hobetzeko asmoa dutenei ere. Horretarako, ikastaroan, jokalarien mailaren arabera taldeak egingo dituzte. Horrekin batera zera argitu gura izan dute, squashean jokatzeko erraketarik ez daukatekenez ez arduratzeko, antolatzaileek jarriko dute eta beharrezkoa den material guztia.

Informazio gehiago gura duenak edo zuzenean izena eman gura duenak honako telefono zenbakira deitu behar du: 656 73 60 17.

> ARETO FUTBOLA 24 ordu areto futboleko jokatzeko, bihar eguerdian hasita

Bihar eguerdian hasiko dute Ino Galparsoro alkatearen askatasuna exijitzeko asmoz antolatu duten 24 orduko areto futbol txapelketa, Uarkapen. Gau eta egun ibiliko dira jokatzeko, eta, aurreikuspenak betetzen badituzte, domeka eguerdi inguruan jakingo dute zeintzuk izan diren txapelketako onenak. Hori horrela, txapelketan aurrera egiten dutenek 10 gutxi egingo dute oraingo asteburuan; zapatu gauean bai, behintzat. Txapelketan 26 talde eman dute izena, eta emakumezkoak eta talde mistoak daude tartean.

kanpotarrak Arrasaten

Piotr Kaminski > Poloniarra
Arrasaten bizi da

"Hemen euria egiten duenean, paisaiak xarma galtzen du"

JASONE ZABALA > ARRASATE

Piotr Kaminskik ia urtebete darma-gure artean. Mondragon Unibertsitatean ikasten du eta lan ere egiten du, hizkuntza eskolak ematen. Gustura dago gure artean, nahiz eta Arrasate nahiko txikia den bere hiri Bydgoszcz-ekin alderatuz. Asteburuetan kanpora irtetea gustatzen zaio, inguruak ezagutzera.

Piotr Kaminski 23 urteko poloniarra da. Telekomunikazio ikasketak egitera etorri zen Arrasatera joan den urteko iraillean, eta laugarren maila egiten ari da Arrasaten. Ikasteaz batera, Mondragon Linguae akade-

mian eskolak ematen ditu. Aisialdi denboran, Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako txokoak bisitatzera joatea gustatzen zaio Kaminskiri. Arrasaten, beste hiru pertsonarekin bizi da etxe batean: brasildar batekin, poloniar batekin eta euskaldun batekin.

"Ni hiri handi batekoa naiz, eta Arrasate askoz herri txikiagoa eta lasaiagoa da; hemengo jendea nahiko itxia da"



Piotr Kaminski.

DESBERDINTASUN HANDIAK

Kaminskik desberdintasun handiak topatzen ditu Poloniaren eta Euskal Herriaren artean: "Ni hiri handi batekoa naiz, eta Arrasate askoz herri txikiagoa eta lasaiagoa da. Arrasaten jendea nahiko itxia da, eta ez dago Polonian moduko erraztasunik lagunak egiteko". Kaminskik adierazi digu aisialdi denboran Arrasaten ez dagoela gauza askorik egiteko, eta horregatik, inguruko beste leku batzuk ezagutzera joaten da: "Asteburuetan Gasteiz edo Bilbora joaten naiz, hiriburuak ezagutu eta bertan parranda egitera".

"Hemengo paisaia polita da, baina euria egiten duenean bere xarma galtzen du", dio Kaminskik. Euskara hizkuntza polita iruditzen zaio, baina zaila. "Españolez hobeto ikasi behar dut, Europan eta Hego Amerikan zehar ibiltzeko". Familia faltan igartzen du Kaminskik: "Familia-ekin dudan erlazioa oso estua da eta gogorra egiten da".

bere ustez



Jokin Etxebarria

Espainiar Transilvania

Modu honetara deskribatu du kazetari batek gure herria duela gutxi irakurri dudan artikulu batean. Itxura denez, maiatzeko azken asteburua pasa zuen Mondragoen eta herri iluna, grisa eta beldurtia garela antzeman zuen baita ere.

Agian, herriaren izenak lotura dauka horrekin, bere ustez Arrasate arrastiaren atea baita. Ni harresi-atetik zetorrelakoan nengoen, baina baliteke kanpotarrek guk baino gehiago jakitea gure herriari buruz. Isaias Carrascoren hilketa dela eta,

"Nik, berakatzatza gustuko dudan aldetik, gizaki gorotzat hartuko du nire burua"

22.000 mondragoetarrak ETAre esanetara gauden banpirotxo eta gizaki gorotza omen gara, ez dugulako horren kontra ahotsik altxatu. Nik, berakatzatza gustuko dudan aldetik, gizaki gorotzat hartuko dut nire burua. Gauza positiboen artean, kamarera pinpirinak ditugula, nahiz eta ONCEko saltzaileak, esku eta hanketan arazoak edukitzeaz gain, hagin gabeak ere badiren. *La Gaceta*-n idatzitakoak argi eta garbi erakusten du inbestigazio kazetaritza nolakoa den. Tamalez, Isaias Carrascok ez du joan berri diren San Juan jaiez gozatzeko aukerarik izan. Era berean, sentitzekoa da alkate batek, lehen aldiz, bere herriko jaiak bizi ezin izana.

txutxu-mutxua



AED

Ikasturteari amaiera antzerki emanaldiarekin

Ikasturte amaiera dela-eta, ekainaren 18an, Arrasateko Udal Euskaltegian dabilzan ikasleek ikasturte amaierako antzerki antzezpina egin zuten. Euskara eskoletan Lehen eta Bigarren Hezkuntzako neska-mutikoak dabilza, 41 ikasle guztira, baina antzerkian Lehen Hezkuntzako 30 neska-mutikoek hartu zuten parte. Hiru taldetan banatuta, antzerki bana prestatu zuten,

eta ederki prestatu ere. Ekitaldia ikusteko, Udal Euskaltegian bildu ziren gurasoak, lagunak eta baita eskoletako zenbait maisu-maistra ere. Hauek izan ziren antzeztutako lanak: *Buruko hura nork egin zion jakin nahi zuen satortxo*; *Txanogorritxo eta otsoa* eta *Lehoi baten bila noa*. Horrenbeste jenderen aurrean jardun ostean, txalo artean amaitu zuten egin beharrekoa.



Zenbaki Aholkulariak



• **Juridikoa:**

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak,
- Penala: Hutsegite epaketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigorzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• **Laborala:** Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...

• **Fiskala:** Etxebizitzaren salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...

• **Kontalibiltatea:** Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

BITTORI

ERRETEGIA

**Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

HEZKUNTZA > EUSKAL UNIBERTSITATEA

Euskal Unibertsitatearen adar bat Bergaran nahi dute

Ze zerbitzu jarri eta eraikin horren kokalekua aztertzen ari dira orain

PSE-EE ez beste alderdi guztien aldeko botoekin onartu du proiektua osokoak

TXOMIN MADINA > BERGARA

Euskal Unibertsitatearen egitasmoa errealitate bihurtzen ari da apurka, eta hala, baliteke unibertsitate horren azpiegiturarako bat Bergaran egotea. Asteleheneko osoko bilkurak onartu du Bergarako udalbatzak babesema Euskal Unibertsitateari. Baita herrian fakultate bat jartzea bideragarria den aztertzea ere.

FAKULTATE BAT BERGARAN

Bada zenbait denbora Euskal Unibertsitatearen sustapen taldea eta Bergarako Udal Gobernua harremanetan daudela: batetik, proiektua azaltzeko; eta bestetik, etorkizunean unibertsitate horren azpiegituraren bat herrian jartzeko. "Harremanak izan ditugu Euskal Unibertsitatearen sustapen taldearekin, baina azpiegitura non jarri ondo aztertu behar da eta erabaki dugu gai hau osoko bilkurara eramatea", dio Agurme Barruso alkateak. Hain zuzen, asteleheneko osoko bilkuran eztabaidatu zuten gai hori eta Udal Gobernua osatzen duten bederatzi zinegotzien eta EA eta EAJ alderdien aldeko botoak jaso zituen Euskal Unibertsitatearen proiektuak; aldeko 15 boto, guztira. EAJren kasuan, baina, betiere erakundeen oniritzia jasotzen duen heinean. Alderdi Sozialistako bi zinegotziak abstenitu egin ziren.

Jakin berri denez, Euskal Unibertsitatearen bultzatzaileen asmoa da gune nagusia Tolosan jartzea, eta Nafarroan fakultateren bat jartzeko asmoa ere badute. Bergara ere aukera bat da horretarako, baina oraindik ez dago ezer zehaztuta. "Kokalekua ere oraindik erabaki barik dago. Fakultate bat, unibertsitatearen bestelako egoitza bat edo zehazki zein zerbitzu jarri gura den aztertu eta erabaki behar dute lehenengo eta horren arabera, behararren arabera, kokalekua erabakiko dugu", argitu du alkateak.

HERRIARENDAKO ONA

Agurme Barruso alkateak esan duen moduan, joan den abenduan Udalak aurkeztu zuen Bergararen etorkizunerako planarekin bat etorriko litzateke Euskal Unibertsitatearen azpiegiturarako bat Bergaran egotea, plan horren ardatzetako bat kultura

eta irakaskuntza direlako. "Fakultate bat herrian egoteak esan gura du herritarrek ere aprobetxatuko dituztela hor egingo dituzten hitzaldiak eta mintegiak, adibidez. Herrirako onuragarria izango dela uste dut", dio Barrusok.

Horri lotuta, alkateak esan du Bergarak kokalekua, komunikabideak eta herriaren beste hainbat baliabide eskaini ahal dizkiola Euskal Unibertsitateari. Gaineratu du ez dagoela zertan arazorik egon UNED bera Bergaran egotearekin, bi unibertsitateek funtzio ezberdina dutelako.

PROIEKTUA LANTZEN

Begarako udalbatzak onartu du Euskal Unibertsitatearen delegazio bat herrian jartzea, eta orain, harremanetan jarriko da berriro sustapen taldearekin horren berri emateko eta pentsatutako proiektu hori lantzen jarraitzeko hemendik aurrera.

'Berriketari' ibili direnek kurtso bukaerako afaria egin dute

Jardunek antolatutako Berriketari egitasmoak lagunek kurtso bukaerako afaria egin zuten ekainaren 27an. 21 lagun elkartu ziren guztira. Afaltzera joan aurretik Katamalo ikuskizuna ikustera joan ziren Espolaira. Afaldu ostean opariak banatu zituzten eta tragoxka bat hartu zuten elkarrekin etxera joan aurretik. Jardunek eskerrak eman gura dizkie guztiei eta irailera arte agurtu gura ditu.



JARDUN

> GORLA

Dagoeneko zabalik dago Gorlako kantina, egunero

Gorlako kantina zabalik dago dagoeneko. Egunero zabalitzen dute, 11:30ean, eta eguneko menuak, ogitartekoak eta mokadutxoak zerbitzatzen dituzte, besteak beste.

Bestalde, uztailearen 19an egingo dute urtero egiten duten Pikulitza Rot's jaialdia. Dantza eta sentimendua dira aurtengo jaialdiko ardatzak eta, besteak beste, sabel dantza egiten duen Bilboko talde bat, flamenkoa euskaraz dantzatzeko duen Armiarma taldea, reggae kontzertua eta pailazoak egongo dira.

> TXAPELKETA

Mus eta tute txapelketak Kayak eta Aralar tabernetan

Kayak eta Aralar tabernekin antolatuta, mus eta tute txapelketak egingo dituzte uztailearen 19an eta 20an. Bikote batzuek Kayak tabernan jokatuko dute eta beste batzuek Aralarren. Izenematea doan da. Hiru sari emango dituzte txapelketa bakoitzean: irabazleentzako, Zelai talasoterapiarako bi lagunentzako txartelak, trofeoak eta ardoak; bigarrenentzako, trofeoak eta ardoak; eta hirugarrenentzako, trofeoak. Uztailearen 17a da izena emateko azken eguna.

> DEIA

Eguaztenean, hilak 9, da hurrengo odol ateratzea

Datorren eguaztenean, uztaileak 9, odol ateratzea egingo dute. Hitzordua betiko toki eta orduan da: Seminarioko lokalean, 18:00etatik aurrera. Uztailean bi odol ateratze egingo dituzte, 9an eta 23an. 23koa, hain zuzen, uda aurreko azkena izango da, abuztuan ez delako odol ateratzetik egongo.

Odol emaileen elkarteko kideek ahalik eta jende gehien joateko dei egiten dute.

H₂O Lounge
altzari denda
ikerleku zeharbidea · bergara
tel.: 943 03 46 30

UGARTE
AROSZTEGIA · ALTZARIAK

K21

arotz lanak orokorrean
leihoak
ateak
horma-armairuak

erakusketa eta tailerra
san juan 1a · bergara
tel.: 943 76 54 91
faxa: 943 76 08 04

**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

JAIK > SAN MARTZIALEKO ERROMERIA

'Egileor'-en bertso soinua faltako da etzi erromerian

Urtetan bazkal aurreko giroa alaitzen ibili eta gero, aurten Jesus Alberdi bertsolaria faltako da

Aurten taberna bakarra egongo da, kantina, eta Herri Mugimendua taldeak ustiatuko du

JASONE ZABALA > BERGARA

Aurtengo San Martzialetan hutsune nabarmen bat egongo da: urte askoan erromeriak bertso soinu alaitu dituen eta aurten hil den Jesus Alberdi *Egileor*. Haren ordez, Juan Mari Narbaizarekin batera Jose Luis Gorrotxategi arituko da bertsotan.

Aurten, guztira, 178 mahai eta 1.453 aulki alokatu dira – joan zen urtean baino gehiago. Zelaian taberna bakarra ipiniko dute aurten. Kantina egongo da zabalik eta

Herri Mugimendua taldea arduratuko da haren ustiaketa; txosnaren ustiapenerako, berriz, ez da talderik aurkeztu.

EKITALDI UGARI ETA EGILEOR FALTA Erromeriaren hasiera 09:30ean izango da, Lizarrako gaitari, Zumarragako trikitilari eta Bergarako Udal Txistulari Bandarekin. Ostean, 10:00etan, gurdia-ekin San Martzialera egingo dute igoera. 11:00etan meza nagusia egingo da ermitan, eta ondoren



Irudian, Narbaiza- ezkerrean - eta *Egileor*- eskuman - bertsotan. Gorrotxategi arituko da aurten *Egileor*-en ordez. GOIENKARIA

ohiko aureskua dantzatuko da; aurten ere, pasa den urteko erromerian bezala, udalbatzak sokadantza egingo du. Bazkal aurretik Juan Mari Narbaiza eta Jose Luis Gorrotxategi –urte askoan *Egileor* zena bertsotan aritu ondoren– bertsotan arituko dira, eta ondoren kantina inguruan abesti herrikoiak abestuko dituzte. Bazkalostean, 16:00etan umeendako jolasak egongo dira eta 18:00etan, berriz, herri kirolak.

Sokatiran 16 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, eta gehienez ere zortzi laguneko taldeak izango dira. Txinga jokoan, berriz, gizonek 50 kiloko bi txinga eramango dituzte eta emakumeek 25 kiloko bi.


EGUNAREN AMAIERA

Ordu berean, Txinparta taldearen eskutik erromeria egongo da. 21:00etan egunari amaiera emateko, jaitsierako txupinazoa botako

dute, eta San Martzialetik jaitsiera hasiko da; bertan, Udal Musika Bandako txistulariek, Lizarrako dultzaineroek, Zumarragako trikitilariak eta Incansables txarangak alaituko dute. Egun horretarako garraio zerbitzua egongo da egunean zehar; domekan ezin da zelaira autorik sartu, bertara janaria daramatenak izan ezik. Bestalde, San Martzialeko bidea zirkulazioarendako itxita egongo da 21:00etatik 22:00etara.

Maite Barrenak (EAJ) zinegotzi kargua hartu du

Astehenean egin zen ohiko bilkuran hartu zuen Maite Barrena Aranburuk (EAJ) Belen Abarzuzak duela hilabete arazo pertsonalegatik utzitako zinegotzi kargua. Barrena hemendik aurrera Kultura batzordean dauden azpibatzordeetako bitan arituko da lanean: alde batetik, Jarduera, Kultur Talde, Gazteria eta Jaiak; eta bestetik, Hezkuntzako azpibatzordean.



JASONE ZABALA

> ERROMESALDIA

Arantzazu eta Loiolako santutegietara erromesaldia domekan

Datorren domekan, uztailak 6, erromesaldia egongo da Arantzazu eta Loiolako santutegietara. Autobusak 09:30ean aterako dira autobus geltokitik. 12:00etan meza nagusia izango da Arantzazun. Bergaratik joan nahi dutenentako, autobusak geldialdi bakarra egingo du Ozaeta auzoan. Autobus txartelak 8 euro balioko du, eta 14:00etan Gandiaga topagunean egingo den bazkarirako txartelak, berriz, 18 euro. Txartelak Ozaetako Zerkauzi dendan edo Barrenkaleko Zatoia dendan daude salgai.

> UDAKO IRTEERAK

Aquaparkera joateko izenematea zabalik dago, uztailaren 9a arte

Udalak gazteendako antolatutako duen udako bigarren irteerarako izenematea epea datorren uztailaren 9a arte dago zabalik.

Irteera Arcachon-era (Frantzia) izango da, datorren uztailaren 23an. 12 eta 18 urte bitarteko gazteei dago zuzenduta. Bidaia-aren prezioa 20 euro izango da, eta guztira 50 plaza baino ez dira egongo.

Gogora ezazue lehen irteerarako –Ebro ibaitik *rafting*-a egitea– izenemate epea itxita dagoela. Horiek, datorren eguaztenean, uztailak 9, joango dira *rafting*-a egitera.

Guisasola burdindegia "Erratzu"

Zerbitzu berria
labanak eta guraizeak zorrozten ditugu

San Pedro 8 Tel. / Faxe: 943 76 27 70
20570 BERGARA (GIPUZKOA)

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

KONDE
PANADEROKUA

Burdiñate 1
943 76 02 57
Toki Eder plaza 3
943 76 14 87
BERGARA

Sugoi
ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Eskaintza
bereziak

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

MUSIKA > ESPOLOIKO KONTZERTUAK

Musika beltza, Espoloiko gauetarako

Bergarako Udalak antolatutako kontzertuak dira Zuhaitzi tabernaren laguntzarekin

Musika beltza entzuteko aukera egongo da Espoloian: besteak beste, jazz, soula eta funkya

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Iritsi da uztaila; eta, horrekin batera, Espoloiko musika eskaintza. Eguaztenean kultura etxean aurkeztu zuten azken urteetan ohiko bilakatu den kontzertu sorta: Espoloiko Ostiral Musikalak. Jazz, funkya, soula eta beste hainbat musika estilo entzuteko aukera paregabea eskainiko dute kontzertuok -flamenkoa, adibidez.

Maider Osa Kultura teknikaria, Ubane Uzin Gaztelupeko Hotsak etxeko arduraduna eta Enara Minguez Kultura zinegotzia izan ziren aurkezpenean. Aspaldiko urteetan antolatu dira kontzertuak Espoloian; hasie-

ran, kontzertu solte bezala, baina gerora gorpuzten joan da ekitaldia. "Horrenbeste entzuten ez den musika entzuteko txoko polita da Espoloia, giro polita sortzen da", adierazi zuen Osak. Espoloiko musikarien maila nabarmendu zuen Osak; eta, horren adibide aurtengo ekitaldikoak jarri zituen.

EMAKUMEEN PRESENTZIA

Ortophonk taldeko kide ohiak dira gaur kontzertua egingo duten Phonk Clubbin' Criminals taldekoak. "Eskarmentu handiko musikariak dira; eta, oraindik diskorik atera ez duten arren, euren musika entzuteko aukera



Ubane Uzin, Maider Osa eta Enara Minguez ekitaldiko karteekin.

ARANTZAZU EZKIBEL

izango da Espoloian", adierazi zuen Uzinek. Soul, funky dance, jazz eta musika elektronikoa lantzen dituen taldea da.

Esan behar da Espoloiko kontzertuetan emakumeek presentzia nabarmena izango dutela. Lau taldeetatik hirutan emakumeak izango dira liderrak. Gaurko kontzertuan, Virginia de la Casak abestuko du. Uztailearen 11n, Obanee Enayak jarriko du ahotsa, eta azkeneko kontzertuan, Terela Gradinek.

Egitaraua

4, egubakoitza

22:30: Phonk Clubbin' Criminals Gasteiz. Soul, funky, jazz eta musika elektronikoa lantzen dituen taldea.

11, egubakoitza

22:30: JJ Band. Andaluzia. Ahots flamenko-afrikarra eta jazz musika uztartzen dituen taldea.


18, egubakoitza

22:30: Jose Luis Pardo & The Mojo Workers. Argentina. Rhythm and Blues musika. *That's right* diskoa aurkeztuko dute.

25, egubakoitza

22:30: Terela Gradin & GEM Trio Galizia. Jazz gai klasikoak eta egungo musikagileen gaien bertsioak eskainiko ditu.

ARKAUZ
MUEBLES
ARETXABAETA




ETXE MOBEL
ALTZARIAK
ARRASATE



ARKAUZ
COCINA INTEGRAL
ARETXABAETA
FAGOR
banatzaile ofiziala



ARKAUZ
ELECTRODOMESTICOS
ARETXABAETA
expert
banatzaile ofiziala




Arkauz zure etxea da.



GRUPO
ARKAUZ

ARETXABAETA • ARRASATE
1950•2008

ZURE AUTOAREN PIEZAK PUNTU-PUNTUAN




ALMACENES LASCAR S.L.

Amillaga 32 • 943 76 10 38 / 943 76 19 11 • Bergara

DESA CRISTAL

Santalaitz 6, 5. pabilioia • 943 76 36 09 • Bergara
Ibaiondo bailara 17, 8. pabilioia • 943 69 16 16 • Irura


ELGETA AUTOAK

Julián Sanz Fernandez
Berraondokua • 943 76 82 02 • Elgeta

ION AUTOAK

Amillaga 36 • 943 76 47 49 • Bergara


LAGUN GARAJEA

Santalaitz 3 • 943 76 11 20 • Bergara

MARKIEGI autoak

Leizeaga 1 • 943 76 35 09 • Bergara


Murillo Garajea

Leizeaga 4 • 943 76 13 84 • Bergara

TALLERES ASEGUINOLAZA, S.L.

Urteaga 37 • 943 76 12 50 • Bergara


T. Blanco
Nonito Blanco Sampayo

Amillaga 22 • 943 76 17 35 / 943 76 51 35 • Bergara


TXOMIN GARAJEA

Lizarraga auzoa 8 • 943 78 70 77 • Antzuola

Gau luzearekin hasteko, Komando Piperrak eta BTLS

Bi talde horiek jokatu dute gaur hasiko duten 24 orduko areto futbol txapelketako lehenengo partidua

XABIER URTZELAI > BERGARA

Gaur, 19:00etan jokatu dute San Martzialako 24 orduko txapelketako lehen norgehiagoka, eta bihar jokatu dute finala, 22:45ean. Horrek esan gura du Udal Pilotalekuan ikuskizunak 24 ordu baino gehiago iraungo duela.

Txapelketako estreinaldia Arrasateko Komando Piperrak taldeak eta Bergarako BTLSko neskek egingo dute. Eta hor dago txapelketaren lehenengo berezitasuna, emakumezkoek eta gizonezkoek elkarren kontra jokatu dutela. Alde horretatik, txalok BTLSko neskendako, txapelketan parte hartzerantz animatu direlako, eta gainontzeko kontrarioei esan kontuz ibiltzeko talde horrekin. Txapelketako antolatzaile Jose Luis Beitiaren ustez ere meritu handia dute; txarrena, multzo gogorra tokatu zaiela: "Gazteek gogor jokatzeko dute, eta, hala ere, taldea ateratzera animatu dira. Badute meritua, bai".

Aste barruan ibili dira pilotalekua egokitzen: "Hori bai, gauean sekulako beroa egiten du



Txapelketako antolatzaileak, aste barruan, pilotalekua areto futboleko jokatzeko moldatzen ibili dira.

XABIER URTZELAI

pilotaleku barruan, ez dakit zelan moldatuko diren jokalaria". Baina Beitiak gogorarazi du berezia izango dela pilotalekuan jokatzea: "Azken 25 urteotan Udal Pilotalekuan ez da horrelakorik antolatu. Batzuei entzun diet, gaztetxotan, Gabonetan futbol

txapelketa bat jokatu zutela han, baina orduetik ez da horrelakorik izan. Gainera, 22:00etan jokatzeko dutenek eta hurrengo partidua 05:00etan daukatenez seguru ez dutela lorik egingo. Eta, kaleko tabernak ixten dituztenean ere jendea pilotalekura joango da, tal-

deak animatzera. Seguru giro ederra egongo dela".

Kontuan hartu behar da ondoan dagoen ordutegi-taulan 03:45etik aurrera jokatu dituzten partiduetan falta direla. Baina hasierako fasean erabakiko dituzte zeingehiagoka horiek.

24 orduko txapelketa

Ordutegia

19:00	Komando P.-BTLS neska.
19:45	Berdinjat-Ugarrixa
20:30	Mongitxarrak-Jutuve
21:15	Ezinleike-Cipris
22:15	Ez gaude-Ajalduju
23:00	Koki FC-Down
23:45	Santana River-Leikeu
00:30	Kantxan P.-The Purple
01:30	Komando P.-Mongitxar.
02:15	Berdinjat-Ezinleike
03:00	BTLS neska-Jutuve
03:45	Ugarrixa-Cipris
14:30	Final-laurdenak
15:15	Final-laurdenak
16:15	Final-laurdenak
17:00	Final-laurdenak
18:00	Finalerdiak
18:50	Finalerdiak
19:50	3. eta 4. postuak
22:45	Finala

*ez daude ordutegi guztiak.

> FUTBOLA

Bergara Kirol Elkarteak batzarra egingo du gaur

Urteko batzar orokorra egingo du Bergara Kirol Elkarteak gaur, egubakoitza, kultura etxean (19:30).

Zuzendaritzako kideek joan den denboraldiko kirol balantzea egingo dute batzarrean, eta beste gai batzuen artean kontu ekonomikoak landuko dituzte. Horrekin batera, datorren denboraldira begira bazkideendako kuotetan eta kirol helburuen gainean egingo dute berba.



OGIZUN

koop. elk.

okindegia

Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53

Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37

Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

Argazkia Kiñu

nire bidaia hura

Dani Gartzia

Tokio (Japonia) > 2007eko abuztua

"Tokion, bisitaria ezin daiteke galdu; jendea oso jatorra da"

N.M. /J.Z. > BERGARA

Dani Gartzia bere lagun Mikel Fortunarekin joan zen Japonia aldera joan den urteko abuztuan, bertako kultura ezagutu nahi zuen-eta. Hilabete osoa eman zuen bertan, eta liluraturik bueltatu zen.



Dani Gartzia.

Gartzia eta Fortuna Tokiora (Japonia) joan ziren pasa den udan, bertako kultura gertutik ezagutu nahi zutelako. Hegaldi merkeena hartu eta bertako ohiko aterpetxe batean egin zuten lo (Ryokan Toukaisou). Esperientzia berria izan zen Gartzia eta Fortunarendako, hegazkin bat hartzen zuten lehen aldia zen-eta. Tokiora heldu zirenean gehien harritu zituen bertako jendea-

ren adeitasuna izan zen. Janaria ere goxoa zen; 24 orduz zabalik zeuden jatetxe asko daude bertan. Eguraldiari dagokionez, bero handia pasa zuten, hezetasun handia dago-eta Tokion. "Berta-



Minato-kun dagoen Sengakuji tenplu budista.

ra joan nahi duen edonori lau leku bisitatzeko gomendatuko nioke: domeka batean, Akihabarako hiri elektronikoa; Chûo Dôri kalea autoendako itxi eta jendearendako zabaltzen dutenean;

asteburu batean Asakurako tenplua; eta Shibuyako erdigunea gauez eta egunez". Amaitzeko, biek esan digute berriz ere gus-tura bueltatuko liratekeela Japonia inguruak hobeto ezagutzera.

bere ustez



Lander Juaristi

'Txaparrada musikala'

Musikak barruak astintzen dizkigu, mugiarazi, lasaitu... Pertsona bakoitzak gure kantuak ditugu; gure oroimene-tan leku bat daukaten abestiak, gogoko ditugunak, gogaitzen gaituztenak. Badi-ra batzen gaituzten abestiak, gureak sentitzen ditugunak, zirrara berezi bat sortzen digutenak... Musika horren kontrola izatea, nahi dugun musika jarri eta besteei eskaintzea, zirrara hori sortaraztea, posible da Bergaran, badago irratia libre bat. Herri bakoitzak ere bere

argazki zaharra



San Martzialeko erronomia

Etzi San Martzialeko erronomia ospatzen dugula-eta, hara hemen Lokatza lagun-taldeak 1952. urtean San Martzialen ateratako argazki hau. Gaur egungo Lokatza taldearen aitzindariak dira koadrila horretako kideak. Behean, lurrean eserita, ezkerretik eskumara: Ramon Valencia,

Luis Larrañaga, Gurutz Arrieta eta Juan Suinaga. Goian, zutik, ezkerretik eskumara: Jon Ezpeleta, Javier Garate, Jose Antonio Muñoz, Iñaki Agirre, Joseba Linazisoro, Juan Muniategi, Julian Masach eta Julian Aiastui. Argazkia: Miren Suinaga. Testua: Miren Suinaga. Urtea: 1952.

"Musika horren kontrola izatea, nahi dugun musika jarri eta besteei eskaintzea..."

musika dauka. Herritarrek sortzen dutena, entsegu lokal-tan lantzen dena, batzuetan kaleratzen dena, beste batzuetan ez.

Txapa irratitik, kolektibo moduan, herrian sortzen den musika bultzatu nahi dugu, aireratu, gure irratsaiotan jarri. Honegatik antolatu dugu aste bukaera honetan *txaparrada musikala* bezala izendatu dugun jai.

Proiektu baten hasiera izango da. Helmuga; herriko egungo musika bilduko duen CDa. 26 talde igoko dira asteburu honetan gaztetxeko taula gainera, bakarlariak, rock, punk, tekno, triki edo auskalo ze musika egiten duten taldeak. Txaparrada musikala fresko bat izango da, gurekin busti nahi?

Kayak Taberna
Abuztuan eguneko menua

Terraza ederra, sekulako giroa!

Parking ederra

09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11



- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

UDA KO ARGAZKIEN ASTELEHENEKO GOIENKARIA IV. LEHIAKETA

Bidali zure udako argazkiak

...eta hiru sari bikainetako bat irabazi ahal izango duzu!

Argazki guztiak fotoblog honetan: www.goiena.net/blogak/argazkiak

Har ezazu parte!



Baldintzak

- Udako argazkiak izango dira: berdín izango da aurtengo udan ateratakoak izan edo beste uda batekoak.
- Beste inon argitaragabeak izango dira argazkiok.
- Argazkiak jasotzeko epea hasiko da ekainaren 23an eta amaituko da irailaren 17an.
- Parte hartzeko ez da ezer ordaindu beharko.
- Debagoieneko edozeinek parte hartu ahal izango du (ez da adin mugarik izango).
- Argazkiak aurkeztu ahal izango dira paperean edo digitalizatuta (horrela izanez gero, paperean erreproduzitzeko moduko erresoluzio eta kalitatearekin).
- Bidali ahal izango dira e-postaz argazkiak@goiena.com helbidera edo Goienaren egoitzaren batera ekarri: Arrasate: Saiolan eraikina, Nafarroa etorbidea 2, 20500 Arrasate, edo Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate. Bergara: Irizar jauregia, Barrenkalea 33, 20570 Bergara. Aretxabaleta: Durana 11, 2. solairua, 20550 Aretxabaleta.
- Egoitzara ekartzekotan kartazal batean sartuta (egilearen izen eta abizenekin), CD batean, edo argazki digitalak gordetzeko beste edozein euskarritan eta JPEG formatuan.

- Argazkiak izan daitezke koloretan zein zuri beltzean.
- Argazkiarekin batera adierazi beharko dira: egilearen izen eta abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta argazkiaren deskribapena (noiz eta non ateratakoa den, zer edo nortzuk agertzen diren, edo beste komentario laburren bat).
- Argazkiak argitaratuko ditugu astero uztailaren 14tik aurrera ASTELEHENEKO GOIENKARIAren.
- Irabazleak nortzuk diren urriaren 6an jakingo dugu ASTELEHENEKO GOIENKARIAren.
- Parte-hartzaileek gehienez 5 argazki bidali ahal izango dituzte.
- Lehiaketaren epai-mahaia osatuko dute Goienako kideek eta argazkigintzan adituak diren debagoiendarrek.
- Epai-mahaia baloratuko ditu: argazkiaren kalitatea, originaltasuna, balio historikoa, bizitasuna..., besteak beste.
- Honez gain, GOIENAKo beste hedabideek ere egingo dute lehiaketaren jarraipena.
- Argazki asko jasotzen baditugu, ez ditugu guztiak argitaratuko. Aukeraketa egingo dugu argitaratzeko.
- Jasotako argazkiak ASTELEHENEKO GOIENKARIAko artxiboan geratuko dira, etorkizunean beste erabilpen bat eman nahi bada, beti ere egilea aipatuz.

Sariak



1. saria

Olympus E-510 reflex argazki kamera digitala Bergarako Kiñu argazki dendaren eskutik.
- 10 milioi pixel.
- Bi objektibo aldagarri: Zuiko digital 14-42 mm eta 40-150 mm.
- Flash eta guzti.
- 2,5 hazbeteko LCD pantaila.



2. saria: Astebukaera bateko egonaldia bi pertsonarendako Arrasate Bidaiak-en eskutik.



3. saria: bi pertsonarendako afari/bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean.

Babeslea:

 **kutxa**

Laguntzaileak:


argazkilariaik


GURE AMETSA
JATETXEA

Arrasate Bidaiak
BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedun egiteko:

943 08 10 50

Astelehenetik egubakoitzera
09:00etatik 18:00etara

KULTURA > UZTAILEKO EGITARAUA

Ikuskizunez beteta, Arkupe kultura etxea

Erakusketa, ikus-entzunezkoak, ume eta helduendako ikuskizunak eta ikastaroak daude

Udako zinema emanaldiak Iturrigorri frontoian egingo dituzte, bi domekatan: 6an eta 13an

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETAK

Egitarau dotorea gertatu du Kultura Sailak uztaileko, eta Arkupe kultura etxean izango dira ekitaldi gehienak. Kultura etxea kudeatuko duen enpresarik oraingoz ez du hartu Udalak, lehiaketa hutsik geratu delako, baina oinarriak aldatu eta berriro deitzeko asmoa du. Bien bitartean, Kultura Sailak bideratuko ditu bertako kontuak.

URPEKO ARGAZKIAK

Erakusketa dago Arkupeko erakusketa gelan hilabete guztian, *Kantauriko koloreak* izeneko argazki bilduma. Txomin Rivera urpeko argazkilari adituarena da, *National Geographic* aldizkari ospetsuan kolaborazio lanak egin izan dituen errenteriarrarenak. Kantauri itsasoko argazkiri dotoreenak ditu ikusgai; 32, hain zuzen ere. Goizez (11:00-13:00) eta arratsaldean (18:00-20:00) dago zabalik.

Zaraia aretoan izango diren ekitaldien artean, ostera, ikus-entzunezkoak daude eguenetan. Hilaren 10ean *Vietnamen zehar* diaporama aurkeztuko du Amaia Belokik, eta bizikletan egindako bidaia gerturatuko die ikusleei. Hilaren 17an, *Budang la montaña mágica* eskainiko du You

Ching-ek. Txina erdian dagoen gunea da Budang, eta taoisten tenplurik garrantzitsuenak daude bertan. Txinatarren filosofiaren gaineko kontuak azalduko ditu.

Ikus-entzunezkoak ez, baina irakurketa saioa egingo du aretxabaletar batek hilaren 15ean, martitzena (19:00). *Hitzak orbainetan* poema liburua aurkeztuko du Karmele Igartuak, eta lagun arteko irakurketa saioa egingo dute. Euskaltzaindiak eta BBK-k antolatutako Felipe Arrese Beitia saria irabazi zuen Igarituak abenduan, *Hitzak orbainetan* poema bildumagatik.

IKUSKIZUNAK ETA ANTZERKIA

Umeei ere izango dute ekitaldirik Arkupen, zapatuetan hain zuzen, eta 5 euroren truke. Bihar (17:00), *Bazen behin zirkoa* antzez-lana aurkeztuko du Zirika Zirkus taldeak. Antzerkia eta zirku bateratuko dituzte, eta umeen parte-hartzea eskatuko dute.

Hilaren 12an (17:00), ostera, magia eta umorea elkartuko ditu Kidam magoak. Musikarekin egindako magia jokoak eta hitz jokoak ditu ardatz mago horrek.

Hilaren 19an (17:00), Hipo eta Tomax pailazoak etorriko dira. Sukaldari bihurtutako pailazoak Argiñano sukaldari famatuaren



Bazen behin zirkoa, Zirika Zirkus taldearen emanaldia.

ZIRIKA ZIRKUS

telebistako platoan elkartuko dira, eta aspaldi zeukaten ametsa burutuko dute: sukaldari famatuak izan eta umeei Cola-Cao pastela nola egiten den erakutsi. Ezustekoz betetako ikuskizun dibertigarria eskainiko diete 4 urtetik gorako umeei.

Helduek antzerkia izango dute uztailearen 11n, egubakoi-tzean: *Ezker eskuma* antzez-lana eskainiko du Glu-Glu taldeak. Loli Astoreka eta Iñake Irastortza aktoreek antzeztuko dute Aizpea Goenaga eta Ane Gabarainek egindako lana.

IKASTARO BI GAZTEENDAKO

Arkupeko dantza aretoan, ostera, gazteendako ikastaroak antolatuko dituzte -13 urtetik gora. Batu-

ka zelan dantzatu erakutsiko dute uztailearen 8an, 15ean eta 22an, martitzenetan (19:00-21:00). Eta malabarrak erabiltzen jakin gura duenak uztailearen 16an, 17an eta 21ean dauka aukera (18:00-20:00). Ikastaroak hasi aurreko egunetan eman behar da izena, Arkupeko harreran.

ZIMENA ITURRIGORRI FRONTOIAN

Azken urteotan legez, uztaileko udako zinema antolatu du Kultura Sailak. Aurten, baina, Iturrigorri frontoian izango dira emanaldiak -plaza apurtuta dago-, domeketan (21:30). Bi film emango dituzte: etzi, hilak 6, *Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal*; eta hilaren 13an, *La boda de mi novia*.

LEHIAKETAK

Hilaren 9an, horma-irudi lehiaketaren irabazlea

Gaur bukatzen da Andramaixak iragartzeko horma-irudi lehiaketa

M.A. >ARETXABALETAK

Abuztuko Andramaixak iragartzeko horma-irudi lehiaketa deitu zuen Kultura Sailak, eta gaur da lanok aurkezteko azken eguna. Arkupe kultura etxera edo udaletxera eroran behar dira, eguerdirako. Bestalde, ekainaren 27an itxi zuten Andramaixetarako esaldi lehiaketa.

Epaimahaiak datorren astean elkartuko dira, eta eguaztenean, hilak 9, jakinaraziko dute irabazleak zeintzuk izan diren. Horma-irudiaren egileak 300 euro jasoko ditu. Esaldietan, ostera, hainbat sari daude: Andramaixetako egitarauan erabiltzeko dena 120 euro eta pegatinak egiteko erabiliko direnak asmatutakoendako, 60 euro.

> INTERNET

Ona eta Izenpe txartelak eskura daitezke KZgunean

Markole auzoan dagoen KZgunea arratsaldeetan dago zabalik uztailean (16:00-20:00), eta hainbat ikastaro eskaini dizkiete herritarrei. Gainera, osasun txartel elektronikoa eskura daiteke, baita Izenpe txartela ere. Eta biok zelan erabili ikasteko, bi orduko ikastaroa egin dezakete interesatuek. Oposizioetarako baliagarria den IT txartela eskuratzeko azterketak ere egingo dituzte hilabete honetan, lau guztira. Argibide gehiago gura izanez gero edo ikastaroren baten izena eman, deitu Aitor Madrid KZguneko arduradunari (943 79 94 44).

Hilaren 23ra arte udalekuetan dabilta 200 bat neska-mutiko

Eguaztenean elkartu ziren lehenengo udalekuetan izena emandako 200 bat neska-mutiko. Plazan lanean dabiltzanez, Kurtzebarri eskolako jolastokian dute aurten elkartzeko gunea. 30 begirale lagun dituztela ez dute aspertzeko aukerarik izango: eskulanak, jolasak, irteerak... Astelehenean, esaterako, San Fermin eguna ospatuko dute.



MIRARI ALTUBE

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETAK

KIROLA > ARETXABALETA KIROL ELKARTEA

'Oso-osoko jokalaria' sariak banatuko ditu UDAk gaur

Batzar orokorra egingo du UDAk gaur (18:00), Arkupe kultura etxeko Zaraia aretoan

Lehiakortasuna eta kirol maila ez ezik, beste balio batzuk bultzatu gura dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Batzar orokorra egingo du Aretxabaleta Kirol Elkartek gaur 18:00etan Arkupe kultura etxean. Bazkide guztiek dute deialdira joateko gonbidapena -650 inguru-, eta hala, pasatutako denboraldiaren berri jakingo dute eta datorrenaren aurrerapena iragarriko diete.

'OSO-OSOKO JOKALARIA'

Pasa den denboraldiaren berri emanaz hasiko du batzarra zuzendaritza batzordeak, eta 2008-2009 denboraldia aurkeztuko du gero. Ondoren, *Oso-osoko jokalaria* sariak banatuko dizkiete aurretik hautatuta dauden jokalariei.

Sari berria da, eta jarraipena izango du datozen urteetan. Zuzendaritza batzordearen asmoa da lehiakortasuna eta kirol maila bakarrik hartu beharrean kontuan, beste balio batzuk ere bultzatzea: taldekideekin harremanak; entrenatzailearekiko eta epaileekiko jarrerak; entrenamendu saioetara agertzea... Futbolearen bederatzi sari banatuko dituzte -maila bakoitzeko bat-. Sari bat emango dute areto futbolean eta bi pilotan -gazteak eta nagusiak-. Futbolaren kasuan, talde bakoitzeko jokalariek euren artean erabaki dute zeinek merezi duen; pilotari biak, ostera, teknikariek hautatu dituzte.



Aretxabaleta Kirol Elkarteko presidente Jokin Antxia futbol eskola aurkezten gurasoei, iaz.

MIRARI ALTUBE

Zuzendaritzak ahalegin berezia egin du aurten errespetuzko balioak lantzeko. Hala, gurasoen dekalogoia eta ikuslearen dekalogoia jarri ditu Ibarra futbol zelai-ko sarreran: "Eragin beharreko bi multzo daude: batetik, jokalaria eta entrenatzaileak. Horien lana gertutik jarrai daiteke inkes-

tak eginda, helburuak jarrita, txartelak eta isunak zainduta...; eta bestetik, gurasoak eta jarraitzaileak daude, eta horiek zailagoak dira kudeatzeko. Hala ere, jarrerak hobetzen doazela esango nuke, egun batzuetan arazo- txoak sortu arren", azaldu digu Jokin Antxia presidentek.

IZARRA, FUTBOLA

Kirol elkarte barruan bost kirol talde daude: futbola, areto futbola, pilota, txirringularitza eta karatea. Azken horretan 22 neska-mutikok jarduten du. Pilotan, ostera, 34 mutiko dabilta benjaminetan hasi eta seniorretara.

Txirringularitza taldearen konpromisoa da hainbat txirringulari proba antolatzea herrian. Horretan dabilta egunotan, Andramaixetan egingo den 70. Leintz Bailarari Itzulia gertatzen.

Areto futbolearen talde bakarra dago. Eta zalantza barik futbola da guztien artean arrakastatsuen. Bederatzi kategoria daude: kimuak, infantil txikiak, ohorezko maila, 1. mailako kadeteak, ohorezko kadeteak, 1. mailako gazteak, euskal ligako gazteak, 1. mailako erregionala eta preferentia. Horiekin batera futbol eskola jarri zuen abian iaz UDAk.

JOKIN ANTIXIA -UDA-KO PRESIDENTEA-

Beste balio batzuk bultzatu guran

Denboraldi guztian zehar ibili gara bultzatzen beste balio batzuk: gurasoentzat, jokalarientzat, entrenatzaileentzat, jarraitzaileentzat... Garbi daukagu hori ez dela berehala aldatuko, baina bidean jarri gara. Eta poliki-poliki igartzen dira aldaketak. Kirolean, eta kasu honetan futbolaren inguruan agertzen diren arazoak bizitzako edozein arlotan ikusten eta errepikatzen dira. Behar handia dago -ez bakarrik kirolean- jarrera aldaketak bultzatzeko. Azken baten, hemen bizitzen dituzte porrotak, ilusioak ez betetzea... bai gurasoek, bai jokalariek, eta horrek dakar egoera ez onartzea eta inguruko guztiekin haserretzea. Guztiok ulertzen dugunean jarrera aldaketak onura ekarriko digula, asko aurreratuko dugu.

AUZOAK > MEZAK

Auzoetako mezek aldaketak izango dituzte uztailean

M.A. > ARETXABALETA

Hil honetan jaiak dira hainbat auzotan; hori tarteko, domeketan esaten dituzten mezek aldaketak izango dituzte. Hala iragarri digute Leintz Pastoral batzordeko arduradunek.

Uztaileko lehen hiru domeketan -6, 13 eta 20- Arkarazon esango dute meza (12:30). Hilaren 10ean, eguena, San Kristobal eguna ospatuko dute Larrinoko auzo-

tarrek: Aretxabaleta abesbatzak lagun eginda meza izango dute (19:30), eta ondoren mokadutxoak.

Hilaren 25ean, Santiago eguna, Goroeta auzoan izango dituzte jaiak; horregatik, meza bertan esango dute (12:30). Eta hurrengo bi jaiegunetan ere Goroetako elizan elkartuko dira inguruko auzoetakoak: hilaren 27an, domeka (10:30) eta hilaren 31n, San Inazio eguna (12:30).



Larrino auzoan egindako jaiak San Kristobalen omenez.

GOIENKARIA

> MERKATARITZA

Gaztelu puzgarriak bihar Gurea taberna osteko plazatxoan

Jendea non, giroa han. Aretxabaleta bizirik leloarekin merkataritza suspertzeko egitasmoa jarri dute abian aurten Udalak, Aretxarte elkartek eta Erostege enpresak. Herritarrek alde egin ez dezaten, hileko zapatu baten gaztelu puzgarriak jartzen dituzte umeendako. Bihar, Gurea taberna osteko plazatxoan egongo dira (11:00-13:00).

Gainera, egun horretan Aretxarte elkarteko dendaren baten gutxienez 25 euroko erosketak eginez gero, txartelak jasoko dituzte erosleek. Txartel horiekin Kioskoan gozokiak eskura ditzakete, Brasileña kafetegian kafe bat hartu edo Orly tabernan fresagarri bat.

> ERRETIRATUAK

Kantabriara doaz Basotxoko kideak uztailearen 15ean

Basotxo erretiratuen elkarteak irteera antolatu du Kantabria aldera. Uztailearen 15ean, martitzena, egingo dute, baina izena aste bete lehenago eman behar dute bazkideek: hilaren 8an eta 9an, hain zuzen. Basotxoko egoitzatik pasa daitezela interesatuak, eta 30 euro ordaindu. Autobus bakarra jarriko dute; hortaz, argi ibili behar da.

Azbeko autobus geltokitik 08:00etan irten eta egun pasa egingo dute Kantabrian. Santoiako kontserba lantegi bat ikusten geldituko dira goiz partean, eta Isla herrian bazkalduko dute gero. Arratsaldean Santander hiriak dituen txokoak ezagutuko dituzte, eta 21:00 ingururako itzuliko dira etxera.

> KIROLAK

Udako kanpainako izenematea berriro dago zabalik

Kirol Zerbitzuek antolatutako Udako Kirol Kanpaina astelehenean jarri zuten abian. 60 bat neska-mutiko dabilta hainbat kirol jardueratan: trialsina, igeriketa, patinajea, tenisa... Oso gustura jardun ere.

Lehen txanda uztailearen 11n bukatuko dute, eta 14an bigarrenari ekin. Oraindik badago aukera bigarren txandan apuntatzeko; uztailearen 9a arte, hain zuzen. Adinaren arabera hiru talde egin dituzte, eta hainbat jarduerak daude aukeran. Gainera, taldearen eskaerak -ordutegia...- kontuan hartzen dituzte. Argibide gehiago gura izanez gero, deitu kirol etxera (943 71 26 28).

UDALA > LANPOSTUA

Informatika gelarako irakaslea aukeratzeko deialdia egin dute

Urtebeteko kontratua egingo zaio arduradunari, eta hiru urtera luza daiteke

Deialdia Gipuzkoako Aldizkarian kaleratuta, eskaerak uztailaren 17a baino lehen aurkeztu behar dira udal bulegoetan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Ekaineko osoko bilkuran erabaki zuen Udalak gaztelekuko informatika gelarako arduraduna aukeratzeko deialdia onartzea. Deialdia eguaztenez kaleratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta eskaerak aurkez daitezke uztailaren 17ra arte.

BETEBEHARRAK, BI ATALETAN

Gaztelekuko informatika gelako irakasle-arduradunaren betebeharrak bi ataletan banatzen dira: alde batetik, harrera zuzeneko

betebeharrak daude; eta beste alde batetik, programaketa eta kudeaketa. Bestalde, informatika gela zabalik egongo da astelehenetik egubakoitzera, egunero sei orduz. Era berean, jaiegunean eta abuztuan, azken astelehenera arte, itxita egongo da gaztelekuko zerbitzua.

Harrera zuzenerako betebeharren artean daude, besteak beste, nerabeen zerbitzuan sarra eta parte-hartze egokiak antolatzea, hiru hilean behin adostutako ekintzak gauzatzea eta zerbitzuaren erabilpen egokia ziurtatzea. Horiek guztiak egingo ditu, astelehenetik egubakoitzera, 16:50etik 20:10era.

Kontratua egingo diote urtebeterako

Gaztelekuko informatika gelaz arduratuko den irakasle berriari urtebeteko kontratua eskainiko dio Udalak. Dena den, bi aldeak ados egonez gero, kontratua luzatzeko aukera egongo da. Hain zuzen ere hiru urtera arte luza daiteke.

Programaketa eta kudeaketa betebeharrei, astelehenetik egubakoitzera, egunero ordu bat eskaini beharko die, eta eginkizunak hauek izango dira: gelako mantentze orokorrarekin loturiko betebeharrak –tresneria informatikoen zainketa, bulegoko materiala erostea eta zerbitzua hobetzeko proposamenak egitea, besteak beste–; gaztelekuko zabal-kunderako sorkuntza-lanekin loturiko eginkizunak; eta informatika gelaren eta gaztelekuaren arteko koordinaketa eta ebaluazio lanak egitea.

BALDINTZAK

Hautagai aproposena aukeratzeko orduan hiru atal hartuko dituzte kontuan: eskaintza ekonomikoa, suspertze programa eta zerbitzua eman behar duen pertsonaren ezaugarriak. Azken horretan beste hainbat ezaugarri hartuko dituzte aintzat: hain zuzen ere, lan esperientzia, euskara jakitea –EGaren pareko maila eskatuko dute– eta titulazioa: Informatikan, Kazetaritzan edo Arte Ederretan lizentziaduna edo Informatikan Ingeniari-tza Teknikaria izatea baloratu-ko dira gehien.



Argazkian, iazko erromesaldian parte hartu zutenetako batzuk.

GOIENKARIA

LANAK > AUZOAK

Zañartu eta Garagaltza arteko bidean argiztatze lanak egin gura dituzte

Miguel Angel Nuñez ingeniariak egindako proiektuaren arabera, argiztatze publikoa hiru fasetan egingo dute

M.B. > OÑATI

Kanposantutik Etxe Aundi jate-txerainoko bidea pertsona askok erabiltzen du paseatzeko. Horregatik argiteria publikoa jartzea erabakia du Udalak, eta lehen urratsak eman ditu dagoeneko. Hain zuzen, lanak egiteko baimena eskatuko dio Foru Aldundiko Errepide Zuzendaritzari. Izan ere, Etxe Aundi jatetxetik Zuazola zubiraino doan errepidea Foru Aldundiarena da, eta zutikako argiontzia jartzeko ezinbestekoa da Aldundiaren baimena.

LANAK HIRU FASETAN

Udal arduradunek Garagaltza eta Zañartu arteko errepidean argiteria publikoa ezartzeko

proiektua eskatu diote Miguel Angel Nuñez ingeniariari, eta proiektuaren, lanak hiru fasetan egingo dituzte: lehenengo fasean, Etxe Aundi jatetxetik Mugartza baserrirainoko argiteria jarriko dute Iberdrolak dituen zutabeak aprobetxatuz; bigarren, Mugartzatik Zuazolako errotarainoko –zubia pasa barik– argiteria jarriko dute; eta hirugarrenean, Zuazolatik hilerrirainokoa –zubia pasa ondoren. Era berean, lanok egiteko onartutako aurrekontua hiru zatitan banatuko da: lehen fasean jarriko dituzten zortzi argiontziekin 9.982 euro gastatuko dituzte; bigarren fasean 32 argiontzi jarriko dituzte eta 77.300 euro erabiliko dituzte; eta hirugarren fasean 38 argiontzi jarriko dituzte, 72.051 euroko aurrekontuarekin. Guztira, beraz, 159.332 euro gastatuko ditu Udalak argiteria ipintzeko.

Argiztatze lanak egiteko Foru Aldundiaren baimena jaso ondoren zehaztuko dute lanak nork egingo dituen eta noiz hasiko diren.

> ERASOAK

Ikastetxean izandako hiru erasoekin kezkatuta daude Herri Eskolako Guraso Elkarteak

Eskolako jolaslekua kristalez eta zaborrez zikindu, paretak margotu eta San Juan egunaren bezperan, eskolako arkupeetan, sua piztu zutela salatu du Herri Eskolako Guraso Elkarteak. Hiru erasoek "ondorio larririk" eragin ez dutela diote, baina aurrerantzean antzekorik ez gertatzeko "eskaera" egin dute.

> KONTZERTUA

Ganbara eta Hondarribiko Nayade abesbatzak emanaldia egingo dute bihar Santa Ana antzokian

Kontzertua eskainiko dute Oñatiko Ganbara Abesbatzak eta Hondarribiko Nayade Abesbatzak. Hain zuzen, bihar izango da, 19:30ean, Santa Ana antzokian. Esteban Urtzelai eta Alaitz Urkiak zuzenduko dituzte Ganbara eta Nayade abesbatzak, hurrenez hurren. Kontzertua irekia da herritar guztiendako.



TXANTXIKU IKASTOLA

Ikastolako umeak, 'Enjoy English' udalekuetan

Txantxiku Ikastolak 14. urtez jarraian *Enjoy English* ingeleseko udalekuak programa jarri du martxan. Hain zuzen, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleekin osatutako lau talde sortu dituzte. Programaren helburu nagusia da ingeleza ikuspegi ludikotik lantzea, eta, horretarako, hainbat jardura egingo dituzte uztailaren 22ra arte. Ekitaldi nagusia uztailaren 18ko *Enjoy English Show* izango da. Emanaldia bukatu ondoren, merienda egingo dute ikasle, irakasle eta gurasoek.

ONDAREA > ERROTA

Elorretako errota berrituta dago, eta asmoa da jendaurrean erakustea

Abasolo familiako hainbat belaunaldik lan egin zuten errotan, baina orain dela ia 40 urte lan hori utzi eta fabrikara jo behar izan zuten lanera

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Aurreko astean jakinarazi zuten Elorreta baserriaren alboan XIX. mendea ezkerreko zutik egon den errota berriro eraiki dutela, eta, bide batez, komunikabideei erakutsi zioten. Berez lekuz ere aldatu dute errota, Sukia enpresak Bolibarrera bidean eraiki dituen etxebizitzak egiteko Elorreta baserria eta errota, biak, bota zituztelako.

Udalak hala eskatuta, baina, errota berriro eraiki du Sukiak, eta Ibarraundi museoaren arduradunen asmoa da hurrengo ikasturtetik hasita jendaurrean erakusteko bisitak antolatzea.



Errotako jabe eta langile izandako Anbroisio Abasolo, gaur egungo errota eraberrituaren ondoan.

IKER BARANDIARAN

Etxebizitza berriak eginen hasi ziren arte, Anbroisio Abasolo eta bere familia bizi ziren Elorreta baserrian. Abasolo han jaio zen eta baita bere aita ere. Aita-

jauna errentan bizi zen Elorretan, baina, halako baten, jabea-ri, Hidalga jauntxoari, baserria erosi zion. Abasolok ez daki lehenengo errota zehatz noiz eraiki

zuten, baina badaki 1927an erre egin zela eta hura ordezkatzeko beste bat eraiki zutela. Aitajau-nak, aitak eta hirurek errotan lan egin zuten, orain dela 40 bat urte

arte, eskaerarik ez zutelako. Orduan, errota albo batera utzi eta fabrikari lanean hasi zen Anbroisio Abasolo.

LAU ERROTA UDALERRIAN

Abasolok kontatu digu errotan garia, artoa, pentsua eta beste eginen zutela; eta horren ondorioz, baserri askotatik, Marindik, Leintz Gatzagatik eta beste, jende ugari joaten zela eurengana. Horrez gain, behiak ere bazituzten eta esnea saltzera jaisten ziren herrira. Azkenean, baina, errota utzi beharrean izan ziren.

Abasolok gogora ekarri digu iraganean lau errota izan zirela udalerrian: Marulandakoa, Gaztañaduikoa, Bolibarkoa eta Abasolo familiarena. Laurek zutik jarraitzen dute, baina ez daude lanean.

ERAKUSTEKO ASMOA

Ibarraundi museoaren asmoa da tarteka Errotalde errota mar-tan jarri eta ikusi gura duten-dako bisitak antolatzea. Hori, baina, datorren ikasturterako egingo dute.

ERLIJIOA > OSPAKIZUNA

Jose Pablo Madinabeitia, 50 urtez karmeldar fraidea

Madinabeitiak meza esango du domekan Aretxabaletako mojen elizan, 12:00etan

I.B. > ESKORIATZA

Jose Pablo Madinabeitia Aretxabaletan jaio zen orain dela 77 urte, baina zazpi hilabeterekin Apotzagara eraman zuten familiak. 13 urterekin Alesbesera (Villafranca, Nafarroa) jo zuten ikasketak egitera. Hainbat eskolatan ibili ostean, 1958ko uztailaren 6an Begoñan (Bilbo) karmeldar fraide ordenatu zuten, eta urte bereko uztailaren 24an meza nagusia esan zuten Apotzagaran.

KOLONBIAN 36 URTE

Horren ostean, Begoñan bi urte egin zituen, baina 1968an Kolonbiara jo zuten. Kolonbian, Tumacoko misioetan 36 urte egin zituen. Han denetatik egin zuten: "Elizak, eskolak, etxeak... Dene-tatik eraiki genuen. Inoiz lurrikararen batek eliza eta etxeren bat bota zigun, baina berriro al-txa genituen", azaldu zigun Madinabeitiak. Bihotzean dau-

ka Kolonbia, eta esan digu penaz etorri zela: "Karmeldarrek handik etortzeko eskatu zidaten. Pena handia eman zidan, urte eta bizipen asko egin ditut han".

MISIOETAKO ALDIZKARIAN


Ordutik hona Donostian dago, misioetako *Obra maxima* aldizkarian administrazio lanean.

Karmeldar ordenatu zuteneko 50. urteurrena ospatzeko, Madinabeitiak meza esango du Aretxabaletako mojetan (12:00), eta bazkaria izango da ostean.



Jose Pablo Madinabeitiak (erdikoa) 1958ko uztailaren 24an esan zuten lehenengo meza nagusia Apotzagaran.

GOIENKARIA



FAGOR 

Fagor Ederlan, Elk. Koop.

Torrebaso pasealekua 7
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa

Tel.: +34 943 71 90 00
Faxa: +34 943 71 90 01



JAIK > SAN PEDROAK

Jai parte-hartzaile eta jendetsuak izan dira

Pozik daude Udaleko Kultura Saila, tabernariak eta herritarrak: aurtengo San Pedro jaietan eguraldia eta parte-hartzea onak izan dira

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Eskoriatzarrek gogoz hartu eta bizi izan dituzte aurtengo San Pedro jaiak. Hala jakinarazi du Udaleko Kultura Sailak.

Asteburuan bakarrik ez, aste barruan ere ekitaldi ugari egin dituzte martitzen gauera bitartean, eta herritarren erantzuna oso ona izan da.

EGURALDIA ERE, LAGUN

Kultura Sailaren ustetan, arrakastaren arrazoiak izan dira, batetik, eguraldi ona egin duela; eta bestetik, Santa Marinako gune berria, herriko plaza eta beste gune batzuk tartekatuta ekitaldi gehiago egiteko aukera izan dutela: "Oso hutsune gutxi egon dira, eta ia uneoro ekitaldiak egin ditugu. Eta herritarrak oso gustura ibili dira".



Mus txapelketan adin askotariko 38 bikotek esku hartu zuten. IKER BARANDIARAN



Euskal jaietan ezin da sagardorik falta izan. MIKEL SAIZ



Kart pistan ederto gozatu zuten gaztetxoek. MIKEL SAIZ



Danborradako parte-hartzaile txikiak. AITOR AGIRIANO

IKUSKIZUNAK > ERREKAN GORA JAIALDIA

Txatarrerria Keaton, uztaila hasteko

Errekan Gora jaialdiaren barruan, zapaturo ikuskizunak egingo dituzte, doan, herriko lau lekutan; bihar egingo dute lehenengoa

I.B. > ESKORIATZA
Udaleko Kultura Sailak, Arriola eta Aitzorrotz kultura elkarteekin batera, antolatutako Errekan Gora jaialdia bihar, zapatua, hasiko da.

Jaialdi berri horren barruan, uztaileko lau zapatuetan doaneko ikuskizunak egingo dituzte herriko lau puntutan. Horretarako, Musikaire jaialdia antolaten duen Arriola kultura elkartearen lankidetzan izan du Udalak. Eta horrez gain, herriko Aitzorrotz kultura elkarteak lagunduko du ekitaldi bakoitzerako ekoizpen lanak egiten.

BUSTER KEATON, ABIAPUNTU

Bihar, zapatua, egingo dute lehenengo ikuskizuna. Txatarrerria Keaton taldeak ikus-entzunezkoa egingo du herriko plazan, 23:00etan.

Txatarrerria Keaton ezohiko taldea da. 20ko hamarkadako zinemagile Buster Keatonen filmak abiapuntu hartuta sortutako taldea da. Eskarmentu handiko musikariek osatzen dute: Arturo Blasco, Bingen Mendizabal, Nika Bitchiasvili eta Alex Ruiz de Azuak.

Bingen Mendizabalen esanetan, zinemaaretoetan seriotasun eta isiltasun larregi egoten da: "Guk akzioa egotea gura

dugu; ikusleak ez daitezela isilik egon. Euren artean berba egin dezatela, barre egin dezatela... Filmak horrela ikusi beharko lirakeke. Eta gure ikuskizunetan hori lortzen dugu".

BIRZIKLAPENA ETA 'TXATARRA'

Taldekoen esanetan, Buster Keatonek filmak edozein erreminta erabilia egiten zituen; eta eurek musika ere hala egiten dute: "Biolina, zerra, txistuak, aluminio kapak, enbolo txirula eta beste erabiltzen dugu. Elkarrekin ginen lehenengo egunean esan genuen soinu txatarrerria egiten genuela".

ZAPATURO, IKUSKIZUNAK

Hilaren 12an, Teatrino Dei Piedi arituko da Gernika plazan; 19an, Logela Multimediaren Mokaua ikuskizuna Huheziko klaustron; eta 26an Fado Em Si Bemol taldea Santa Marinan.



Errekan Gora jaialdiaren kartela.



LENIZ
ESKORIATZA



- Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
- Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

bere ustez



Amaia Olabarria

Jaixak juan
eta jaixak
etorri

Kalebarrengo jaixak pasau berri dauzku, eta ezer baino lehen, zorionak antolakuntzan ibili dien neska gazteiei. Mutil kuadrila edarra ikusi neban arbolia ekarri eta jasotzen, baina ostientzeko lan danetan neskek nagusi, etxe gehixenetan pasatzen dan moduan.

Antzuolako jaixak pe gainian dauzku, eta kanpua bizi dan hau, lanian jai hartu, eta urtero bezela herrira bueltauko da. Etxian sarritan entzun dot nik honezkerro eztaukatela parrandarako

"Gurasuentzat
parrandarako
gaztegi izatetik
zaharregi izatera
pasatzen gara"

edaderik, baina eztoz uste horretarako edade jakin bat dagonik. Izen be, gurasuentzat parrandarako gaztegi izatetik zaharregi izatera pasatzen gara gabetik goizera.

Guraso askoren kontua izaten da, inon semia gaupasa einda ikusi, eta pasa-pasa einda ezpadago behintzat, zelako grazioso zeuan esatia. Norberan etxekua gaupasaz egon ezkerro, grazia gutxi orduan! Eta hontan be, neska izan ezkerro artian txarrrago!

Bestiak ze esango begira ezingo ga egon beti; zahar edo gazte, egun edo gau, ur edo ardao, jaixetan ondo pasau! Eta bide batez, jaixetan herrixan egoterik eztaukan Eltzikortai besarkada haundi bat!



IRATI AGIRREAZALDEGI

Errekaldeko parkea, konponduta

Umeendako jolasparkeak konpontzen dihardu Udalak eta Errekaldekoaren txanda izan da oraingoan. Jolasak bateratu eta konpondu eta zoru berria ipini dute parkean. Jolaslekuen gaineko azterketa egin zuten eta baliteke hurrengo pausoa Beheko auzoko kantxa gorrian jolastokia ipintzea izatea. Baina zehazteke dago gunea nola egokituko duten.

> JAIK
Mairuaren Alardea
ordu erdi atzeratuko
dute aurten

Aldaketa nagusiak datorren urtean egingo badituzte ere, aurten ordutegian izango du aldaketa Mairuaren Alardeak. 18:00etan hasi beharrean 18:30ean hasiko da desfilea. Bestalde, mairuaren papera egin duen Salvador Peñak aurten izango du azken aldia.

> KIROLA
Herriko pilota
txapelketako finala
uztailaren 11n izango da

Olaldeko antolatutako herriko pilota txapelketak baditu finalistak: Josu Agirre eta Gotzon Zabalo, batetik; eta Iker Irizar eta Andoitz Aranburu, bestetik. Baina baliteke finala azken horren ordezkioak jokatu behar izatea. Partidua uztailaren 11n izango da, iluntzean, frontoian.

Kontxi Laskurain > Anelkarreko kidea

"Anelkarren proiektuen
berri eman nahi dugu
herrian jai baten bidez"

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA
Anelkar elkartean taldeak afari solidarioa eta guatekea antolatuko dituzte uztailaren 12rako. Afarirako txartelak 20 euro balio du eta guatekera soilik joan nahi duenak 5 euro ordaindu behar ditu. Dirua hiru herrialdeetako proiektuei laguntzeko izango da.

Nola bururatu zitzaizuen jai
antolatzea?

Aurten zerbait berezia egin nahi genuen, Anelkar ofizialki hasi zenetik hamar urte betetzen direlako. Afaria eta osten guatekea izango da Antonio Deograsiasek ipinitako 70eko hamarkadako musikarekin.

Dirua Anelkarren proiektu-
endako izango da, ezta?

Bai. Ekitaldi kulturalekin, arazoak baino gehiago ekitaldiak berak hartzen du garrantzia eta jendea ez da oharitzen elkartean zentzuaz. Hortaz, aurten azaldu nahi dugu zertan diharduen Anelkarrek.

Zein dira proiektuak?

Brasilen, Curaçan dago Juan Antonio Lizarralde abadea, eta abade etxea gertatu nahi dute, teknologia berriekin, landa hezitzaileei formazioa emateko. Senegalera joaten da urtero Cristina Bakaikoa kooperante, eta nesken eskola batean ikasleendako logelak eraiki



Kontxi Laskurain.

I. AGIRREAZALDEGI

eta jantzi nahi dituzte. Kongora joaten dira Bittor Arbulu eta Antzuolan apaiz egondako Tomas Madinabeitia. Kapiri herrian bigarren hezkuntzako pedagogia eskola amaitzeko eta ura kanalizatzeko asmoa dute. Bestalde, bi moja, Ana Maria Iturbe eta Antonia Etxezarreta, misioetan daude eta haiei ere bidaltzen diegu laguntza.

Zein erantzun espero duzue?

Herritarrek parte hartuko dutela uste dugu. Proiektuetarako dirua ez da Antzuolatik bakarrik ateratzen, baina dago-kiguna emateko adina ateratzen dugu, herritarrek beti ematen dutelako errazago antzuolarrak sartuta dauden proiektuetarako dela jakinda.



zabalo
IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.

Tel. eta faxa:
943 76 60 89

ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak

Bainugela eta sukaldea

Lokal komertzialak

Teilatuak

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatze eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaza

**Zoruen kutxilatze
eta
bernizatzea**

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR

taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaza

**Apainketarako eta
industriarako pinturak**

Paper margotuak

Moketak eta tapizatuak

Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

HIRIGINTZA > URIBURUKO ETXEBIZITZAK

Eman dute okupazio baimena Uribururako

Astelehenean argia kendu egin zuten, Iberdrolak transformadoretik etxebizitza berrietarako argindarra emateko

IRATI AGIRREAZALDEGI > ELGETA

Udalak astelehenean eman zuen lehen okupaziorako baimena Uriburuko etxebizitza berrietarako. Jabeak hilabete luzetan daude zain, eta, baimena esku artean dutela, jabetzako eskriturak sinatzea baino ez zaie geratuko euren etxeetara bizi izatera joateko.

Astelehenean bertan Uriburrun argi mozketara egin zuten, Iberdrolak transformadoretik hartzea egin eta etxebizitza berrietarako argindarra emateko.

KEXA ATZERAPENENGATIK

Okupaziorako baimenen harira, Elgetako Abertzaleak udal taldeak maiatzaren 29ko udalbatzarrean ardura azaldu zuen atzerapenengatik: "Hirigintza batzordeburuari epe zehatza emateko eskatu genion. 20-30 eguneko epean beharrezko baldintza guztiak beteko zirela agindu zigun. Ekainaren 29a pasa da eta espaloiak amaitu gabe daude tasatutako etxebizitzaren aurrean, ez dago argindarrik..."

Elgetako Abertzaleak udal taldeak hauxe dio: "Beste behin ere alkateak eta Elgetako Aralarrek ez dute hitza bete". Bizilagunen keak direla-eta ekainaren 26ko osoko bilkuran lehen okupaziorako baimena ematearen aldeko botoa eman zutela diote: "Larregizkoa delako zortzi hilabeteko atzerapena eta nahikoa sufritu dutelako bizilagunek".

Elgetako Aralar-Independenteak taldeak, Elgetako Abertzaleek hedabideetan esandakoei erantzunez, hainbat argibide eman ditu. Jakinarazi du otsailaren 11ko Hirigintza batzordean esan zuela "urbanizazio lanei



Uriburrun etxebizitza erosi dutenak luzaroan daude sartzeko zain.

GOIENKARIA

hasierako harrera egiterakoan, lehenengo harreratik kanpo geratuko zirela tasatuen partzela eta partzelaren inguruko urbanizazioa". Gaineratu du hurrengo hilabeteko Hirigintza batzordean argitu zuela. "Batzordean EAJ-EAko ordezkari Joseba Muxika zegoen eta ez zuen eragozpenik ipini. Batzorde horretan Hirigintza batzordeburuak azaldu zuen proiektuak ez duela jasotzen tasatuetatik datorren espaloia Kantoiatik datorren espaloiarekin lotzea". Hori guztia apirilaren 3ko udalbatzarrean onartu zutela ere badio.

Aralar-Independenteak taldeak dio hilabeteak daramatzatela "proiektuaren gabeziak konponetzen eta proposamenak egiten: espaloien arteko lotura, kaleko altzari merkeagoak, San Roke oatea egokitzea, transformadorea... EAJ-EAK ez dezala ahaztu transformadorearen gaia izan dela Uriburuko etxebizitzak atzeratzearen arrazoi nagusia eta elgetar guztion diruarekin ordaindu dugula bere arduragabekeria".

Bestalde, zera diote: "Espero dugu epe motzean Uriburrun etxebizitza erosi dutenak bertan bizitzeko ipintzea".

AZPIEGITURAK > ERREPIDEAK

Saihesbidearen bigarren faseko proiektua onartuta

Bi biribilgune berri eta tunel artifiziala izango ditu 1,1 kilometroko luzera duen saihesbideak

I.A. > ELGETA

Elgetako herrigunean, GI-2632 errepidearen saihesbideko bigarren zatia zehazten duen trazatu proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. 2005. urte amaieran zabalduko saihesbidearen lehen fasearen luzapena da.

Saihesbidea herrigunearen iparraldeko ertzetik joango da eta enborrak 1.100 metro izango ditu. Obrak egiteko epea, gutxi gorabehera, hamazazpi hilabetekoa da, eta oinarritzko aurrekontua, 11.449.390 euro.

SAIHESBIDEAREN TRAZATUA

Egungo GI-2632 errepidean egingo duten biribilgune berri batean hasiko da saihesbidea, Bergaratik Elgetara igotzen den errepideko zatian, herrigunetik 400 metro ingurura.

Muinoko lekuri gorenera iritsita, lubaki bidez zeharkatuko du, eta zati batean tunel artifiziala egingo dute.

Horren gainean berregingo duten GI-2639 errepidearen bidegurutzea pasa ostean, biribilgune berri batera iritsiko da bidea. Bidegurutze horrek lau beso izango ditu, bi saihesbide-

koak eta beste bi GI-2632 errepidearen lotunekoak; Eibarrentz joateko bat eta bestea Elgetako herrigunera joateko.

Saihesbidearen amaierako zatia zuzena da eta biribilgune berria saihesbideko lehen faseko amaieran egindakoarekin lotuko du.

Proiektuaren arabera, bidea bera lehen fasekoaren antzerakoa izango da. Hau da, 3,50 metroko zabalera bi bide izango ditu, eta ertzetan metro bateko bazterbideak eta 0,75 metroko bermak.

TUNELA

Proiektuan pisuzko obra bakarra egitea aurreikusi dute; muinoko lubakiaren ingurumen eragina murrizteko proiektatu den tunel artifiziala egitea eta horren gainean GI-2632 errepideko bidegurutzea berregitea.

Tunelaren zati estalia 70 metro luze izango da -95 metro hegalkinak gehituta - eta barruko sekzioa 11,60 metro diametrokoa izango da.

Hortaz, aurki hasteko moduan izango dira herri barruko zirkulazioa arinduko duen saihesbideko lanekin.



Bergaratik Elgetara datorren errepidean hasiko da saihesbidea.

GOIENKARIA

> KIROLA

Intxortako Lehoiek azokako produktu sorta zozketatuko dute

Intxortako Lehoiak Athleticzaleen taldeak zozketa egingo du jailetako domekan. Azokako postuetan goizean goiz erosiko dituzte produktuak eta horrekin beteko dute eskorga bat. Kaleetan barrena ibiliko dira zozketa txartelak euro baten truke saltzen eta 14:00etan egingo dute eskorgaren zozketa plazan. Dena dela, jadanik badago txartelak erosteko aukera herriko tabernetan.

Bestalde, Intxortako Lehoiak taldeak aurki pinak ateratzeko asmoa dauka taldearen logotipoarekin. Intxortako haize-orratza aukeratu dute taldekideek irudi moduan.

> ERRETIRATUAK

Uztailaren 10erako eman behar da izena Arrateko jairako

Urteroko ohiturari jarraituz, Debarrenen Erretiratuen Elkarteak jaieguna antolatu du. Arraten izango da, uztailaren 17an, egunean. Joan-etorria doan izango da. Bazkaria, berriz, nor berea eramateko aukera dago edo Krabelin jatetxean bazkal daiteke. Jaian parte hartu nahi dutenek Pedro Mari Uberari eman behar diote izena uztailaren 10a baino lehen, eta non bazkalduko duten jakinarazi. Bestalde, egun hori izango da azkena Gipuzkoako Erretiratuen Elkarteak antolatuta Erreterian urriaren 19an egingo den ibilaldi neurturako izena emateko.

> AISIALDIA

Maalako parkean igerilekuak ipiniko dituzte uztailean

Iazko udan bezala, aurten ere igerileku eramangarriak ipiniko dituzte Maalan uztailean. Udalak ez ditu datak zehaztu; izan ere, eguraldiak zeresan handia du horretan, baina asmoa da jaian ostean uztaileko bi egunetan ipintzea igerilekuak. Seguru aski, iaz beste igerileku ipiniko dituzte eta herritarrek ere izango dute aukera igerileku puzgarririk edo eramangarriak izanez gero Maalan ipintzeko. Iaz araudia betetzen ez ote zen zalantzak sortuz ziren; hortaz, aurten Osakidetza joko du Udalak instalazioen eta zerbitzuen berri emateko eta erabat zuzen jokatzeko.

ZORIONAK ELGETAR GUZTIOI!

OSMA

PIEZEN AUKERATZEA ETA EGIAZTATZEA

Salvador kalea 19 behea • 20690 ELGETA

Tel.: 943 76 81 27

Mobila: 677 03 27 39

KIROLA > TXIRRINDULARITZA

Dorletako Ama txirrindulari lasterketa jokatu da domekan

Antolatzaileek uste dute 100 bat txirrindulari izango direla irteeran, eta 119 kilometro egin beharko dituzte Debagoiengan

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Dorletako Amaren omenez antolatutako txirrindulari lasterketak 30. urteurrena betetzen du aurten. Domekan jokatu dute (10:00), eta 23 urtez azpiko eta elite mailako 100 bat txirrindulari izango dira Gatzagako hasiera puntuan, Txirrindularitza Batzordekoen esanetan.

IAZ, ERDIEK BAKARRIK BUKATU

Ez dago aldaketarik ibilbidean, eta, azken urteotan legez, Debagoiengan zehar ibiliko dira txirrindulariak. 10:00etan irten eta Bergararaino joango dira lehengo itzulian; Mayc lantegia dagoen lekuan buelta eman eta, Gatzagatik gora, Arlabaneraino igoko dira. Ondoren, beste bi itzuli emango dituzte Arrasateraino, eta 119 kilometro ibilitakoan, Gatzagako helmugara iritsiko dira. Hori 12:45 inguruan izango delakoan daude antolatzaileak. Parte-hartzeari dagokionez, "iaz 95 txirrindulari batu ziren, eta aurten ere antzera izatea gurako genuke", esan digute. Baina ez da proba samurra; iaz, esaterako, irteerako 95 txirrindularie-



Txirrindulariak, Gatzagatik pasatzen.

TXIRRINDULARI BATZORDEA

tatik 48k bakarrik bukatu zuten. Dorletako Ama txirrindulari lasterketa iraileko jaietan egiten zuten lehen-orain dela hiru urte arte-, baina, denboraldi bukae-

ra izanda, oso txirrindulari gutxi etortzen zelako, aldatzea erabaki zuten. Iraileko jaietan, mendiko bizikleta zeharkaldia egingo dute, azken urteotan legez.



Herritarak, Zurtitzako San Martinen ermita aurrean.

GOIENKARIA

OSPAKIZUNA > SAN MARTIN EGUNA

San Martin ospatuko dute domekan Goierriko ermitan

Meza izango da 12:30ean eta, ostean, mokadutxo eskainiko die Udalak elkartutakoei

M.A. > LEINTZ GATZAGA

Etzi, domeka, ospatuko dute gatzagarrek Zurtitzako San Martin eguna. Ohiturari jarraituta, Goierri auzoan dagoen ermitara joango dira uztaileko lehen domekan herrian bertan eta baserrietan bizi diren gatzagar asko.


MEZA OSTEAN, MOKADUTXOA

Domekako meza Dorletako Santutegian esan beharrean, San Martinen ermitan esango dute, 12:30ean. Ondoren, mokadutxo eskainiko die Udalak elkartutakoei, musika lagun dutela: patata tortilla eta frijituak. San Martin eguneko ohitura da mokadutxo egin bitartean dokean jokatzea gizezkoek,

baina azken bi urteotan ez dute halakorik egin herriko nagusienek. Izan ere, txirrindulari lasterketa antolatzen dute egun horretan, eta, ordu berean izaten denez helmugara helduera, gizon askok nahiago izaten dute herrian geratu.

ANTZINAKO PARROKIA

Herria pasatu, Gasteizera bidean, eta errepedetik eskumara geratzen da Goierri auzoa. Bertako ermita parrokia izan zen antzina, baina 1331n, herria sortu zenean, hain zuzen, San Millango eliza nagusiaren menpe geratu zen, gainontzeko auzotako parrokiak legez. Aspaldiko ponte edo bataiarria oraindik ermitan daukate.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak

- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxe: 943 77 14 76

Andoni Saenz de Buruaga > Arkeologoa

"Sahararrei euren nortasuna eraikitzeke baliozko laguntza ematea da helburua"

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

Andoni Saenz de Buruaga arkeologoa da eta Mendebaleko Saharako ondare kulturala aztertzen dihardu azkeneko bost urteotan. Eguean hitzaldia egin zuen Aramaion, azken urteotan Saharan egiten diharduen lanaren inguruan.

Zertan datza Saharan egiten diharduzuen proiektua?

Orain dela bost urte hasi genuen proiektu hori, eta bi oinarri batzen ditu: bata, azterketa arkeologikoarena; eta bestea, kooperazioarena eta solidaritatearena. Tiris izeneko eskualdean egiten dugu lan eta proiektu horren helburua da Mendebaleko Sahararen ondare kulturala eta iragana ezagutzea. Horretarako, ikerkuntza modu desberdinak erabiltzen ditugu: arkeologia, etnografia, toponimia eta errekurtsu naturalak, besteak beste.

Proiektuak oinarri solidarioa ere baduela esan duzu.

Bai, horrela da. Mendebaleko Saharan lan egiteak bertan bizi duten errealitate eta egoera politikoan inplikatzeko eskatzen du. Desertuan eta kanpaleku batzuetan bizi diren eta legitimoki lurralde bat eskatzen duten pertsona batzuek bizi duten errealitatearekin inplikatzeko. Gure solidaritatea sahararrei jakintza eta aberastasuna eskaintzea da, nortasun agiri propioa eraiki dezaten.



Andoni Saenz de Buruaga arkeologoa da eta Saharan dihardu lanean azkeneko bost urteotan.

A. SAENZ DE BURUAGA

Beraz, formazio lan garrantzitsua dute espedizio hauek?

Bai. Gu ez gara Mendebaleko Saharara curriculum egitera joaten, zenbait arkeologo joaten diren moduan. Gure helburua da Saharako herriari baliozko laguntza eskaintzea. Etorkezuean, guk lana egiten dugun inguruan, arkeologia zentro bat eraikitzea litzateke gure asmoa. Saharrek eurak kudeatuko dutena. Guk informazioa eta informazio

"Bi oinarri batzen ditu proiektu horrek: arkeologiarena eta solidaritatearena"

"Desertuan egiten dugu lan, Tindoufeko kanpalekuetatik 1.200 kilometrorra"

hori lortzeko bideak eskainiko dizkiegu. Azken baten, sahararrak dira euren ondarea eraiki behar dutenak.

EHUko irakaslea ere bazara. Nola tartekatzen dituzu eskolak eta espedizioak?

Hezkuntzak libre uzten dizkidan momentuak aprobetxatzen ditut arkeologo independente bezala espedizioak egiteko. Orain arte espedizio bakarra egin dugu

urteko. Zorionez, aurten bi bider joango gara Saharara. Otsailean izan ginen han, eta irailean joango gara berriz. Beharrezkoa ikusten genuen espedizio gehiago egitea. Izan ere, hilabete inguruko espedizioak izaten dira, baina egun asko galtzen dira tartean. Tindoufeko kanpalekuetatik 1.200 kilometrorra egiten dugu lan, desertuan, eta auto bakarra izaten dugu. Ez da erraza lurralde horietan lan egitea, hango egoerara eta baliabideetara egokitu behar dugulako. Espedizioa 25 egunetik, 15 egun dira benetan lanean igarotzen ditugunak.

Zenbat pertsona joaten zarete?

Lehen esan bezala, hango baliabideetara egokitu behar izaten dugu, eta auto bakarra izaten dugu; horrek asko mugatzen gaitu. Sei pertsona joaten gara. Hiru euskaldunak eta beste hiru sahararrak. Taldeak parekatuak izaten saiatzen gara.

Zer du berezia Saharan egiten diharduzun lanak?

Saharako proiektua oso berezia da niretako. Egin ditudan proiektu guztiak ikerkuntzara bideratuak egon dira. Baina Saharako honek niretzat oso garrantzitsuak diren bi faktore batzen ditu: bata, iragana ezagutzeko daukadan pasioa; eta bestea, Saharako herriarekiko solidaritatea. Pribilegiatua naizela uste dut.



ARAMAIOKO UDALA
ARABA

"Aramaioko Udabatzak Jai zoriontsuak opa dizkizue aramaioar guztioi, eta bereziki etxetik kanpo zaudeteno!"



Bizente Goikoetxea plaza 1 • ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 16
• E-posta: udala@aramaio.org





agurra

Asier Agirre > Alkatea

Aurten ere etorri dira San Martinak, lan egunak alde batera utzi eta festa garaia heldu da.

Urtebete pasatxo da udalean lanean gabiltzala, gauzak hobetu nahian; herria herri egiteko ahaleginean; auzoak eta kalea, kaleak eta auzoak bateratzeko helburuan; energia bila; ondarea jaso eta berreskuratzeko gogoarekin; egunean eguneko lanak ahalik eta ondoen egin nahian...

AHT ere badator herriari entzungor eginez, galdetu genuen eta herriak argi eta garbi erantzun zuen: EZ, ez dugu nahi horrelako makroproiekturik gure herrian, dena suntsitu besterik ez du egingo.

Herriko presoak ere gogoran, egun hauetan festa giroan, beraiek ere hemen beharko lukete gure artean... garaia da... Presoak etxera!

Udalbatza berri honetatik ahalegin guztiak egingo dugu, zuengandik jaso dugun aginduari, egoki erantzuten.

Eta aurtengo San Martinetan, herritar guztiak gogoran izan gura ditugu, bereziki askatasunik gabe ditugun herriko presoak.

Udalaren izenean, jai mundialak ospa ditzazuela!

SAN MARTINAK > ARAMAIOKO JAI NAGUSIAK

Dena gertu, gaur arratsaldeko txupinazoarekin jaiei ekiteko

Jai batzordea herritarrak zirikatzen ibiliko da gaurko bertso-poteoan, bihar eguerdian egingo duten patata tortilla txapelketan parte hartzeko

XABIER URTZELAI > ARAMAIO

Gaur, 19:00etan hasiko dituzte Aramaion jaiak, eta, alkateak ondoko zutabearen idazten duen moduan, lan egunak alde batera utzi eta festa egiteko ordua izango da. Jai batzordeak, baina, ez du errukirik, eta jaiegunean ere lanean jarri gura ditu aramaioarrak. Zertan? Patatak zuritzen, kipula mozten, arrautzak irabiatzen... Bihar eguerdian egongo da zeregina (12:30). Patata tortilla txapelketa antolatuta dute bihar, eta Jai batzordeko kide Aina Inuntziagak aitortu du lehenengo urtea izanda hitzordu hori bultzatu gura dutela: "Badakigu jendeak azken unera arte itxaroten duela; horregatik ez dugu aurrez izenik hartu. Hala, jendea animatzeko gaurko bertso-poteoan zirikatzen ibiliko gara".

Batzordeak erraztasun guztiak jarriko ditu: "Patatak, arrautzak eta gatzak guk jarriko ditugu, eta hortik aurrera norberak

jakingo du beste zer bota behar dion tortillari. Hori bai, tortillak egiteko sua, zartagina eta gainontzeko tresnak norberak eraman beharko ditu". Eta epaileek -herriko hiru *entendidu*- ondokoa hartuko dute kontuan: tortillaren itxura, zaporea, egitura eta originaltasuna.

Laguntze aldera, Karlos Argiñanok eguazteneko telebista saioan aitortu zuen patata tortilla ona egiteko sekretua kipulak ondo egitean dagoela, ez dagoela besterik. Bihar maila eskasa badago, hurrengo urterako batzordeak badaki nor gonbidatu; Argiñano jaietan ez da lekuz kanpo egongo.

HERRI KIROLAK

Dagoeneko ohitura bilakatu den *Kuadrilen arteko pikie*-n eta Txiritolinpiadetan izerdi batean ibiliko da bat baino gehiago, eta domeka arratsaldean (17:00) herri kirolak egingo dituzte. Hitzordu horretan, baina, aramaioarrek -eta jaietara animatzen diren gainontzekoeek- ikusle lanak egingo dituzte, Nafarroako koardila bat etorriko da-eta, besteak beste, aizkoran eta trontzan egin eta harriak jasotzera.

Beste berritasunetako bat dira domekan bertan egingo dituzten bertso monologoak (19:00). Horretarako, baina, ez dago kanpoko jendea ekartzeko beharrik, *Aramaioko historia gaur egungo begietatik* izenburu-



Txapelketan itxura, zaporea, originaltasuna... hartuko dira kontuan.

GOIENKARIA

pean Manex Agirrek jardungo du-eta, lagun gehiagorekin batera, bertsoan.

Nobedadeekin batera, baina, urtero egiten dituzten eta jendearen erantzun bikaina duten beste hitzordu mordoarekin osatu dute jai egitaraua. Tartean dago, esaterako, Kurtzeta-Gain taldeak antolatzen duen plater tiroketa jardunaldia, bihar 17:00etan, Kurtzetan. 15 plateretara izango da lehiaketa (izenematea, 10 euro)

eta 40tik gora tiratzaile espero dituzte. Parte hartzeko, Kurtzetara joan beharko da, ordu erdi lehenago.

Abesti mexikarrak gustuko dituztenek Real Azteca taldea izango dute zuzenean bihar 20:00etan, eta baita erromeriak ere, gaur eta bihar. Doinu gogoragoak atsegin dituztenek ere izango dute zer aukeratu. Rock kontzertuen gaineko informazioa, ondoko orrian.

ITURRIOSTE GARAJEA

Nekazaritza makinaren eta autoen
salmenta eta konponketa.

Olio, gorpil eta balazten konponketa

Ondo ibili jaixetan!!

Santi Kurtz plaza 14.
Tel.: 945 44 51 28. ARAMAIO

UXARTE



- Bost logela komunarekin
- Afariak
- Internet WI-FI sistemarekin

Nekazaturismoa

Untzilla (Aramaio) • Tel.: 945 44 51 46 Faxes: 945 44 59 10 • Uxarte@euskalnet.net • www.uxarte.net



BEHI-ALDE ERKOP

BEHI-ALDE, KOOP. E.

Olaeta-Aramaio (Araba)

Zuzenbide postala

Apartado 44

20500 Mondragon



Tel.: 945 45 01 00

945 45 03 15

Faxa: 945 45 01 00

945 45 03 15

Iturrieta Sagardotegia

Astehenetan
itxita



Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!

Bertako sagardoa
Hamarretakoak (astebukaeretan)
Plater konbinatuak
Sagardotegiko menua
Menu bereziak

ITURRIETA BASERRIA - ARAMAIO (ARABA) - TEL.: 945 445 385 - 685721593

Jai egitaraua

4, barikua

19:00: Jaien hasiera, plazan, txupinazoarekin.
19:10: Bertso-triki poteoa.
20:30: Papargorri abesbatzaren emanaldia kultura etxean.
23:00 Erromeria: Tximeleta taldearekin plazan.
23:30: Rock kontzertua:
Anestesia
UEK
Feos Pero Majos.
00:00-03:30: Testing drogak.

5, zapatua

12:00: Herriko Buruhandiak.
12:30: Patata tortilla txapelketa.
12:30 Umeendako tailerrak.
12:30: Herriko trikitaliak kalean zehar.
17:00: Mus eta briska txapelketa, erretiratuenean.
17:00 Plater tiroketa Kurtzetan.
17:30: Espuma jaiak plazan (eramam bainujantzia).
18:00: Txirritolinpiadak. *Txirrikola* freskagarri berria banatuko du Txirritolak.
20:00: Real Azteca mexikarren emanaldia plazan.
23:00: Luhartz taldearekin erromeria plazan.
23:30: Rock kontzertuak txosnetan: The Budchers
Sanlo Garage Brothers
Sociedad Korrupta
Sweet Rockers
Xementerio.

6, domeka

12:00: Meza Santua.
12:30: Txaranga herrian zehar.
13:00: Herriko dantzarien saioa, plazan.
16:30: Jolasparkea, Bañeran.
17:00: Herri kirolak plazan.
19:00: *Aramaioko historia gaur egungo begietatik*, bertso monologoak kultura etxean.
19:30: Bentazarreko mutiko alaiak. Kantuak kalean zehar.
22:30: Diskoteka plazan.
23:00 Ain 1 taldearen kontzertua.

7, astelehena

11:30: Umeendako jolasak parkean.
12:00: Meza Santua.
13:30: Marshall magoa plazan.
16:30: Koadrilen arteko pikie.
19:00: Arrasate Musikaleko kontzertua kultura etxean.
21:30: Herri afaria. Afalostean Orkestra taldearen musika emanaldia.
00:30: DJ festa txosnetan.

12. zapatua

Arrantza txapelketa goizean zehar.
19:00: Herriko gazteek pilota partiduak jokatuko dituzte.
21:30: Bertso afaria.
23:00 Pilotari profesionalak.

MUSIKA > KONTZERTUAK

Anestesia, UEK eta Feos Pero Majos taldeak, gaur gauean

Doinu gogorreko kontzertuak egingo dituzte gaur eta bihar; domekan, berriz, kontzertu lasaiagoa izango da

XABIER URTZELAI> ARAMAIO

Kontzertuek aparteko protagonismoa izango dute, urtero moduan, Aramaioko jaietan. Jai batzordeak zaturako gorde du herriko talde batzuek egingo duten kontzertua –tartean dago jendeak gozoz hartuko duen Xementerioren kontzertua–, eta gaur gauerako, berriz, musika-panoraman erreferente diren taldeek joko dute, Anestesiak, UEK taldeak eta Feos Pero Majos probokatzaileak.

20 URTE TAULA GAINEAN

Thrash eta hardcore zaleak eskuak igurzten ibiliko dira Anestesiak gaur Aramaion joko duela jakinda. Talde hori 1988an sortu zuten, eta Mikel Kazalis (Negu Gorriak, 2kate, Kuraia) gitarra jotzailea da erreferentea. Euskal Herri mailan thrasha egiten lehenak izan ziren, eta 2000. urtean geratu egin ziren. Kazalis beste hainbat proiektutan ibili da buru-

belarri, baina inoiz ez du Anestesia baztertu. Hala, bizpahiru urte dela itzuli ziren, *Terapia* lanarekin, lehen bezain indartsu. Hasieran gazteleraz abesten bazuten ere, segituan hasi ziren abestiak euskara hutsean idazten, eta hala jarraitzen dute, 20 urte geroago. Hori bai, thrasha eta hardcorea uzartzen dute orain.

KEU ETA UEK

Jose Mari Agirretxe *Keu-k* (Psychophony, Zain, Etsaiak, Fjord) gidatzen duen UEK taldeak ere joko du gaur. *Keu-k* Jon Gurrutxaga eta Mikel Arakistain izango ditu ondoan, rock indartsu eta melodikoa egiten.

UEK taldea ez da berria; beste hainbat taldetan jotzen zuen bitartean, *Keu-k* proiektu pertsonal moduan heldu zion horri. Esperientzia handiko gitarra jotzailea da lekeitiarra, eta *Heltzeaz dauden egunak* diskoan abeslari moduan estreinatu zen. Aurten, berriz, *Uhinak* lana aurkeztu du, hori ere Gaztelupeko Hotsak diskoetxeak ekoiztuta.

Gaurko jaialdia amaitzeko Feos Pero Majos taldeak pipermina eramango du taula gainera. Bizkai aldetik datorren taldea da, bertsiok jotzen dituzte, mozo-rotuta taularatzen dira, eta ikuskizun *makarra* samarra egiten dute, oso probokatzailea.



Mikel Kazalis, Anestesia taldearekin kontzertuan.

GOIENKARIA



Xementerioko abeslari Ruben Arriolabengoa, kontzertuan.

GOIENKARIA

IBARREKO TALDEAK, ZAPATUAN

Zapatuan ere kontzertuak izango dira, eta orduan punk eta rock doinuak nabarmenduko dira. Hala, Oñatitik datorren Sanlo Garage Brothers taldeak aramaiarren artean joko du, etxeok direlako The Budchers, Sociedad Korrupta, Sweet rockers eta Xementerio. Oñatiarrek onartzen dutenez, besteak beste, Dut, Sharon Stoner, Pantera, Sepultura, eta Potemkin taldeen eragina izan dute; hortik ondoriozta daiteke ze musika estilo egiten duten.

Sociedad Korruptari dagokionez, Manex Arriolabengoa, Mikel Mendikutek eta Mikel Lopezek osatzen duten hirukoteak punka egiten du. Bizpahiru urte dela sortu zuten taldea, eta, Arriolabengoa onartu moduan, iazko jaietan jo bazuten ere, herritarren aurrean egitea beti da berezia. Gauza bera esango dute gainon-

Thrash zaleak eskuak igurzten ibiliko dira Anestesiak jotzen duelako

80ko hamarkadan sortu zuten Xementerio; zale asko dituzte oraindik

tzeko taldeek, seguru. Beteranoenak izanda ere, Xementeriokoendako ere etxeok kontzertua berezia izango da. 80ko hamarkada erdian sortutako taldea –Aramaiok eman duen talde ezagunena– punk doinuekin nabarmendu zen. 90eko hamarkadan desagertu zen talde hori, baina orduko abeslari Iban Elejalderen heriotza tarteko, taldekideak omenaldi-kontzertua egiteko batu ziren, eta ordutik hona kontzertu bat baino gehiago eskaini dute.

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena

dukiena
J A T E T X E A

Azkoaga auzoa. Tel.: 945 44 50 86
ARAMAIO

dukiena
dukiena
dukiena
dukiena



Alegiakoa pilota astintzeko gertu, Onzaloren begiradapean.

JOSETXO ARANTZABAL

PILOTA > ELGETAKO LAU T'ERDIKO TXAPELKETAKO FINALA, GAUR

Elgetako Lau t'erdiko finala, favorito argi barik

Favoritoak kanpoan, pilotazale gutxi arriskatzen dira gaurko (22:00) jaialdian favorito nor den zehaztera; indartsu dago Renobales

XABIER URTZELAI > BERGARA

Kadete mailako norgehiagokarekin hasiko dute gaur, egubakoitz, gauean Elgetan Lau t'erdiko Txapelketako finala. Zeingehiagoka horretan Urbietan eta Galar-tza izango dira zein baino zein gehiago -finalean ez dago ibarrekoko ordezkariarik-. Eta, ondoren jokatu dute seniorrek. Antolatzailen esanetan, Urrutikoetxea

da favorito, baina aho txikiarekin esaten dute, Renobales txapelketa biribila egiten dabil-eta. Alegiako ezkertiarrek txapelketako favorito Aitor Mendizabal kanporatu zuen lehenengo, eta ondoren, Onzalo bidali zuen kanpora. Gaurko jaialdia ETBk eskainiko du zuzenean, eta astelehenean GOITBko *Harmailatik* saio-ko ardatzetako bat izango da.

**PIXKA.BAT
ES.MUCHO**

KULTURA SAILA
Hizuntza Politikarako Sailburuordetza

Hartu doan
pixkabatesmucho.com
webgunetik.

> TOURRA

Pirinioetako etapak ikustera joateko bidaia antolatuta dute Oñatiko ziklisten peñek

Oñatiko ziklismoko peñek urtero Tourrera antolatzen duten bidaiak ezin du kalerik egin. Aurten ere gertu daukate bidaia, uztailearen 13ko -domeka- etapa (Frantziako Tolosa-Bagnères-de-Bigorre, 224 km) eta uztailearen 14ko -astelehena- etapa (Pau-Hautacam, 156 km) ikusiko dituzte bertatik bertara.

Zapatuan, hilaren 12an, irtengo dira autobusak, eta astelehen gauean itzuliko dira. Hala, domekako etapa Aspin-eko maldetan jarraituko dute, eta astelehenekoa Hautacamen. Tourrera joan gura dutenek datorren astelehenera arte dute, hilak 7, izena emateko astia -bi autobus jarriko dituzte-. Horretarako Oñatiko Lizaralde Kirolak dendara joatea besterik ez dago (943 78 29 86).

> ATLETISMOA

Joko Europirenaikoak bihar Anoetan eta Gipuzkoako Challenge-a eguaztenean Mojategin

Gipuzkoako Atletismo Federazioak Joko Europirenaikoak antolatu ditu biharko Anoetan. 17 urtez beherakoak eta seniorrak bi kategoriatan bereiztuko dituzte, eta atleta bakoitzak bi modalitatean esku hartu ahal izango du gehienez.

Datorren eguaztenean, baina, Arrasateko Mojategiko kirol instalazioetan ikusi ahal izango ditugu Gipuzkoako atleta onenak. Martitzenean hasi zuten Gipuzkoako Challenge-a, eta lehenengo probak Hernanin eta Eibarren egin eta gero, eguaztenean Arrasaten izango dute hitzordua. Hala, puntako kirolariak lehiatuko dira eguaztenean gurean, eta tartean izango da Naroa Agirre pertika jauzilaria. Donostiarra Pekingo Olinpiar Jokoetan lehiatuko da abuztuan.

ARETO FUTBOLA > X. ENTRENATZAILAEN KONGRESUA

Gaur aurkeztuko dute kongresua Intxaurtxuetan

Eskoriatzan bilduko dira asteburuan Espainiako areto futboleko entrenatzaile onenak

X.U. > BERGARA

Eskoriatzako kirol elkarteak ahalegin handia egin du urtero-urtero ANEFS areto futboleko entrenatzaileek egiten duten kongresua herrira ekartzeko, eta helburua beteta, dena gertu izateko buru-belarri ibili dira aste barruan.

'PELOTAZOA'

Manolo Muñoz Eskoriatzako elkartearen presidentearen esanetan, *pelotazoa* eman gura izan dute. "Izan ere, batzar hori hiriburuetan egin izan dute dute beti, eta lehenengo aldia da Eskoriatza moduko herri txiki batean egingo dutena; alde horretatik, ohore handia da guretako". Egia da areto futbola ez dela futbola bezain ezaguna, Eskoriatzara etorriko diren lagunak ez direla aurpegi ezagunak; hori bai, puntako entrenatzaileak dira.

Besteak beste, kongresuan izango dira Azkar Lugo taldeko Bruno Garcia, Interviu Fadesako Jesus Candelas, Errumaniako 21 urtez azpiko taldeko hautatzaile Jean Cosac, Irango hautatzaile Cristina Avellan... eta beste asko.

ASTEBURUA EKITALDIZ BETETA

Ondoko egitarauan ikus daiteke asteburuan zehar berbaldiak, mahai inguruak eta lagun arteko partidua jokatu

dituztela. Horrekin batera, bihar gauean egingo duten ekitaldian ANEFS elkarteak denboraldiko sariak banatuko ditu. Kongresuak iraun bitartean, baina, Debagoieneko hainbat bazter ezagutzeko irteerak egingo dituzte. Besteak beste, Gatzagako gatz museora, Arantzazura eta Arrikruz kobazuloetara, Urkuluko urtegiara, eta zelan ez, Eskoriatzako txoko esanguratsuenetara joango dira.

KONGRESUKO EKITALDIAK

> GAUR, EGUBAKOITZA

16:00etan Kongresuaren aurkezpena, kiroldegian. Ondoren bi berbaldi egingo dituzte.

19:45ean ANEFS elkarteak batzara egingo du, Ibarraundi museoa.

21:15ean elkarteko bazkideen arteko partidua.

> BIHAR, ZAPATUA

Berbaldiak goiz eta arratsalde, eta baita mahaingurua ere.

20:30ean Euskadiren eta Aragoi-aren arteko partidua. Ondoren afaria izango dute Mendigoian, eta ANEFSek sari banaketa egingo du.

> ETZI, DOMEKA

10:00etan Euskal selekzioa eta Eskoriatza aurrez aurre.

11:30. Ohorezko mailako jokalarien arteko norgehiagoka.



> **GARAGARDOA**
Bigarren urtez, garagardo jaia egingo du Aloña Mendik Oñatin > 45



> **TELEFONOA**
Tenperaturaren berri poltsikoko telefonoan jaso daiteke > 51

> **AINHOA VILLAR**

Emon taldean baxua jotzen du, irakasle ikasten dabil, eskola partikularrak ematen ditu, tabernan dihardu... Jarduera askoko neska da Ainhoa Villar > 47



Dezibel uholdea eragingo duen Txaparrada Musikala dator

Bergarako 27 taldek kontzertuak eskainiko dituzte gaztetxean; cd bat eta liburuxka bat aterako dute

Pedre
Aitzol Mujika
Larra
Ady Holden
Morley
Cool Panic
Sententzia
Yotox
Rotten Teenagers
Turboshit
Olympic Darts
The Street 77
Garate
Azkaiter Pelox
Mikel eta Fer
Mahaster River
Zigor eta Hebert
Folsom Four
Fly Shit
Extorsion
No hay Solucion
Lord Witch
Nobox
Against The Rapist
Hardflip
Aldaketa
Emon

JOKIN BEREZIARTUA > BERGARA

Berriz dator Txapa Irratia *txapada* ematera. Dagoeneko 24 urte daramatza *txapada* ematen, baina oraingoan era berezian egingo dute, Bergara osoa ohar dadin. Bergara osoa, edo behintzat gaztetxe ingurutik pasatzen direnak. Izan ere, Txapa Irrati libre ak asteburu honetarako musika maratoia antolatu du gaztetxean. Guztira, herriko 27 musika talde eta bakarlarik hartuko dute parte jaialdian, eta denetarik estiloak entzun ahal izango dira; punk gordinenetik hasita, erromeria alaitsueneraino. Hala, gaur 20:30erako iragarri duten dezibel zaparrada ez da zapatu gauera arte -02:30ak arte- atertuko.

Txapa Irratiak, gainera, asteburuko 27 talde horien emanaldiak betikotu egingo ditu. Kontzertu guztiak soinu-mahaian grabatuko dituzte, gero CD bat kaleratzeko. Gainera, abenduan aterako duten disko horretan ez dituzte bakarrik musika maratoian izango diren taldeen abestiak sartuko: Bergarako beste talde batzuen doinuak ere entzun ahal dira; besteak beste, Supercools, Belceblues eta Aby Kem taldeen kantuak. Beraz, diskoan 35 talde inguruk hartuko du parte, eta bakoitzak abesti bat sartuko du.

Baina hori ez da dena. Diskoarekin batera antolatzaileek liburuxka bat argitaratuko dute, irratia bilakaera eta Txaparrada Musikala hizpide izango dituena. Liburuxkan kantua grabatuko duten taldeek era zuzenean kolaboratuko dute. Ongi etorri eta gozatu, beraz, Txaparrada Musikalaz. > 44





AURKEZPENA Txaparrada Musikala gaztetxe kanpoan aurkeztu zuten musika maratoian parte hartuko duten hainbat musikarik.

TXAPA IRRATIA

Dezibel uholdea eragingo duen Txaparrada Musikala

(43. orrialdetik dator)

Txapa Irratiak CD bat grabatzeko proiektua aspaldi jarri zuen martxan. Hasieran, ordura arte Bergarako gaztetxearen grabatuta zeuden kontzertuak aprobetxatzea zen asmoa, baina exijitzen zuen lan handia zela-eta, beste alternatiba bati eutsi diote, aurrekoa erabat alboratu gabe. Iñigo Herreros Txapa Irratiko kidea eta Txaparrada Musikalaren antolatzaileetako batek azaltzen duenez, lehen proiektu hark "lan itzela eskatzen zuen, bi urteko lana, gutxi gorabehera. Ezinezkoa zen talde guztiak jaialdi horretarako batzea". Hala ere, gaztetxeko grabazio horiek aprobetxatuko dituztela ziurtatu du Herrerosek: "Proiektu hori mantendu gura dugu, denboraz hobeto gabiltzanean egiteko".

24 URTE 'TXAPADA' EMATEN

Txapa Irratiak 24 urte bete ditu aurtun. 1984. urtean jaio zenean,

herriko sindikatu batek utzitako lekuan hasi ziren emititzen. Gero, denbora batez, Zabalotegiko dorretxetik egin zuten, Udalarekin akordio bat lortu ondoren. Egun, gaztetxean dute egoitza, eta, han izan arren, argi utzi nahi izan dute Txapa Irrati Kolektiboa dela irratiaz arduratzen dena, eta ez beste inongo kolektiborik; Bergarako Gazte Batzarra, kasu.

Egun emititzen duten programazioak 27 irratiaio ditu, eta askotariko gaiak lantzen dituzte: musika -noski-, kultura, ekologia... Gainera, Bergarako herriari irekita dagoen irratia moduan definitzen dute euren burua, herriko norbanako, kolektibo eta taldeek euren ideia, kezka eta proiektuak plazara ditzaten.

IZAERA ASKEA

2004an ospatu zuten Elosuako kongresuan, 20 urteko ibilbidea eta irratiairen historia aintzat hartuta, egungo oinarri ideologikoak finkatu zituzten; eta ildo horri tinko eutsi diote Txapa Irratikoek. Hala, Euskal Herriko hainbat irratia libreraren moduan, honakoak dira Bergarakoaren oinarri ideologiko nagusiak: biltzar bidezko kudea-

keta, borondatezko lana, euskararen aldeko apustua, irabazi asmorik gabekoa, independentea eta kontra informazioaren bultzatzailea; hau da, gainontzeko komunikabideek "ezkututzen dutena" azaleratzeko asmoz sortua.

ANTOLATZAILEEN ESANAK

"Jaialdi horrekin, diskorik grabatu ezin dezaketenen herriko musika taldeei bultzada bat eman nahi izan diegu"

Iñigo Herreros > Txapa Irratiko kidea

"Batak besteari laguntzea da asmoa: Txapa Irratiak herriko musika taldeei, eta horiek, Txapa Irratiari"

Ander Elortza > Fly Shit-eko kidea

HERRIKO MUSIKARI LOTUA

24 urte hauetan zehar hainbat bergarrek jarri diote ahotsa Txapa Irratiari. Ahotsa, eta musika, noski, ezin baita irratiaio bat musika barik ulertu. Hasieran kasetea izan zen, gero Cda, eta egun ordenagailutik zuzenean sartzen dituzte pista.

Uhinetan zehar denetariko musika barreiatu dute, baina, Bergarako irratia den neurrian, Txapa Irratiak Bergarako musikarekin konpromiso berezia hartu du aspalditik -gogoratu, bestela, Isiltasuna Apurtzen proiektua. Herriko taldeen musika ezagutarazteko lan handia egin dute Txapakoe. Ehunka gazte bergarrek entsegu lokaletan egin izan dutena, maketa xumetan kaleratu izan dutena eta, finean, Bergarako edozein musika talderen proiektu musikal berriak ezagutzera emateko bitarteko ezin hobea izan da Txapa Irratia, beraz.

Horregatik antolatu dute Txaparrada Musikala, Bergarako egungo musika sorkuntza batu eta kaleratzeko, alegia. Ander Elortza Fly Shit taldeko partaide eta Txapa Irratiko esatarik,

27 musika talde eta bakarleri

4, egubakoitza

20:30	Pedre
21:00	Aitzol Mujika
21:30	Larra
22:00	Ady Holden
22:30	Morley
23:00	Cool Panic
23:30-00:00	Sententzia
00:30	Yotox
01:00	Rotten Teenagers
01:30	Turboshit
02:00	Olimpic Darts
02:30	The Street 77

5, zapatua

17:00	Garate
17:30	Azkaiter Pelox
18:00	Mikel eta Fer
18:30	Mahaster River
19:00	Zigor eta Hebert
19:30	Folsom Four

Afarirako deskantsua

21:30	Fly Shit
22:00	Extorsion
22:30	No hay Solucion
23:00-23:30	Lord Witch
00:00	Nobox
00:30	Against The Rapist
01:00	Hardflip
01:30	Aldaketa
02:00	Emon

OHARRA: Sarrera libre izan arren, Txapa Irratiari laguntzeko bonuak hiru euro balioko du

gainera, irratiaio merezi duen laguntza ere aipatzen du: "Batak besteari laguntzea da asmoa: Txapa Irratiak herriko musika taldeei, baina baita herriko taldeek herriko irratiaio".

ZUZENEKOAK BETIKOTZEKO ASMOA

Asteburuko kontzertuak zuzenean emitituko dira Txapa Irratian -FMko 97.25. Baina herriko taldeen kontzertuak aireeratzeaz gain, kontzertu guztiak grabatu egingo dituzte, eta gero cd bat aterako dute talde edo bakarleri bakoitzak aukeratzeko duen abesti batekin. Hala, 30 kantu baino gehiago izango dituen bilduma kaleratuko dute, eta, espero dutenez, abenduan izango da salgai. Zuzeneko kantuak izango dira, talde edo bakarleri bakoitzak aukeratzeko dituenak, eta beraz, diskoari ez zaio freskotasunik faltako.


Diskoarekin batera, liburuxka bat argitaratuko dute. Atal batean, Txapa Irratiaren historia, bilakaera, programazioa eta oinarri ideologikoak plazaratuko dituzte; eta bestean, Txaparrada Musikalaren jarraipena egingo dute. Hala, musika maratoian parte hartu duen talde bakoitzak orrialde bat izango du nahi duena sartzeko: kantuen hitzak, testuren bat, informazio grafikoa...

Bergarako gaztetxeak musika zaparrada etengabea jasango du gaur eta bihar. Zaparrada zabala, denetariko estiloz josia. Batzuk hasiberriak dira -Extorsion-, beste asko, berriz, esperientziadunak -Fly Shit. Baina 27ak bat, Txapa Irratiari merezi duen bultzada emateko.

Disko baten grabazioa eta taldeen izenak primeran ezkondu ditu Izagirrek kartelean

Txaparrada Musikalaren kartelak aipamen berezia merezi du. Ez da edozein kontzertu sorta iragartzeko sortutako erroto bat, eta horman ikusita erakarri egiten du, ez bairik gabe. Kartelaren egilea Andoni Izagirre da. Izagirrek ezin hobeto ezagutzen du Txapa Irratia, bertatik pasatuko baita. Diseinu grafikoa zaletasuna da harentzat eta, gaztetxerako kontzertu edo beste edozein ekitaldi antolatu direnean, adibidez, hura izan da kartela diseinatzearen arduraduna.

Txaparrada Musikalaren kartela egiteko binilo disko baten irudian oinarritu da. Jaialdiarekin ezin hobeto ezkondu du Izagirrek karteleko irudia, asteburu honetako kontzertuetatik disko bat grabatuko baitute. Izagirrek aitortu duenez, hainbat buruhauste eman zizkion horrenbeste izen kartel berean sartu beharrak. Baina biniloko kantuak balira bezala egokituz, emaitza ezin hobea izan da. Photoshop programa erabili du batez ere. Hala ere, Izagirrek ez du garai hauetan hain ohikoak diren kartel lehiaketetara aurkezteko ohiturarik. "Behin aurkezteko erabakia hartu nuen, baina epez kanpo entregatu nuen lana", dio. Zaletasunak ezin du-eta epe-mugarik izan...



Andoni Izagirre da Txaparrada Musikaleko kartelaren egilea.

TXAPA IRRATIA

OÑATI > JAIK

II. Garagardo Festa aste bukaeran Oñatin, Aloña Mendiren eskutik

Gaur Txuletons taldeak joko du; zapatuan, mus txapelketa, trikitalariak eta Kaixo taldea izango dira karpan

EDU MENDIBIL > BERGARA

Aloña Mendi Kirol Elkarteak antolatuta, II. Garagardo Festa ospatuko da aste bukaeran Oñatin. Iaz jasotako erantzun bikaina ikusita, bigarren urtez antolatuko du Aloñak Garagardo Festa. Atzo, eguena, eman zioten hasiera eta domekara arte irauango du, plazako aparkalekuan.

ALOÑAKO 14 SAILAK

Antolatzaileen arabera bi dira Garagardo Festaren helburu nagusiak: batetik, Aloñako 14 kirol sailendako ahalik eta diru gehien batzea eta, aldi berean, sailen arteko harremanak sendotzea.

Garagardoa izango da protagonista nagusia plazako aparkalekuan jarritako 450 metro koadroko karpan. Zortzi garagardo klase egongo dira aukeran, eta jatekoa ere ez da faltako: saltxitxak, ukondoa, oilasko izterrak patata erreekin eta postrea emango dituzte.

GIROA, ZIURTATUTA

Esan bezala, kirolarien arteko harremanak sendotzea da festaren helburuetako bat, eta horrela, Aloñako 14 sailtako kideak egongo dira zerbitzari lanak egiten aste bukaera osoan. Guztira, 200 bat lagun ibiliko dira karpan lanean.

Giroa pizteko hainbat ekitaldi iragarri dituzte antolatzaileek. Gaur, egubakoitza, Txuletons musika taldeak emanaldia egingo du 22:30etik aurrera; bihar, zapatua, mus txapelketa jokatu da 16:00etan (izenematea bertan egin ahal izango da) eta iluntze aldera Oñatiko trikitalariak arduratuko dira giroa alaitzeaz.



Iazko arrakasta ikusita, bigarren aldiz antolatu du Aloñak Garagardo Festa.

JOSETXO ARANZABAL

Gauean Kaixo musika taldearen saioa izango da.

Anton Inza Aloña Mendi elkartearen presidenteari hitzetan, "joan zen urtean primerako erantzuna jaso genuen eta aurten ere garagardo festa antolatzen animatu gara. Jende asko etorri zen iaz, eta ea aurten ere beste

horrenbeste etortzen den... Aurten, egun bat luzatu dugu festa. Horrelako ekimenak ondo datoz elkarteari datokoz dirua batzeko, gure arteko harremanak sendotzeko eta, bide batez, herriko giroa pizteko".

Aste bukaeran honako hau izango da Garagardo Festako

ordutegia: gaur, egubakoitza, 19:00etan zabalduko dute karpia eta 02:00ak aldera arte izango da zabalik. Bihar eta etzi eguerditik aurrera izango da zabalik.

Esan beharrik ez dago Aloñako ordezkariak herritarrek zein debagoiendarrak gonbidatu nahi dituztela Garagardo Festara.

MUSIKA > LAU HILABETE EMAN DITUZTE DISKOA GRABATZEN

Belceblues musika taldeak bederatzi kantu bildu ditu irailean kaleratuko duen lehenbiziko diskoan: 'Infer'

Lagunartean grabatuta, Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin kaleratuko dute lana irailean

E.M. > BERGARA

Belceblues musika taldeak irailean kaleratuko du lehenbiziko diskoa, *Infer* izenburupean. Bergararrek lau hilabete eman dituzte estudioetan grabatzen; hain zuzen ere, Aby Kem taldeko Xartiren eta Aimarren estudioetan grabatua, nahasia eta masterizatuta dago lana eta Gaztelupeko Hotsak diskoetxearekin (www.hotsak.com) kaleratuko dute. Jon Ander Urisabel artista bergararra arduratu da azala egiteaz.

RHYTHM-AND-BLUESA

Esan bezala, bederatzi kantu bildu dituzte aipatutako lanean: *Infer* (SRVri omenaldia); *Hau da dagoena*; *Potrotaraiño najak*; *String Breaker*; *Vegas*; *Pedelman*;



Asier Elortzak, Ibon Larrañagak eta Oihan Vegak osatzen dute Belceblues. Danbakako finalistak izan ziren 2006an. GOIENKARIA

Ibargarai Blues; *Zenbat buelta eta azkenik*, *Beste thing of the day*. Oihan Vegaren hitzetan, "uste baino lehenago joaten direnei eta bereziki Infernukua tabernako Jabi zenari dago dedikatuta". Belceblues taldea 2005ean sortu zuten. Asier Elortza (baxua

eta ahotsa), Ibon Larrañaga (gitarra) eta Oihan Vega (bateria) hirukoteak. Bluesa, rhythm-and-blues eta rock-and-rolla egiten dute Belceblues taldekoek. 2006ko Debagoieneko Danbako lehiaketan (www.danbaka.com) finalera iritsi ziren Aby Kem eta Malen-

koniarekin batera. Ordutik hona makina bat emanaldi egin dute han eta hemen. Azkena ekainaren hasierako Mundumira jaialdian egin zuten, Bergaran. Udan ez daukate jotzeko asmorik, eta irailean ekingo diote disko berriaren aurkezpenari.

> BERGARA

Esther Astarloaren erakusketa zabalduko dute gaur

Esther Astarloa artistaren zeramika erakusketa irekiko dute gaur, egubakoitza, Barrenkaleko Aroztegi aretoan, 19:00etan.

Mallabikoak hainbat lan jarriko ditu ikusgai uztailearen 27ra bitartean. Aste barruan 18:00etatik 20:30era izango zabalik erakusketa; zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan, goizez bakarrik, 12:00etatik 14:00etara.

> IPUINA

Jose Mari Karrere ipuin kontalaria eguenean Bergaran

Bergarako Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatuta, Jose Mari Karrereren ipuin kontaketa saioa izango da eguenean, uztailearen 10ean, Aroztegi aretoan. Karrerek *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* helduentzako ipuin kontaketa saioa egingo du Aroztegi aretoan, 19:00etan. Umorea eta hausnarketa uztartuko ditu errenteriarren egueneko saioan.



Mari Sol Etxabe eta **Jose Mari Zubizarreta** 1983ko uztailaren 2an ezkondu ziren Gatzagako Dorleta elizan. 25 urte ezkondu egin duten honetan, familiak bikotea zoriondu gura du. Zorionak eta izan zoriontsuak, bikote! Familiaren partetik.



Eric eskoriatzarra eta **Sandra** aretxabaletarra bihar, zapatua, ezkonduko dira Eskoriatzako Ibarraundi museoan. Ondoren Gure Ametsa jatetxean egingo dute afaria. Zorionak, bikote lagunena eta familiaren partetik, eta muxu handi bana!



Arrasateko **Joana Flores** eta **Jagoba Valdes** bihar ezkonduko dira Arrasateko udaletxean. Ondoren, Bergarako Lasa jatetxean egingo dute ospakizuna eta ezkon bidaian Los Angeles eta Mexikora joango dira. Familia eta lagunena partetik, zorionak!




Bergarako **Javi** eta Arrasateko **Erika** zapatuan, uztailaren 5ean, ezkonduko dira Dorletako santutegian. Zorionak eta muxu bana etxekoena partetik! Ondo-ondo pasa ezkontza egunean eta Mexikorako bidaian!



Ane Miren Axpe arrasatearra eta **Dabid Juanmartirena** donostiarra ekainaren 29an ezkondu ziren Donostiako Gros auzoko elizan. Ospakizuna Maria Cristina jatetxean egin zuten eta dagoenean AEBetara joan dira. Zorionak eta ondo ibili! Lagunak.



Antonio Vidriales eta **Irene Lacalle** aretxabaletarrek 25 urte egin zituzten ezkondu uztailaren 2an. Bihar, zapatua, zilarrezko ezteiak ospatuko dituzte Aretxabaletako Irusta jatetxean senideekin. Zorionik beroenak etxeko guztien partetik!



Uztailaren 5ean Murgia auzoko Asentzio Ermitan ezkonduko dira **Iñaki Agirregabiria** eta **Nerea Agirre** oñatiarrak. Ondoren Zelai Zabalen egingo dute bazkaria familia eta lagunekin. Ondo pasa, bikote, etxekoena eta lagun guztien partetik. Izan zoriontsuak!



Aretxabaletako **Nora Martin** eta Arrasateko **Urtzi Amiano** uztailaren 5ean ezkonduko dira Axpeko San Juan Elizan. Bazkaria Durangoko Gran Hotelean egingo dute. Zorionak, bikote eta ondo pasa lagunena eta familiaren partetik.

bono fotoa

Eskoriatzako zein elizatean dago irudian agertzen den eliza?

Argazkia eta galdera > Imanol Soriano



BMk emandako
50 euroko erosketa-txartela
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO
Goienako edozein egoitzara

**BMn beti
eskaintzarik onenak!**

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

Oñatiko **M^a Angeles Arana**rendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzun zuzena: Arrasate-Mondragón.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate

Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

Elgeta

Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

Antzuola:

Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **120** euro.

ASTELEHENEKO GOIENKARIAko

harpidedunak: 90 euro

Prezio berezia: egubakoitzeko eta GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **110** euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle. (CIES)



hildakoak

- **Francisca Baquero Carrillo**, Arrasaten, ekainaren 26an, 94 urte.
- **Juanita Lasa Casares**, Bergaran, ekainaren 26an, 85 urte.
- **Joserra Landa Bidaburu**, Arrasaten, ekainaren 26an, 53 urte.
- **Jose Maria Urkiola Iturbe**, Arrasaten, ekainaren 25ean, 43 urte.
- **Purificacion Markiegi Arantzabal**, Elgetan, ekainaren 29an. 91 urte.
- **Gerardo Perosterena Txintxurreta**, Oñatin, ekainaren 30ean. 62 urte.
- **Benito Martin Gomez**, Arrasaten, uztailearen 2an. 83 urte.
- **Gregorio Kortabarría Ibabe**, Arrasaten, ekainaren 28an. 85 urte.

ESKER ONA

Beatriz Etxebarria Altuna

Justo Trojaolaren alarguna

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 22an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

1. URTEURRENA

Jone Etxebarria Etxagibel

Arrasaten hil zen 2007ko uztailearen 5ean, 16 urte zituela.

Ta memorian, zure irria ta memorian, zure begiak ta memorian, zure keinua ta memorian, zure izatea ta memorian bizi zaitugu, ta memorian zure aiduru, ta memorian zaitugu katigu, ta memorian izango zaitugu.



Zure lehengusu eta lehengusinak. Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

ESKER ONA

Jose Maria Urquiola Iturbe

Madrilan hil zen 2008ko ekainaren 25ean, 43 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

ESKER ONA

Juanita Lasa Casares

Bergaran hil zen 2008ko ekainaren 25ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2008ko uztailearen 4an.

ESKER ONA

Gregorio Kortabarría Ibabe

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 28an, 85 urte zituela

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

ESKER ONA

Concepción Olalde Barrena

Daniel Uribeetxeberriaren alarguna

Oñatin hil zen 2008ko ekainaren 24an, 86 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno, eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2008ko uztailearen 4an.

OROIGARRIA

Jose Antonio Gutierrez Igartua

2005eko uztailearen 2an hil zen, 60 urte zituela

Zure familia ez zaitu ahazten



Bergaran, 2008ko uztailearen 4an.

OROIGARRIA

Joserra Landa Bidaburu

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 26an.

*Enpresa komitekide,
Lankide,
Borrokalari,
Gure gogoan beti*



Arrasateko Udaleko langileak. Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

OROIGARRIA

Jose Ramon Landa Bidaburu Jna.

Arrasateko Udaleko langilea

Arrasaten hil zen 2008ko ekainaren 26an.

Arrasateko Udalbatzak bat egiten du senideen saminarekin.



Arrasaten, 2008ko uztailearen 4an.

1/ ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Antzuola. Etxebizitza berria salgai garaje itxiarekin. Herri erdi-erdian. Oso eguzkitsua. 12 metro koadroko terrazarekin. Erdi jantzia eta prezio onean. Deitu 671 66 01 69.

Aretxabaleta. 72 metro koadroko etxebizitza salgai Zabaltegin. Prezio negoziagarria. Saltzeko presarekin. 659 64 67 38

Bergara. 50 metro koadroko etxebizitza salgai Zabaltegin. Sukalde-jangela, hiru logela, komuna, balkoia eta sotoa. Erdi jantzia. Prezio onean. Deitu 635 72 67 11 telefonora.

Gasteiz. 80 metro koadroko etxebizitza Mendizorrotzan. Hiru logela eta bi komun. Gas berokuntza indibiduala. Hego-mendebaldera eta dena kanpoalde-dera begira. Igogailuarekin eta garaje plazarekin. 615 70 99 86 edo 605 72 14 38

Oñati. 105 metro koadroko duplexa salgai. Prezio adosteko. 635 71 41 39

Oñati. 80 metro koadroko etxebizitza salgai Zubillaga auzoan. Prezio adosteko. Deitu 635 71 41 39 telefonora.

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Garaje itxia eta ganbara. Guztiz jantzia. Oso eguzkitsua. 680 44 95 55.

IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazten eguerdira arte (12:00) jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com

PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK: ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU. GOIENKARIA-N + ASTELEHENKO GOIENKARIA-N 17 € (BEZ BARNE).

GOIENKARIAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Urbarri kalean. 635 72 27 81.

Benidorm. Bi logelako apartamentua ematen da errentan. Jantzia eta aparkalekuarekin.

Levante hondartzako lehenengo ilaran. Deitu 630 41 84 65 telefono zenbakira.

Bergara. Etxebizitza ematen da errentan, oso egoera onean. Deitu 626 00 96 32 telefono zenbakira.

Gasteiz. Basoa kalea 9.ean etxebizitza emango nieke errentan ikasleei. Hiru logela, egongela eta bainua. Deitu zenbaki honetara: 627 85 29 22

Oñati. 90 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. Garajea izateko aukerarekin. Estreinatzean. Deitu 651 70 92 57 telefono zenbakira.

Vieux Boucau (Landak). 10-12 pertsonarendako etxe indibiduala errentan. 2008an guztiz berritua. Bost logela, bi komun, terraza. lorategia eta barbakoa. Astebete gutxienez. Hondartzatik eta herritik gertu. Deitu 669 00 75 49 telefono zenbakira.

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Etxebizitza errentan hartuko nuke. Iñaki. Deitu 608 49 89 93 telefonora.

Baserría hartuko nuke errentan, berdin da egoera. Deitu 669 17 09 51 telefonora.

Debagoiena. Eskoriatza, Arrasate edo Aretxabaletan etxe txiki bat urte osorako errentan hartu nuke. Deitu 635 12 87 82 telefonora.

105. ETXEAK OSATU

Aretxabaleta edo Arrasaten. Mutila etxea osatu edo logela alokatzeko gertu. 662 08 22 03.

Arrasate. Bi pertsona behar dira Eguzki dorrean etxebizitza osatzeko. 620 52 94 98.

Arrasate. Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Deitu 21:00etatik aurrera 680 17 38 37 telefono zenbakira.

Arrasate. Logela bat hartuko nuke errentan. Iñaki. Deitu 608 49 89 93 zenbakira.

Bergara. Bolun logela ematen da errentan, sukalderako aukerarekin. Natalia. 670 85 86 68.

Donostia. Bi neska behar dira etxebizitza osatzeko, unibertsitatetik oso gertu. 651 70 85 13 edo 665 70 00 27.

2/ GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Garaje irekia ematen da errentan Urbarri auzoan. Deitu 635 72 27 81 zenbakira.

3/ LOKALAK

304. ERRENTAN HARTU

Lokala hartuko nuke errentan. Gehienez ere 350-400 euro. 669 17 09 51.

EUSKONTROL

Obrazaina behar da A8 eta AP-1 autobideetako mantentze lanak ikuskatzeko. Pertsona aktiboa, dinamikoa, arduratsua eta inguruko behar dugu. Informatika ezagutza eta obra zibilean esperientzia edukitzea baloratuko da.
94 630 95 00
Aintzane

LAN ESKAINTZA

Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatiba Elkarteak

KOMERTZIALA behar du Debagoienerako:

Eskaintzen da:

- Egun osoko lan jarduna.
- Aldi baterako kontratua, Gizarte Segurantzarekin.
- Lantaldean lan egitea.
- Soldata interesgarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea (ezinbestekoa da).
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Gidatzeko baimena edukitzea.

Kontuan hartuko da:

- Publizitate eta komertzial lana ezagutzea.
- Debagoienerako edo inguruan bizitzea eta ondo ezagutzea.

Curriculumak bidali uztaik 10a baino lehen ondorengo helbidera:

idazkaritza@goiena.com



ETXE AGENTZIAK

Jar ezazu hemen zure publizitatea
943 25 05 05 publi@goiena.comIbargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

Bergara:

- Zabalotegi 80 m². Eguzkitsua. Bista onak.
- Simon Arrieta 80 m². Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 m². Berritua. Ganbarekin.
- Elusu baserría. Berritua. Oso ondo.
- Bidekuruzeta 60 m². Berritua. Gaizteentzat.
- Ibargarai 74 m². Ondo. Garajea aukeran.
- San Juan. Bifamiliarra. Prezio oso ona.
- Zubieta 67 m². Berritua. Eguzkitsua.
- Matxiategi 61 m². Prezio ona. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
- Barrenkale 82 m². Berritua.
- Zubieta 75 m². Txokoarekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m². Prezio ona.
- Bidekuruzeta 103 m². Duplexa. Oso ondo.
- Zubieta 52 m². Gaizteentzat.
- Azkurrantz 69 m². Prezio ona.
- San Pedro 65 m². Ganbarekin.
- Artekale 62 m². Berritua.
- Fraiskozuri 102 m². Bi balkoi.
- Ibargarai 106 m². Duplexa.
- Zubieta 58 m². Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 m². Eguzkitsua.
- Zubieta 52 m². Prezio ona.
- Etxebizitza berrien erakuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekuruzetan.
- San Lorentz ondo etxe berriak

Arrasate:

- Erdiko kalea 113 m². Balkoiarekin. Ondo.
- Zarugalde 90 m². Balkoiarekin. Eguzkitsua.

Antzuola:

- Buztinzi, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Etxe berriak 178 m². Duplexak eta adosatuak.

Oñati:

- Kale Zaharra. 62 m². Terrazarekin. Ortua.
- Lezesari. 75 m². Eguzkitsua. Erdi berritua.

DEBA
GARAIA
INMOBILIARIA
Telefono Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

ETXEBIZITZAK SALGAI

BERGARA

- Artekale, 89 m², ondo.
- Arrizuri, 97 m², garajearekin.
- Matxiategi, 65 m², berritua eta aukera ona.
- Ibargarai, 80 m², oso ondo.
- Artekale, 70 m², oso ondo.
- Bolu, 103 m², oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 m², ondo, hortuarekin.
- Matxiategi, 65 m², ondo.
- Aranerrek, 87 m², oso ondo.
- Bidekuruzeta, duplexa, oso ondo.
- Sanantonabat, 70 m², oso ondo.
- San Lorenzo, 81 m², erakuntza berria.
- Martoko, 87 m², ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m², ondo.
- Ibargarai, 80 m² oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m² oso ondo.
- Simon Arrieta 80 m², berritua, oso ondo.
- Matxiategi, 73 m², berrituko.
- Simon Arrieta, 57 m², terrazarekin.
- Zurradero, 81 m², oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 m², berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 m², terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m², berritua. Oso eguzkitsua.
- Etxebizitza berrien erakuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren eta Bidekuruzetan.

SORALUZE

- Baltegieta, 83 m², berria.

ANTZUOLA

- Eguzki auzoa, 85 m², oso eguzkitsua.
- Antigua 55 m², erdi berritua.

ELGETA

- San Roke, 75 m², ia berria.

Iralabarri plaza 10, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 53 28 30
www.amaralekua.com

ETXEBIZITZAK SALGAI

ARETXABALETA

- Otalora. Duplexa 85 m². Oso egoera onean
- Loramendi. 62 m². Guztiz berrituko.
- Iralabarri plaza. 105 m². Garajea bi plaza. Jantzia. Oso ondo.
- Lausita. 80 m². Jantzia. Oso eguzkitsua. Bista oso onak.
- Araba Ibilbidea. 92 m². Ganbarekin. Taberna hartzeko aukerarekin. Berrituko.
- Bi plazako garajea. Lausittan.

ESKORIATZA

- Txalel unifamiliari eta adosatuak. Zonalde lasaia (Kuatruena).
- Zure neurriko txalela eraikitzeko lursailak. (Kuatruena)
- Sustapen berria: gela bakarreko, biko eta hiruko etxebizitza. 100.000 €-tatik 200.000 €-raino. Apuntatu.
- Duplexa aukeratzeko. Kirodegiko zonaldea. Oso eguzkitsua eta bista oso onak.
- Garaje plazak eta ganbarak. (Gastainadi)
- Gastainadi 73 m². 48 m²-ko terrazarekin. Oso bista onak. Estreinatzeko.
- San Pedro 80 m². Garajearekin. Jantzia. Oso egoera onean.
- San Pedro. 74 m². Berritua. Sukalde hornitua. Estreinatzeko.
- Aranburuzabala. Duplexa 104 m². Oso eguzkitsua. Estreinatzeko.

ARRASATE

- Erdiko kale. Estreinatzeko etxebizitza. Apunta zaitze.

LEINTZ GATZAGA

- 172 m²-ko etxebizitza eta 219 m²-ko orubea.

DULANTZI

- AUKERA: 2.000 m²-ko lursailan, 840 m²-ko pabiloia.

ERRIOXA-CIRUEÑA

- Golf egoitzaldea. 82 m². Garajearekin. Estreinatzeko

ZURE ETXEBIZITZAREN SALMENTA KUDEATZEN DUGU.

402. ESKAERAK

Arrasate. Emakume gaztea gertu nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko, batez ere gauean. 686 42 06 42.

Arrasate. Emakume esperientziadunak lan egingo luke abuztuan, edo jaiegun zein asteburuetan, nagusiak zaintzen edo garbikasun lanak egiten. 638 89 98 60.

Arrasate. Emakume gazte euskalduna edozein lanetarako prest. 659 55 25 60.

Arrasate. Emakume gertu arratsaldez etxeko garbiketa lanak egin edo haurrak zaintzeko. 675 71 37 72.

Bergara. Esperientziadun neska umeak zaintzeko gertu. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

Bergara. Neska gaztea umeak zaintzeko edo etxeko garbitzeko prest dago. 943 76 58 28 edo 691 50 49 53.

Bergara. Neska arduratsua umeak zaintzeko gertu arratsaldez. 680 17 33 61 edo 943 76 08 76.

Debagoiena eta Donostialdea. Eskarmentu handiko neska nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. Debagoienerako eta baita Donostia inguruan ere. 606 64 16 09.

Debagoiena. Emakume garbitasun lanak egiteko prest, baita pertsona nagusiak zein haurrak zaintzeko ere. 650 70 98 76.

Debagoiena. Emakume okindegi batean lan egiteko prest, baita garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzeko ere. Udan bakarrik. 688 66 08 85.

Oñati. Irakasle eta lehen mailako Psikologia ikasketak dituen neska uztailean lanerako prest. 651 70 85 13.

5/ IRAKASKUNTZA

502. EMAN

Arkitektureko lehenengo ikasurteko ikasle batek eskola partikularreko emango lituzke udan. 676 61 15 47.

Ingeles komunikatiboko eskolak ematen ditut. Maila guztiak. Laguntza eskola edo azterketak prestatzeko. 15:00etatik aurrera deitu. 610 97 49 68.

Autorako bozgorailuak salgai. 50 euro. Deitu 617 13 17 51 telefonora.

Basalerra salgai Osintxu, Urkulu, Bolibar eta Antzuolan. Deitu 678 72 75 72 telefonora.

Bizikleta salgai. Errepidekoa. Giant etxekoa. 48 neurrikoa. Hiru plater. 275 euro. Deitu 658 75 84 58 zenbakira.

Brain training berria salgai. Erabili barik dago. 617 13 17 51.

Kanpinerako karro-denda salgai. Alpen Kreuzer. Inertziadun balaztak, autoen gurpilak. Bi logela bikoitz, jantokia 4-6 pertsonarentzako, sukaldea, hozkailua... Egoera onean, beti garajea gordeta. 1.000 euro. Deitu 615 72 47 43 telefono zenbakira.

Ordenagailua. Bigarren eskuko ordenagailua daukat salgai. Hiru urte ditu. Deitu 943 08 18 13 telefono zenbakira.

Ordenagailua. Mahai gaineko ordenagailua salgai: Intel Pentium 4, 3 Ghz prozesagailua, 120 Gb-ko disko gogorra, 512 Mb RAM, TFT 17"-ko monitora, Windows XP la berria. Prezioa: 600 euro, negoziagarria. Deitu 617 78 71 65 telefonora.

Sarrerak. The Police Bilbao BKK Live kontzertuan (uztailaren 4an) ikusteko 6 sarrera salgai. Deitu 943 78 28 43 edo 653 71 80 30 zenbakira.

Sarrerak. The Police taldeak uztailearen 4an Bilbon emango duen kontzerturako bi sarrera ditut salgai. Deitu 660 04 77 70 telefonora.

Telebista. Phillips HD Ready 37"-ko telebista salgai. LTDrekin (TDT). 1.300 euro. Deitu 650 80 80 39 telefonora.

Terrazarako zortzi mahai, 42 aukila eta bi eguzkitako handi salgai. Prezioa, adosteko. Deitu 650 80 80 39 zenbakira.

The Police taldeak Bilbon uztailearen 4an emango duen kontzerturako sarrera bat daukat salgai, erositako prezio berean: 72 euro. Deitu 943 76 59 53 edo 943 76 30 97 telefono zenbakietara.

The Police. Bi sarrera Bilbao BKK Live jaialdiko uztailearen 4ko ekitaldirako: The Police, The Charlatans, Morcheeba, The Wombats, Fancy eta The Gift. Sarrera bakoitza 72 euro. Deitu 652 70 77 86 telefonora.

804. HARTU

Lursailen bat hartuko nuke doan edo errentan. Deitu 669 17 09 51 zenbakira.

806. GALDU

Argazki kamera desagertu zen ekainaren 20an (ostiral eguerdian) Eskoriatzako Fagor Automotion ondoko jesarlekuan, balio sentimental handiko argazkiak barne. Memoria-txartela eskuratu nahiko nuke. Mesedez, eraman edo bidali Aretxabaleta edo Eskoriatzako postontzirent batera edo honako helbidera: Olazar 7, 4. eskuma. 699 86 17 79.

Bergara. Plazza inguruan urrezko kolgantea galdu nuen brillante batekin. Aurkitu baduzu, deitu, mesedez. Eskerrik asko! Deitu 697 24 04 96 zenbakira.

Motorrerako eskularru beltza galdu dit Arrasaten, Malvintan. Larruzkoa da. Deitu 669 54 89 16 telefonora.

Poltzikoko telefonoa galdu dit. Aurkitzen duenak saria jasoko du. 667 33 68 38.

9/ HARREMANAK

904. BESTELAKOAK

Autoa konpartitu nahi dute-nentzat: www.compartir.org. 635 20 33 14.

Donostiako Aizkorri 84. 2. Bete-bizitzaren jabearen bila nabil. Xabier. Deitu 609 51 93 67 telefono zenbakira

6/ MOTORRA

603. ALOKATU

DEBAGOIENA

Autokarabana
berria
errentan
ematen da
943 71 25 30

7/ ANIMALIAK

701. SALDU

Basurdeak salgai Orozkon. 20 euro. 678 72 75 72.

Setter ingeles arrazako txakurkumeak salgai. 605 73 75 30.


8/ DENETARIK

801. SALDU

Apple teklatura eta saga (biak haririk gabekoak). Beste ekipo bat erosi dudalako Apple Keyboard eta haririk gabeko Mighty Mouse arratoia saltzen ditut. Egoera onean daude, ia erabili gabek eta jatorrizko enbaltzeekin. 100 euro. Deitu 667 95 73 16 zenbakira.



Jatetxe Gida



Azkoagaenea

Gaztañadui 4 / ESKORIATZA
943 71 45 66 www.hotelazkoagaenea.com

Eskaintza

- Karta
- Enpresa menua
- Etxera eramateko platerak
- Kafetegia terrazarekin
- Dastatzeko menua



Azpeitxi jatetxea

Aranerreka 13 / BERGARA
943 76 55 00

Eskaintza

- Eguneko menua eta karta
- Jaunartzeak eta bataioak

Berezitasuna

- Arraina eta haragia parrillan

Domeketan, astelehenetan, martitzenetan eta eguaztenetan afaririk ez.



Baster-Alde

Galartza auzoa / ARETXABALETA
943 79 24 58 www.baster-aldejatetxea.com

Eskaintza

- Karta
- Ezkontzak
- Jangela: 160 lagunendako
- Enpresa bazkariak
- Kintadak
- Terraza
- Aparkalekua

Igandeetan itxita



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56 www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE / 943 79 22 15
www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Karta
- Enkarguz menu bereziak
- Plater konbinatuak eta ogitartekoak.

Berezitasunak

- Denboraldiko arraina
- Bildotsa erreta
- Etxeko postreak

Martitzenetan itxita



Soraluze

Arantzazuko bidea, 1 km / OÑATI
943 71 61 79

Eskaintza

- Ezkontzak, jaunartzeak eta bataioak
- Karta
- Aste bukaerako menu bereziak
- Eguneko menuak
- Bi jangela

Domeka gauean itxita



Tartufo jatetxea

San Juan Auzoa 35. Elgetara bidean / BERGARA
943 76 35 51

Eskaintza

- Terraza eta parrilla zerbitzua
- Eguneko menua
- Asteburuetan 20€-ko menu berezia, eta gauetan oilasko erreak bertan jan eta eramateko
- Jai pribatuak antolatzen ditugu



Unzueta

Zabola auzoa / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Eguneko menua
- Karta
- Bataio eta jaunartzeak
- Lagun afariak

Berezitasunak

- Parrilla: okela eta arraina
- Etxeko postreak

Egunero zabalik

Ainhoa Villar > Musikaria, irakaslea eta sukaldaria

"Saltsa askotan ibili arren, musika taldearendako beti daukat denbora"

Pertsona sinpletzat du bere burua Bergarako neska honek, baina era berean temperamen-

tu handikoa dela ere aitortu digu. Beharko temperamentua izan esku artean dituen gauza

guztiei aurre egiteko. Izan ere, azken aldian gauza askotan sartuta dabil: irakasle ikasketak egi-

ten, eskola partikularrak ematen, musika talde batean eta tabernan lanean.

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

Emon taldeko baxu jotzailea da batzuek, irakaslea besteendako eta Kortazarreko pintxoak gertatzen dituen sukaldaria ere bada. Irribarrea beti ahoan duen neska honek bere egun okupatuetako batean tarte bat egin du gurekin berba egin eta bere bizimoduaren berri emateko.

Irakasle ikasketak egiten diharduzu. Aurrez beste ikasketa batzuk ere egin dituzu, ezta?

Bai, Heziketa Bereziko irakasle ikasketak egiten dihardut eta lehenago, Gizarte Integrazioko ikasketak eta zeinuen hizkuntzakoak egin nituen; begirale titulua ere atera nuen. Elkarren osagarri dira ikasketa horiek guztiak. Hezkuntza gustuko dut eta, batez ere, hezkuntza berezia.

Ikasle zaren arren, lanean ere baduzu nahikoa eskarmentu.

Modulua egin nuenean, sei hilabeteko praktikak egin nituen Bergarako zentro batean. Urritasunak dituen jende helduarekin egin nuen lan, batik bat, adimen urritasuna dutenekin; Aisialdian, Arrasateko udaleku irekietan bi urtetan ibili naiz, eta, urte batean autismoa zuen mutiko batekin; igeriketa egokituko ikastaroetan ere jardun dut laguntzaile; eta Nafarroako Down sindromea dutenen elkartean ere boluntarioa naiz. Aurten, Bergarako udaleku irekietan jardungo dut.

Ezintasunak dituen jendearekin jardun duzu, batik bat. Zer behar da horrelako jendearekin lan egiteko?

Pazientzia handia eta mundu hori gustuko izatea. Ez dakit zer ematen didan, baina oso pozik ibiltzen naiz. Gainera, uste dut elkarrengandik asko ikasten dugula.

Irakasle moduan praktikak ere egin dituzu, ezta?

Bigarren mailako praktikak Mariaren Lagundia ikastolan egin ditut, gela arruntean. Datorren urtean, nire espezialitateari dagozkionak egingo ditut, Lanzaroten. Unibertsitateko beste ikasle batzuk joan direla jakinda, hara joatea pentsatu dut beste ikaskide batzuekin zentro espezializatu batera. 3tik 21 urtera bitarteko jendea dago, urritasunak dituenak; asko autismoa dutenak dira, eta atentzioa ematen didan gai bat da. Urtarrilean edo otsailean joango naiz, bi hilabetarako, eta sekulako gogoak daukat. Etxetik urruti noa, baina etorriko da jendea bisitan.



IRATI AGIRREAZALDEGI

PERTSONALA

Herria: Bergara. **Adina:** 23 urte. **Ikasketak:** Gizarte Integrazioko teknikari ikasketak eta irakasle ikasketak. **Musika talde bat?** Esne Beltza; azken aldian asko entzuten dut. **Pintxo bat?:** Patata tortilla, betikoa. **Oporretarako toki bat?** Venezia. **Kontzertu bat**

emateko toki bat? Tolosako Bonberenean gustura joko nuke. **Zerk alaitzen dizu eguna?** Jaiki eta nire inguruko jendea pozik ikusteak. **Eta tristatu?** Eguraldi txarrak. **Amets bat?** Esku artean ditudan proiektuak ahalik eta ondoen ateratzea.

Tabernan ere lan egiten duzu.

Hainbat urte daramatzat Kortazar tabernako sukaldaria aste bukaeretan pintxoak gertatzen. Sukaldean ibiltzea asko gustatzen zait eta gustura nabil. Etxean ez naiz nahi beste ibiltzen baina noizean behin postreak egiten ditut, batik bat azterketa sasoiaren.

Ikasi, lan eta hala ere baduzu denbora musika talde batean jarduteko?

Bai, Emon taldean nabil eta taldearendako beti dago denbora. Ideia aspalditik genuen buruan, baina kosta zitzaigun kontuari serio heltzea. Argi genuen trikitixa zeinek jo behar zuen eta zeinek abestu behar zuen. Nik, anaia baxu jolea izanik, baxua ikastea erabaki nuen, eta iaz hasi nintzen ikasten. Orain, kontzertuekin buru belarri gabiltza.

Hurrengo kontzertuak non egingo dituzue?

Uztailaren kontzertu dezente dugu: 4an, Elgetan; 5ean Bergarako gaztetxean; 11n, Zaldibian; Donostiako Gros auzoan 19an; Astigarragan 25ean; eta 26an, Oiarzunen. Grosen, Esne Beltza taldearekin joko dugu, eta oso pozik gaude. Inguruan jotzen dugu, batik bat, baina iaz, esaterako, Bartzelonan jo genuen, Tonan, herriko jaietan.

Taldea ezagutzen ez duenari azaldu zer den Emon.

Ez dut gustuko taldeari etiketa zehatz bat ipintzea. Izan ere, askotariko musika jotzen dugu: reggae, ska, rock... Hasieran bertsoak jotzen genituen eta pixkanaka gure kantuak sortzen dihardugu. Dagoeneko badauzkagu lau edo bost eta, aurrerantzean ere jarraituko dugu sortzen.

Nondik ateratzen duzu astia?

Lehentasan markatu eta hainbat gauza utzi ditut: baxuko eskolak, igeriketa ikastaroak... Taldekoekin, esaterako, zapatu goizero entseguak egiten ditugu eta, kontzertu bereziren bat izanez gero, gehiago, eta horretarako denbora behar da.

Hainbeste saltsatan sartuta, oporretarako astirik baduzu?

Aspacekoekin Saloura joango naiz. Gainontzean ez dut oporretarako beste planik, baina ez zait ardura, beti irtengo da planen bat azken momentuan. Gainera, kontzertuak ere hor daude, uztailean, eta horren arabera ere antolatu beharko ditut oporrak.



Temperatura maximoak eta minimoak poltsikoko telefonoetan jasotzeko aukera egongo da.

IMANOL SORIANO

OSASUNA > OHARRAK

Beroaren arrisku maila eta tenperaturak, poltsikoko telefonoan

Formularioa bete ondoren 'www.msc.es' gunean, tenperatura maximoak eta minimoak jasoko ditugu poltsikoko telefonoan edo posta elektronikoa

ak eta minimoak jakiteko aukera izango dugu mezu bidez, eta baita beroak dakarren arrisku maila ere. Osasun eta Kontsumo Ministerioak, aurtengo Uda-Planaren barruan, tenperaturen eta arrisku mailen gaineko informazioa jasotzeko harpidetza zerbitzua jarri du martxan.

Irailaren 30a arte erabili ahal izango da zerbitzua, eta doakoa da. Informazio hori posta elektronikoz edo SMS bidez jaso ahal izango da, eta eskatutako denbora-tartean zehar bidaliko dute.

TENPERATURAK JASO

Interesa duenak Ministerioko webgunean dagoen formularioa bete beharko du: www.msc.es/excesoTemperaturas2008/frm-Suscripcion.jsp da helbidea. Ondoren, bidalitako datuak baieztatzeke mezu bat iristen da poltsikoko telefonora, eta argibide

batzuk jarraitu behar dira erregistratzeko. Pauso horiek jarraitu ondoren, tenperatura maximo eta minimoen iragarpena bidaltzen dute poltsikoko telefonora.

ZERBITZU GEHIAGO EUSKALMETEN

Euskalmet agentziak ere aspalditik eskaintzen du SMS zerbitzua eguraldiaren inguruko informazioa emateko. Agentziak zonaka banatzen du Euskal Herria eta, horietako bat aukeratu ondoren, bertako iragarpena bidaltzen dute. Horretarako, idatzi *euskalmet*, tartea, gako hitza (zona), eta 5982 zenbakira bidali. Informazio guztia euskalmeteko webgunean dago, *Zerbitzuak* atalean. Mezuen zerbitzuez gain, ordenagailurako software bat jaisteko aukera dago, PDAn informazioa kontsultatzeko aukera eta HTML kodea ere badago webguneetarako.

NEREA MENOR > BERGARA

Dagoeneko udan sartuta gaude eta askok oporrak gainean dituzte. Garai hauetan, poltsikoko telefonoa emendatu eta erlaxatzeko gogoia izan ohi dugu. Hala ere, informazio-iturri bikaina bilaka daiteke tresna hori gure aisialdia planifikatzeko orduan. Etxetik irten aurretik gure probintziako tenperatura maximo-

teknologia berriak

> IRUDIA

Munduko telebista pantailarik estuena laster merkaturatuko du JVC etxeak

JVC USAk LCD HDTV (definizio handiko telebista) pantaila uztailaren merkaturatuko duela iragarri du. Enpresaren arabera, pantaila munduko estuena da.

Pantaila bi modelotan eskuratu ahal izango da: 42 hazbetekoa (LT-421L89) eta 46 hazbetekoa (LT-46SL89), 39 mm baino ez ditu zabalera, eta erdialdean, 74 mm-ko zabalera maximoa du.

Salneurriak: 1.215 euro (42 hazbetekoa) eta 1.500 euro (46 hazbetekoa).



Pantailak HDMI interfazea (hiru sarrera) du, telebista sintonizagailua eta s-bideoa eta VGA portua.

> OSAGARRIAK

Gorillapod Go-Go: eramateko tripodeak, irudiak ateratzeko aparailuak egonkortzeko

Joby etxeak Gorillapod Go-Go tripodeak aurkeztu ditu. Jatorrizko Gorillapod-ak dira, baina lau lotura dituzte sakelakoekin, kontsola eramangarriekin, GPS nabigatzaileekin eta kamera digitalekin erabiltzeko.

Hortaz, artikulatutako tripodeek kamera digitalendako hariztatze bidezko loturaz gain, bentosa bidezkoa ere izango du eta bi eranskailu lotura seguruagoa izan dadin.

Salneurria: 29 euro.



Aldakorrak eta eramangarriak dira egonkortasuna kolokan jarri gabe.

> AUDIOA

Liburu baten itxurako bozgorailuak, tolestu eta eramane daitezkeenak, txikiak eta arinak

Tolesgarriak dira eta NXT teknologia dute ahalik eta txikiak izan daitezke. Targus Portable Speaker Book bozgorailu eramangarriak dira.

Bozgorailuek diseinu txukuna dute eta lau AA pilekin funtzionatzen dute; hala ere, badago aparailua USB sarrera batera konektatzeko eta soinua entzuteko aukera. Audio seinalea jasotzeko bozgorailuen artean 3,5 milimetrotako sarrera du eta leku berean dago bolumena kontrolatzeko gailua ere.

Salneurria: 35 euro.



Liburu baten itxura dute eta neurriak honakoak dira: 13,5 x 3,6 x 15,8 cm. Pisua, berriz, 67 gramo.

Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

www.goiena.net-eko blog komertzialak

www.goiena.net/blogak

/aebpn
/aiastui
/arantxa
/aretxargi
/argi-plastik
/arregi
/atai
/azkarate
/bastida
/briz-aseguruak
/BZ-sistemas
/bolusukaldeak
/denetik

/dragon-oriental
/dukiena
/ego
/eguzkigraf
/ekilore
/ekin
/elejalde
/ezkutuorly
/galgorri
/gallastegi
/ganesha
/garaia
/gertu
/gorkataxi

/gorla
/gurea
/guztizeder
/hamaikataberna
/itxaseder
/irudisport
/ixaun
/izeder
/jcracing
/lamaino-etxeberri
/lorelan
/korozabaleta
/kizkur
/markiegi

/maulanda
/mayte
/merkeopari
/multiopticas
/ohiak
/ogizun
/okipark
/optico
/otzeta
/pando
/perpipar
/puerta-ingles
/richimaier
/tabernerri

/udalax
/udalaitz
/urdeki
/ugartearotza
/urbieta
/urko
/vitoria
/zainduz
/ziripot

Eta baita ere:

www.aizue.com
www.amgautoak.com
www.baster-aldejatetxea.com
www.ehmf.com
www.gelatzu.com
www.goikobenta.com
www.haurboxa.com
www.kizkur.com
www.klorofila.com
www.landaluze.com
www.lilura.com
www.toldoslete.com
www.uxarte.net
www.biark.net



Goiena.net

berriak

> EUSKARAZKO FILMA
'Unibertsolariak'
filma eskainiko du
zapatuan GOITBk

Hilabete behin euskarazko filmak eskainiko ditu aurrerantzean Goiena Telebistak. *Ipar haizearen erroka* filmaren ondoren, bigarrenarekin dator oraingo zapatuan; hain zuzen ere, *Unibertsolariak* izeneko filma eskainiko du. Juanjo Elordiren zuzendaritzapean, Unai Elorriaga gidolariaren filmak tarte izango du zapatuan. Filma Goya sarietarako izendatu zuten animaziozko film onenaren atalean.

> 'ERREPORTAJEA'

Azpeitiko Lapatx konpostaje plantaren gaineko erreportajea

Konposta egiteko Azpeitiko Lapatx planta ekarriko du erreportajearen tartean Julen Iriondok Goiena Telebistara. Konposta materia organiko begetal eta kozinatu gabearekin egiten da. Debagoienean asmoa da etorkizunean konpostaje planta bat zabaltzea. Datozen hilabeteetan, Aretxabaletan bildutako materia organikoa Lapatxera erango dute konposta egiteko, proba moduan.

> ARRASATE IRRATIA

Oporrei begira, Txina berbagi izango dute, irratan

Udako sasoi honetan, bidaiak izaten dira protagonistetako bat herritar askoren artean. Bada irratan ere bat egingo dute herritar horiekin eta hainbat bidai landuko dituzte datorren astean. Astelehenean bertan hasiko dira, Txinarako bidaiarekin. Izan ere, aurrean, dudu barik, modan dago herrialde hori gurean, besteak beste, Olinpiar Jokoa izango direlako hiriburu, Beijing-en.

> ARRASATE IRRATIA

Aquariumerako sarrerak eta 3.60 aretorakoak

Udako irratsaioaren ohitura onekin segituz, datorren astean ere izango dira Donostiako Aquariuma bisitatzera joateko sarrerak irratioko entzuleen artean zozkatzeko. Horrekin batera, 3.60 aretoan izaten diren kontzertuetara joateko sarrerak ere zozkatuko dituzte. Parte hartzeko: 943 25 05 05era deitu edo Internetez mezua bidal daiteke: irratia@goiena.com edo goiena.net atarian dagoen irrati blogean.


'ILUNPEAN' > EGUBAKOITZA, 22:15

Jose Antonio Bastegieta 'Marko' gaur 'Ilunpean' saioan

Kortezubiko alkatea izan da Jose Antonio Bastegieta 'Marko' 28 urtean. Bizipen ugari dituen gizona da

GOIENKARIA > ARRASATE

Saltsero hutsa da Jose Antonio Bastegieta *Marko*, eta horregatik edo, pasarte xeble asko ditu kontatzeko. 28 urtean izan zen Kortezubiko (Bizkaia) alkatea. Herri txiki horren izena nonahi eman du ezagutzera Bastegieta, horretarako antolatzen zituen lehiaketa xebleen bitartez; besteak beste, antolatu izan ditu asto karrerak, buru handien eta itsusien lehiaketak, eta abar eta abar. Horrez gain, Euskal Herriko burusoil umoretsuen elkarteko presidentea ere bada. Kortezubin Mako Pollo izeneko jatetxearen jabea ere bada.



Jose Antonio Bastegieta pasarte ugari ditu kontatzeko.

IKER BARANDIARAN

'JAIK' > EGUENA, 21:47

Elgetako eta Aramaioko jaiak eskainiko dituzte eguaztenean GOITBn

GOIENKARIA > ARRASATE

Jai giroan murgildu da azken asteotan Debagoiena; sanjuanen ostean sanpedroak, eta orain, oraingo asteburuan, ibarreko beste bi herritan ospatuko dituzte jaiak: hain zuzen ere, Aramaion eta Elgetan. Ara-

maion sanmartinak ospatuko dituzte asteburuan, nahiz eta horiek irailean izaten diren. Bestetik, Elgetan Azoka Nagusia egingo dute asteburuan, herria jai giroan erabat murgilduz. Goiena Telebistak, gainontzeko beste herrieekin egiten

duen moduan, bi herri horietako jaiekin ere *Jaiak* deritzon saio berezia eskainiko du datorren eguaztenean.

Elgetan, besteak beste, jasoko dituzte atzoko herri afarian gertatutakoak eta gaurko umeendako puzgarriak eta jolasak; horretaz gain, nola ez, domekako Azoka Nagusian eta idi proba erakustaldian ere izango da GOITB.

Aramaion, bestalde, Pagarri abesbatzaren emanaldia, tortilla txapelketa, herri kirolak eta *Kuadrillen arteko pikie* jasoko dituzte.

telebegi

Gorka Etxabe > getxabe@arteman.org**Cuatroren tranpolina**

Esan dezatela espainiarrek konplexurik gabe nazionalistak direla. Atera dituzte banderak kalera, espainiarren sentimendua azalera eta krisia ere ez da horrenbestekoa txapelketaren itzalean. Normala da. Bakoitzari berea, eta espainiarrak ondo jokatu irabazi dute txapelketa. Disfrutatu dezatela.

Cuatro eta Digital Plus Espainiako telebista kateek eskaini dute Europako txapelketa eta sekulako emaitzak lortu dituzte. Aho zabalik daude oraindik ere, sinistu ezinda. Inoizko apusturik handiena egin zuten eta ezin hobeto atera zaie. Podemos leloa primeran hedatu dute eta irabazte suertatu dira. Inoiz Espainian izandako ikus-entzule kopururik handiena lortu dute Cuatrokoek. 17 milioi ikus-entzule baino gehiago izan zituzten finalean eta horietatik 710 mila Euskal Autonomia Erkidegoan. Cuatrorentzat tranpolin ezin hobea izan da futbola. Dirutza egin dute. Eta aukera ederto aprobetxatu dute beste programa batzuk saltzeko. Europako txapelketa etena izan da Cuatrorentzat. Aurrerantzean guztia aldatuko da haientzat.

arrasate irrata

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu. Ilunpean saioa; musika kontuak, *Kantaka* irratsaioan; merkealdiak; Arrastaeko tailagileen elkarteen erreportajea eta sexologia eta gazte kontuak, besteak beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera Albistegia, Arrasateko eta ibarreko albistekin Donostiako Aquariumeko kontuak Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa) Astelehenetan Kirolak Ilunpean Kantaka Erreportajeak Astearen errepaso Zozketak Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com, goiena.net)) 11:55 Arrasateko albisteak, labur. 12:05 Euskadi Irratioko albistegia 12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak 13:00 Euskadi Irratioko albistegia. 14:00 Igo Autobusera! (errep.) 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

GOITBko
programazioa**Egubakoitza, 4**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Euskaldunok hizketan. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Musikantoi. 16:15 Ur eta lur. 16:45 Albistek. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Eskoriatzako San Pedroak. 18:45 Albistek. 19:15 Ikusmira. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Animalia. 21:55 Ilunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Musikantoi. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Klip 28. 00:15 Emisio amaiera.

Zapatua, 5

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Ikusmira. 11:30 kusten. 12:00 Astekoak. 12:15 28 Klip. 12:30 Berbaire. 13:00 Eltze beroa. 13:30 Wasemak. 14:30 Eskoriatzako San Pedroak. 15:00 Kantari. 16:00 Unibertsolariak eta Marrazki bizidunak. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Ikusmira. 21:00 Euskaldunok hizketan. 21:30 Wasemak. 22:00 Erreportajea. 22:30 Ilunpean. 23:00 Musikantoi. 23:30 28 Klip. 00:00 Emisio amaiera.

Domeka, 6

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak. 11:00 Kantari. 12:00 Unibertsolariak. 13:30 kusten. 14:00 Ur eta lur. 14:30 Erreportajea. 15:00 Ikusmira. 15:30 Kantari. 16:00 Marrazki bizidunak. 19:00 28 Klip. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta lur. 20:30 Erreportajea ttipi ttpa. 21:00 Musikantoi. 21:30 Animalia. 22:00 Astekoak. 22:15 Eskoriatzako San Pedroak. 22:45 Erreportajea. 23:15 Teknopolis. 23:45 Ilunpean. 00:15 Musikantoi. 00:30 Emisio amaiera.

Astelehena, 7

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea-Tipi Ttpa. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Ilunpean. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Wazemak. 16:15 kusten. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Hitz bitan. 18:15 Teknopolis. 18:45 Berriak. 19:15 Animalia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak. 20:45 Berriak. 21:15 Harmaillatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea. 21:15 Kirolari. 22:45 Berriak. 23:15 Harmaillatik. 22:45 Gaurkoak. 23:30 28 Klipa. 00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 8

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Muka muka. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Erreportajea. 14:15 Harmaillatik. 14:45 Berriak. 15:15 Animalia. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Kirolari. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Horry. 17:45 Gaurkoak. 17:47 28 Klipa. 18:15 Musikantoi. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak: Horry. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Wazemak. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Euskaldunok hizketan. 22:45 Berriak. 23:15 Ikusmira. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Erreportajea. 00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 9

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Munduko futbol txapelketa. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Kantari. 14:15 Eltze beroa. 14:45 Berriak. 15:15 Berbaire. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Euskaldunok hizketan. 16:15 Wazemak. 16:45 Berriak. 17:15 Marrazkiak. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Animalia. 18:15 Harmaillatik. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazki bizidunak. 19:45 Berriak. 20:15 Euskal artzainak. 20:45 Berriak. 21:15 Hitz bitan. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Jaiak: Elgeta eta Aramaio. 22:15 Ur eta lur. 22:45 Berriak. 23:15 kusten. 23:45 Gaurkoak. 23:47 Jazzmina. 00:15 Emisio amaiera.

Eguena, 10

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Euskal artzainak. 14:15 Jaiak: elgeta eta Aramaio. 14:45 Berriak. 15:15 kusten. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Ur eta lur. 16:17 Eltze beroa. 16:45 Berriak. 17:15 Muka muka. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ilunpean. 18:15 Kirolari. 18:45 Berriak. 19:15 Marrazkiak. 19:45 Berriak. 20:15 Kantari. 20:45 Berriak. 21:15 Erreportajea. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Berbaire. 22:15 Musikantoi. 22:45 Berriak. 23:15 Hitz bitan. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Teknopolis. 00:15 Emisio amaiera.



IMAGEN 21

M Gorbeaiako Merkealdia-rekin UDAZ GOZATUKO DUZU



GORBEIA

errazago, azkarrago, erosoago, merkeago eta orain...GERTUAGO!



Uztailak 4-10

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguzteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12

Ospakizuna



OÑATI

> Garagardo festa egingo du Aloña Mendi kirol elkarteak asteburu osoan

Karpa egongo da plazako aparkalekuan, gaur, 19:00-02:00; bihar, 12:00-02:00; eta etzi, 12:00-22:00. Garagardoa eta txerri eta oilasko okela zerbitzatuko dute Aloña Mendiko 14 sailetako kideek, eta kontzertuak eta animazioa egongo dira.

Ospakizuna



ELGETA

> Feria Nagusia ospatuko dute etzi, eta ospakizunak daude asteburu osoan

Etzi, domeka, da Elgetako jaietako egun handia, Feria Nagusia egingo dute-eta, 09:00etan hasita. Gaur, barikua, herri kirolak, umeendako jolasak, erromeria, rocka... egongo dira; eta bihar, zapatua, asto lasterketa, bazkaria, DJak...

Ospakizuna



BERGARA

> San Martzialgo erromeria egingo dute bergararrek etzi, domeka

San Martzialera igoko dira bergararrak etzi, 10:00etan, gurdiaekin; han, meza entzungo dute, 11:00etan, eta dantzaldia, bertsoak, bazkaria... izango dituzte, 21:00ak arte; jaia San Martin plazan bukatuko dute.

BERGARA

> Historiako pertsonaia homosexual eta transexualak

Ekainaren 28a, Nazioarteko Sexu Askapenerako Eguna, pasatu berri dela-eta, EHGAM elkartearen erakusketa bisitatzeko parada dago oraindik: *Historiako pertsonaia gay/lesbiana/transexualak* du izenburua eta uztailaren 11 arte egongo da zabalik.

Bisita ordutegia: asteleheneetik egubakoitzera, 18:00-21:00; zapatuetan, 12:00-14:00.

ESKORIATZA

> Jose Aranaren inguruko erakusketa bisitatzeko parada

Jose Aranaren heriotzaren mendeurrena dela eta, haren gaineko erakusketa ikus daiteke Ibarraundi museon. Erakusketaren gaineko liburuxkak ere banatuko dituzte.

Bisita ordutegia hauxe da: 12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Urria arte egongo da zabalik.

Antzerkia

BERGARA

> Helduendako ipuinak kontatu-ko ditu Jose Mari Carrerek

Jose Mari Carrere ipuin kontalariak *Kondoi bakoitzak bere istorioa dauka* delako helduendako ipuin emanaldia egingo du.

Eguenean, hilak 10, Aroztegi aretoan, 19:00etan.

ARETXABALETA

> Umeendako antzerki eta zirku emanaldia egongo da

Arkupe kultura etxearen inaugurazio ospakizunen barruan, Zirika Zirkus taldeak *Bazen behin zirkoa* delako emanaldia egingo du kultura etxean. 3-8 urte arteko umeendako ikuskizun parte-hartzailea da.

Loretxu y Bolintxe dira protagonistak: altxor bat, lagun piloa eta ehunka ipuin topatuko dituzte. Zirkuko emanaldiak egongo dira, eta irakurtzea zelako dibertigarria den erakutsiko diete umei.

Bihar, zapatua, kultura etxeko Zaraia aretoan, 17:00etan.

Ospakizunak

ARETXABALETA

> Puzgarriak eta txartel banaketa, merkatarien eskutik, bihar

Jendea non, giroa han.

Aretxabaleta bizirik leloarekin, merkataritza suspertzeko asmotan, puzgarriak ipiniko dituzte Aretxarte herriko merkataritza elkarteok bihar, zapatua.

Bestalde, egun horretan elkarteak dendaren baten gutxienez 25 euroko erosketa eginez gero, txartelak emango dizkiete erosleei. Horiekin, kioskoan gozokiak eskuratu ahal izango dituzte bezeroek,

edo Brasileña kafetegian kafea edo Orly tabernan freskagarria hartu.

Puzgarriak, Gurea taberna osteko plazatxoan, 11:00etatik 13:00etara.

Erakusketak

BERGARA

> Unai Azkareren collage lanak ikusteko aukera

Unai Azkarate artista bergararrak egindako hainbat collage lan ikusteko aukera dago egunotan.

Espoloko Hamaika tabernan dago.

ARETXABALETA

> Kantauri itsasoko faunaren inguruko erakusketa

Txomin Rivera urpekari errenteriarrek ateratako argazki erakusketa dago, *Kantauriko koloreak* delakoa. Kantauri itsasoko flora eta

fauna ikusgarrien irudiak dira. Arkupe kultura etxean dago zabalik erakusketa hori, uztail osoan barrena.

Bisita ordutegia: 11:00-13:00 eta 18:00-20:00.

BERGARA

> Esther Astarloaren zeramika lanen erakusketa Aroztegin

Esther Astarloa (1975) egilearen zeramika lanen erakusketa inauguratuko dute gaur, egubakoitzera, Aroztegi aretoan. Hilaren 27a arte egongo da zabalik.

Arte Ederretan lizentziaduna da Esther Astarloa. Dokortza ikastaroak baditu. Ikastaro asko egin ditu hainbat artista-ekin, Euskal Herrian eta Espainian. Hezkuntzan ere lan egin du, ikastaroak eta maisu lanak egiten. Bere lanean, abstrakzioarako joera dauka, baina konnotazio organiko

nabarmena dute bere lanek. Eskulturak zeramika teknika-ekin landutakoak dira.

Bisita ordutegia: martitzenetik egubakoitzera, 18:00-20:30; zapatuetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

OÑATI

> Corpus prozesioak irudiak erakusketan ipini dituzte

Corpuseko prozesioak irudien erakusketa ipini dute Kofradiakoek.

Parrokian dago erakusketa, eta honako ordutegian bisita daiteke: zapatuetan, 11:00-14:00 eta 17:30-20:30; domeka eta jaiegundetan, 12:00-14:00 eta 18:00-20:00; eta jai bezperetan, 17:30-20:30. Bestalde, uztail eta abuztuan, turismo bulegoko bisita gidatuen barruan egongo da erakusketa.

Urriaren 26ra bitartean egongo da zabalik erakusketa.

PROPOSAMENA

ARRASATE

> Kale antzerki emanaldia egingo du Markeliñek plazan

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak antolatutako aire zabaleko emanaldi sortako lehena egingo du Markeliñe taldeak. *Terapia* antzezlan egingo du, Herriko Plazan. Propio kalean antzezteko pentsatutako lana da, keinuetan eta ikusteko sorpresatan oinarrituta. "Gure bizitza osorako aukeratu dugun bizi lagunari buruz" hausnartzea proposatzen digute.

Bihar, zapatua, Arrasateko plazan, 22:30ean.



BERGARA

> Phonk Clubbin' Criminals taldea, zuzenean

Gasteizko Phonk Clubbin' Criminals taldeak emanaldia egingo du gaur, egubakoitzera. Virginia de la Casak abestu egiten du, Parrutxok disko-jartzaile lan egiten du, eta Nando de la Casak teklatuak eta programazioa eramaten ditu. Kluba, dancea, musika elektronikoa... bateratzen dituzte.

Gaur, egubakoitzera, Espoloiaren, 22:30ean.

OÑATI

> Rock kontzertua egingo da bihar, zapatua

Rock kontzertua egingo dute bihar honako taldeek: Afoña, Golpe de Estado, Never Surrender, Sospechosos, Dune Buggy, Doubling Boys eta Nealta Fola.

Bihar, institutu aurrealdean, 20:00etan.

OÑATI

> Ganbara eta Hondarribiko Nayade abesbatzak

Oñatiko Ganbara abesbatzak eta Hondarribiko Nayade abesbatzak emanaldia egingo dute. Esteban Urtzelaik zuzenduko du Ganbara, eta Alaitz Urkiak, Nayade.

Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:30ean.

Lehiaketak

ARRASATE, BERGARA

> 'Gomendatzen dizut!' lehiaketa deitu dute Gazte Bulegoek

Gomendatzen dizut! Merez du delako lehiaketa deitu dute Gazte Informazio Bulegoek. Oporretan ezagututako lekuen, zerbitzuen... gaineko gomendioak eskatzen dituzte. 12-34 urte arteko edozeinek parte har dezake.

Argibideak: www.aizue.com.

ESKORIATZA

> I. San Pedro jaietako Argazki Lehiaketako epea, zabalik

Udalak lehenengo urtez antolatuta du aurten San Pedro jaien gaineko argazki lehiaketa, eta lanak bidaltzeko epea zabalik dago uztailaren 18a arte. Argazki digitalak izan behar dira, JPG formatuan eta luzera eta zabalera arteko 4x3 faktore proportzionalean -adibidez, 2.000x1.500 pixel. Argazkiak honako helbidera bidali behar dira: kultura@eskoriatza.net, fitxategiaren izen gisa argazkiaren izenburua jarrita: adibidez, kalejira.jpg.

Honako sariak emango dituzte: argazki onenaren egileari, 150 euro; bigarren onenari, 100 euro; eta hirugarren onenari, 50 euro. Bestalde, jasotako argazki guztiak www.eskoriatza.net webgunean ipiniko dituzte.

Mugaeguna: uztailak 18.

Bestelakoak

ARRASATE

> Poesia musikatu emanaldia eta bidaiatzeko aholkuak

Gazte Bulegoak eta Sexologia Zerbitzuak antolatuta, Ain-1-en poesia musikatu emanaldia egongo da martitzenean, hilak 8, eta bidaiatzeko aholkuak emango ditu Mertxe Bilbao bidaiariak egunean, hilak 10. Biteri plazan, 19:00etan.

ARRASATE

> 'Esklerosi Anizkoitzagatik busti zaitez!' igeriketa kanpaina

Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteak Busti Zaitez! delako kanpaina egingo du etzi, domeka, aurten laugarrenez. Helburua da gizaratean sentibiltziazioa piztea eta gaixotasun horren gainean informatzea. Horretarako, Musakolako igerilekuean ibiltzera dei egingo dute; egindako metro guztiak kontatuko dituzte.

Etzi, domeka, Musakolako kiroldegiko igerilekuan.

**Los cronocrímenes**

Zuzendaria: Nacho Vigalondo.
Aktoreak: Karra Elejalde, Barbara Goenaga, Nacho Vigalondo.
Espainia, 2007.
90 min. 13 urtetik gorakoendako.

Nacho Vigalondoren *7:35 de la mañana* film laburra Hollywoodeko Oscar sarietarako izendapena lortu zuen. Hori dela eta, zuzendariak aukera izan zuen komunikabideetan azaltzeko eta, agerpen horietan, jariatuna eta grazia erakutsi du bere burua eta bere lanak ezagutarazteko. Den den, oso zaila izaten da film laburretatik luzeetara pausoa ematea: diru dezente behar da film bat egiteko, eta, hori lortu ondoren, ez da batere erraza zinematera behar duen bezala heltzea. Vigalondok, hilabete batzuk itxaron eta gero, *Los cronocrímenes* estreinatu du, eta lortutako emaitza, bere mugak izan arren, interesgarria, originala eta pertsonala da.

Filma zientzia-fikziozko generoan kokatzen da. Denboran bidaiatzeko aukera ematen duen makina bat da istorioaren bultzatzailea. Badakigu halako bidaiak buruhauste ugari sorrarazten dituztela: pertsonaiek, iraganera joaterakoan, gertatutako gauzak aldatu nahi izaten dituzte, eta hor dena nahastu egiten da. Alde horretatik, Vigalondok intrigarekin ondo jokatzen du: ikusten ditugun gauzak misteriozkoak dira, beti daude ezagutzen ez ditugun datu edo gertakizunak. Geroago, datu horiek argitzen zaizkigu, baina horiek argitzerakoan, beste misterio berri batzuk sortzen dira. Istoria hainbat estalkiz osatuta dago, eta estalki bat jasotzeak beste berri baten agerpena ekartzen du. Gidoia ondo landutako joko bihurria da.

Itxurari dagokionez, igarritzen da aurrekontu txikia izatearen mugak: irudien kalitateak, girozuek edo jantziek, momentu batzuetan, istorioaren sinesgarritasuna murriztu egiten dute, eta, aktoreen lanari dagokionez, nahiko irregularra da: batzuk ondo daude; beste batzuk, ez hain ondo. Hala eta guztiz, Vigalondoren lehen filma kontuan izateko lana da.

Antonio Zabala

Zinema**ARETXABALETA ITURRIGORRI**

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
19:15, 22:00.
Domeka: 21:30.

BERGARA GAZTETXEA

Deseando amar
Eguena: 21:30.

EIBAR UNZAGA

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelena, martitena eta eguzatena: 19:30, 22:15.

GASTEIZ GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
17:30, 20:00, 22:30.

El incidente
17:30, 20:00, 22:30.

12
18:00, 21:00.

Antes de que el diablo sepa que has muerto
17:30, 20:00, 22:30.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián
17:00, 19:45, 22:30.

Sexo en Nueva York
17:00, 19:45, 22:30.

El increíble Hulk
17:30, 20:00, 22:30.

FLORIDA-GURIDI

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
19:15, 22:00.

Los cronocrímenes
18:00, 20:15, 22:30.

Funny games
17:30, 20:00, 22:30.

Rivales
18:00, 20:15, 22:30.

Aritmética emocional
17:30, 20:00, 22:30.

Caos calmo
18:00, 20:15, 22:30.

Ahatetxo itsusia eta ni
17:30.

Bienvenido a Farewell-Gutmann
17:30, 20:00, 22:30.

YELMO CINEPLEX-GORBEIA

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián
12:15, 15:30, 17:15, 18:30, 20:15, 21:30, 23:15, 00:30.

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
12:15, 15:45, 17:00, 18:15, 19:30, 20:45, 22:00, 23:15, 00:30.

El incidente
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

La niebla
17:45, 20:05, 22:25, 00:45.

Speed racer
12:15.

Rivales
18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

Algo pasa en Las Vegas
20:15, 22:15, 00:15.

La boda de mi novia
12:15, 15:45, 17:45.

Iron man
12:15.

El increíble Hulk
12:15, 16:30, 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30, 00:45.

Sexo en Nueva York
16:00, 18:45, 21:40, 00:25.

Fuera de carta
19:45, 21:55, 00:05.

Paso de ti
16:20, 18:25, 20:30, 22:35, 00:40.

El patito feo y yo
12:15, 16:15, 18:15.

Dueños de la calle
19:55, 22:05, 00:15.

Papá por sorpresa
12:15, 15:35.

Horton
12:15, 16:25.

Las crónicas de Spiderwick
12:15.

Mi monstruo y yo
12:15.

La noche es nuestra
12:15, 15:35, 17:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan. Astelena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

ÁBACO BOULEVARD

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal
16:15, 19:15, 22:10, 00:45.

Paso de ti
15:45, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

La niebla
19:30, 22:00, 00:45.

Sexo en Nueva York
16:15, 19:15, 22:15, 01:00.

Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián
16:00, 18:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 01:00.

Algo pasa en Las Vegas
20:20, 22:30.

La boda de mi novia
20:00, 22:10.

El increíble Hulk
15:50, 17:00, 18:10, 19:20, 20:30, 22:15, 22:45, 00:45.

El patito feo y yo
16:05, 18:00.

La isla de las almas perdidas
16:05, 18:10.

El incidente
16:15, 18:15, 20:15, 22:25, 00:30.

Ella es el partido
17:00.

Rivales
16:05, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan. Eguerdiko saioak, domekan.

**Las crónicas de Narnia: el príncipe Caspián**

AEB, 2008. Zuzendaria: Andrew Adamson. Aktoreak: Ben Barnes, Georgie Henley, Skandar Keynes, William Moseley. 110 min. Denondako. Narniako errege-erreginak berriz batzen dira, eta euren denboran 1.300 urte pasatu direla ikusiko dute. Narniako Urrezko Aroa bukatu da, eta telmariarrek Narnia konkistatu dute. Lau neska-mutikoek Caspián printzea ezagutzen dute, Miraz osaba gaiztoak mehatxatuta bizi dena.

Narniako Kronikak delako film sortako beste kapitulu bat zinematan dago.

Eskasa: * Balekoa: ** Ona: *** Oso ona: **** Bikaina: *****

El incidente **

AEB-India, 2008. Zuzendaria: M. Night Shyamalan. Aktoreak: Zoëy Deschanel, Mark Wahlberg. 91 min. 13 urtetik gorakoendako. AEBetako hainbat lekutan, une berean, jendea bere burua hiltzen hasten da. Zer dabil hori eragiten? Elliot Moore irakaslearendako, thes egitea da garrantzitsua.

Funny games

AEB-Frantzia-Alemania-Italia, 2007. Zuzendaria: Michael Haneke. Aktoreak: Naomi Watts, Tim Roth, Michael Pitt. 111 min. 18 urtetik gorakoendako. Michael Haneke-k izen bereko bere filmaren remake-a egin du hemen. Anna, George eta Georgie semeak oporrak hasi dituzte udako etxean. Halako baten, Paul eta Peter gazteak agertzen zaizkie etxean...

Los cronocrímenes ***

Espainia, 2007. Zuzendaria: Nacho Vigalondo. Aktoreak: Karra Elejalde, Barbara Goenaga,

Nacho Vigalondo.

90 min. 13 urtetik gorakoendako. Gizon bat denboran atzeraka doa eta bere buruarekin topo egiten du; neska bat biluzi agertzen da baso erdian; gizon misteriozko batek aurpegia arrosa koloreko bendaz estalita dauka...

3:19 ***

Espainia-Mexiko, 2007. Zuzendaria: Dany Saadia. Aktoreak: Miguel Ángel Silvestre, Barbara Goenaga, Félix Gómez. 105 min. 13 urtetik gorakoendako. Emakume erakargarriak ezagutzeko pentasutako joko original batek kasualitateak -edo patuak- ere eragina izatea ekarriko du.

El increíble Hulk ***

AEB, 2008. Zuzendaria: Louis Leterrier. Aktoreak: Edward Norton, Liv Tyler, Tim Roth. 114 min. Denondako. Bruce Banner zientzialaria *Hulk* bihurtzen duten gamma izpien efektua osatzeko modu baten bila dabil.

Margot y la boda *

AEB, 2007. Zuzendaria: Noah Baumbach. Aktoreak: Nicole Kidman, Jennifer Jason Leigh. 93 min. 13 urtetik gorakoendako. Margot Zeller idazlea bat-batean eta ezustean agertzen da Pauline ahizparen ezteietan. Bi ahizpak ez dira ondo konpontzen.

El patito feo y yo

Frantzia-Alemania-Irlanda-Erresuma Batua-Danimarka, 2006. Zuzendariak: Michael Hegner, Karsten Killek. 85 min. Denondako.

Ahatetxo Itsusiaren eta haren amaren istorioa kontatzen du filmak, baina bertso ezohikoan.

Aritmética emocional ***

Kanada, 2007. Zuzendaria: Paolo Barzman. Aktoreak: Susan Sarandon, Gabriel Byrne. 100 min. 7 urtetik gorakoendako. 1945ean, Jakob Bronskik anai-arreba batzuk babesten ditu Drancyko kontzentrazio-esparruan.

nire aukera

Mirari Arando
Sexologia Zerbitzua
Arrasate

"Bilbora noa The Police ikustera"

Asteburuaren arabera gauza ezberdinak egiten ditut lagunekin edo mutil-lagunarekin normalean. Poteoan ere irteten gara Aretxabaletan, bertakoa naiz ni. Orain, udan, nonbaiten jaiak baldin badira bertara joaten gara, baina askorik pasatu gabe. Hilean behin, gainera, Madrilera joaten naiz, master bat egiten nabil eta eskolak izaten ditut.

Gaur, Bilbao Live BBK jaialdira joango naiz, Bilbora. The Police taldea ikusteko gogo handia daukat. Lagun batek zozketa bidez lortu zituen sarrerak, eta harekin joango naiz.

Zeintzuk dira zure zaletasunak?

Bidaiatzea asko gustatzen zait. Uda honetan Kroaziara joateko asmoa genuen, baina oraindik ez dago gutziz lotuta, pentsatzeko dago. Kirolzalea ere banaiz, mendira eta igerilekura joan eta bizikletan ere ibiltzen naiz.

Aisialdia alde batera utzita, zure lana gustatzen zaizu?

Bai, asko. Arrasaten sexualitate osasuntsuagoa bultzatzeko proiektuetan dihardugu: aholkularitza ematen, eskolatan ibiltzen gara, erakusketak... Orain, Sexmetraia lehiaketarekin buru-belarri gabilta.

Orain, Sexologia Zerbitzua kalera eramango duzue. Jende gehiago erakarriko du horrek?

Erakarri baino gehiago, zerbitzua herritarrengana gerturatu nahi dugu. Egunok Sexmetraia SEXMUGI -mugikorrez grabatutako 60 segundoko filmak- atal berria indartzeko erabili nahi ditugu.

Jende asko joaten da zuen zerbitzuen bila?

Arrasatearren ohiturak aldatzen ari dira eta sexualitatearen inguruko bizipenak era naturalagoan bizitzen ditugu. Ondorioz, herritar ugari erabiltzen dute zerbitzua kuriositate eta kezak asetzeko, seinale ona da. Dena den, oraindik lan egin behar da.

Igerilekuan liburuz blai

LIBURUTEGIA Errotalden zerbitzua eskaintzeaz gain, Agorrosinen liburuak hartzeko aukera emango dute udan

ARRATSALDEZ Berdegunean egongo dira liburuak uztailean eta abuztuan 15:00etatik 17:00etara bitartean

MUSIKA Libururik berrienez gain, bazkideek CDak eta DVDak hartzeko aukera ere izango dute

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA
Eguzkitan etzan eta kolore pixka bat hartzeko moduko eguraldirik ez dugu izan asteon. Bai, ordea, berdegunean etzanda irakurtzeko. Horretarako, liburutegia eskura ipini dute Bergaran, Agorrosingo berdegunean.

Udal Liburutegiko langileak egongo dira uztailean eta abuztuan 15:00etatik 17:00etara Agorrosinen. "Liburuak hartzeko liburutegiko bazkide izan behar dute, baina ez direnek aukera dute momentuan bazkide egiteko. Eskaintzen dugu liburutegiko zerbitzu bera, baina Agorrosinen. Erreserbak egiteko aukera ere badago, hemen liburu batzuk bakarrik dauzkagu-eta. Hasi baino ez gara egin eta jendearen erantzunaren eta eskaeren arabera moldatuko dugu dena", esan digu Laida Zubiak.

Zubiak azalpenak ematen ziharduela mutiko talde bat geraturatu zen liburuak begiratzera. "Orain jakin dugu liburutegia dagoela Agorrosinen. Ez dugu ohitura handirik Errotaldera joa-

teko, lanen bat egiteko ez bada. Udan irakurriko dugu, baina etxean; hona bainatzera etortzen gara, ez irakurtzera", esan ziguten.

LIBURUAK, MUSIKA ETA DVD-AK
Libururik berrienak ipini dituzte, baita CDak eta DVDak ere. "Udarako liburu asko hartzen ditu jendeak", esan digu Laidak.

Jon Elortzak ere egin zuen liburutegira buelta. "Ikusi eta gogo apur bat sartu zait. Ez naiz oso irakurzalea, baina, hain eskura ipinita, liburu bat hartzea pen-tsatu dut", esan zigun.

Osintxuko Beñatek abenturazko liburuak ditu gustuko eta animalienak Manexek. "Jon eta Beñat ipuina hartu dut eta ahal badut hemen amaituko dut; bestela, etxean", esan zigun Manexek.

"Normalean liburu edo jolasen bat ekartzen dut denbora pasatzeko, baina liburutegia ipini dutenez, aprobetxatuko dugu", esan digu Beñatek.

Igerilekuko bueltaren ostean, liburuz blai egiteko aukera polita eskainiko dute udan.



BERDEGUNEA Agorrosingo berdegunearen aldamenean daude liburuak kontsultatzeko eta hartzeko.

IRATI AGIRREAZALDEGI

ahobero

"Metroak sekulako nazka ematen dit, gizateria usaina duelako"

Monica Molina > Abeslaria

Fin antzean esan arren, hitzok bota dituenak berdin esan zezakeen metroak kaka usain duela. Diruak kaka artean ere usain ona omen du, eta diruaren eta famaren usainak liluratuta dabilena nekez sartuko da lur azpian, are gutxiago metroa hartzeko. Baina bada garaia arrosa usaineko bere lainotik lur azpira ez bada ere lur azalera jaisteko.

iturri onetik

Birziklatze tailerra eta artisau azoka Gandiaga Topagunean uztailaren 27an

Arantzazuko Gandiaga Topagunean Oñatiko ARTso taldeak antolatuta birziklatze tailerra eta artisau erakusketa izango dira uztailaren 27an.

Artea zabaltzea du helburu talde berri horrek eta erakusketan 10 artisauen lanak ipiniko dituzte ikusgai: banastak, zeramika...

Bestalde, plastikoa, latak, kartoia... berrerabiliz zein produktu egin daitezkeen ere erakutsiko dute.

piperrautsa

Mikel Irizar > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

Irlandan gozo

Hogeita sei urteren buruan itzuli gara etxekoandrea eta biok Irlandara. Ohi bezala, egunero izan dugu euria, baina baita eguzki tarreak eta ateri-une dezenteak. Eta edozein kasutan, eguraldia ez zaigu oztipo izan Irlandaz gozatzeko.

Guinnes eta Smithwicks gura adina edan, kale dendaz bete eta koloretsuetan galduta ibili, itsasertz eta laku-ondo zoragarrietan samurtu, Connemarako Michael eta Mariaren etxeko sutondoan turf errearen usainetan solasean egin... Apenas izan da astebete, baina nire neuronek sekulako atsedena hartu dute, ohiko borroketatik libre.

Eta sentitu dut Irlandak oraindik guk baino areago gordetzen duela bizitzaren alde ludikoa. Agian irlandarra banintz, neuk ere bizkar emango niokeen Europa hagin zorrozdu honi.

ai, ene!



Izozkia urtzen joaten denerako babesa

Zeini ez zaio izozkia urtu jaten diharduen bitartean? Bada, hona hemen asmakizuna izozkiaren tantekin eskuak ez zikintzeko.

www.fotosdehumor.com

9 egun / 7 gau – Dena barne

Playa Bavaro 445 €

Irteera egunak: uztailak 1, 4, 8, 11, 15, 18, 22, 25 eta abuztuak 27

Maia Erribera 499 €

Irteera egunak: uztailak 4 eta 11

Jamaika 645 €

Irteera egunak: uztailak 7, 14, 21 eta 28

Erregai gehigarria: +140 € Aireportu tasak: +99 €

Eskaintza bereziak.
Sekulako aukera



Arrasate Bidaiak

CIE 2214

BIDAIA-AGENTZIA ELKARTUA



ARRASATE BIDAIAK • Kontzeziño kalea 12 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 / Faxa.: 943 79 74 45
E-posta.: d4051@marsans.es